Kontraposiziozko bidea izan dezakegu beti ere, hoberik ezean, argitze-lan horretan aurrera egiten saiatzeko modu bat. Lagungarri genituzke, horretarako, *zuzen* diogunean zer esan nahi ez den azaltzeko inoiz baliatu ohi ditugun azalpideok: *euskara kaxkarra, ximplea, mordoiloa; euskara itsusia, pobrea, korrientea; arlote-apala, kamutsa, ulergaitza; ahuntz-euskara, gai ez dena, nahi eta ezinekoa; euskara artifiziala, erasana, plastikozkoa; ortopedikoa, residuala, euskainola*. Balorazio-karga hain zuzenik gabe, eta jardun-esparru edo azterpide jakin batzuen moldeak hartaraturik, hor dabilzkigu orobat *euskara teknikoa, zientifikoa, elaboratua; euskara urbanoa, rurala, todo-terrenokoa...*

Euskara-modu askotxo ere badira horiek guztiak, ondo pentsatzen jarrita, garen milioi erditxoarentzat. Eta, halere, euskararen gaur eguneko erabilmodu eta erabilgune, erabilgai eta erabiltzaile desberdinen adierazgarri dira esapideok. Erraza da, izan ere, euskara zuzen erabiltzea zer den lerro bakan batean galdetzea. Nekez lortuko dugu ordea, geure burua engainatu nahi ez badugu behintzat, gehienon ase-betegarri gertatuko den erantzun laburrik, orrialde bakarrean kabitzen den modukorik, aurkitzea. Ez eskola-munduan eta ez administrazio-esparruan, ez luze-zabaleko komunikabideetan eta ez publizitate-sailean berehalako erantzun argirik aurki dezakegu galdera ximple horrentzat. Gustu kontua ote den ere pentsatzera jo ohi dugu, inoiz edo behin, ezinaren ezinaz. Estetika ote da, beraz, guztia? Zuretzat itsusi diren jertsei marroiak niretzat atsegin diren moduan ote da Urliari ederra iruditzen zaion euskara-modu hori Sendiarentzat enbarazgarri? Estilistikaren gatibu, eta modaren menpeko, ote da guztia? Itsaso zabala sekante-lehorgailuz hustu nahian ari ote gara, ezintasun hutsa eginkizun bihurtu nahirik?

Ez dirudi hori ere, ordea, zeharo horrela denik. Beste hizkuntzetan ere eztabaidarik ez da falta izaten erabilera zuzenaz; erabilera zuzenik ez dagoenik esatera inor gutxi ausartzen da ordea, hori eta horrenbestez. Askori ez zaio okurritzen, behintzat, lan bila etorri berria den atzerritar xume baten hizkera erdi-ikasi, eten, tiriki-tarrakakoa edertasun-eredutzat hartzea. Badago beraz zerbait, eta zerbait baino gehiago ere bai, erabilera zuzena, hezkuntza-munduan zein beste esparruetan, zehazten duena. Horixe da hain zuzen, gaizki ez baderitzozue, ondoren argitzen saiaturia nahi genukeena.

## I. ZUZENTASUNAREN MUGARRIAK

Bide ondoko mugarrak ez dira bidea, baina bidea nondik nora doan eta baterako edo besterako zenbat kilometro falta den adierazten digute. Zelai baten mugarrak ez dira zelai-soro. Baina soro hori eta albokoak bereizteko, “hori hirea duk eta hau nire” zehazteko, balio izaten dute. Ba ote da, orobat, erabilera zuzena zer den esatera pasa aurretik hartarako lagungarri gerta daitekeen elementurik? Badirudi baietz. Niri, horberik ezean, honako hauek behintzat kontuan hartu beharrekoak iruditzen zaizkit.

### I.1. Agerbidea

Hizkuntza era desberdinetan ager eta erabil daiteke. Lehenengo-lehenengo zatiketa, guztioi bat-batean burura etorri ohi zaiguna, badakizu zein den: ahozko erabilera batetik, eta idatzizkoa bestetik. Edonork onartuko dizu, beste hainbat gauzatan iritzi diferentekoa izan arren, ahozko jarduna eta idatzizkoa ez datozela beti bat. Bakoitzak bere ezauzgarriak, bere muga-baldintza propioak dituela. Hots, elkarrengandik aski bestelakoak direla hitzeko agerbidea eta idatzizkoa.

Eskola-mundua gogoan izanik, orobat komunikabideetako esatari-lana aintzakotzat hartuko bada, berehala konturatuko gara ordea hiru direla gutxienez, eta ez bi, mintzajardunaren agerbideak: hizketa, jendaurreko irakurketa eta idazketa.

Funtsezkoa da banaketa hau, hobekuntza-bideez ezer ganorazkorik esan nahi bada: ahozko erabilera hobetzeko gomendatu behar den zenbait neurri (doinuera egokia zaintzea, adibidez) aski lausoturik gelditzen da idazketari dagokionean. Puntuazio-zeinuen erabilera-kezkak, aitzitik, idazki-oinarrian bakarrik du eragin zuzena.

Berez, *ulertu* → *hitz egin* → *irakurri* → *idatzi* multzoan ondoriobidezko katea, nagusiki ezkerretik eskuinera doan inplikazio-eskala, gertatu ohi da. Ulertu egin behar da, normalean, hitz egiteko; hitz egiteko gai izan behar da, bestalde, ondo irakurtzen eta, zer esanik ez, txukun idazten jakiteko. Salbuespenik ez da halere falta izaten, eta gurea bezalako elebitasun-giroan areago. Lehenengo salbuespen-iturria, begien bistakoena, hainbat euskaldunberrik osatzen dute: irakurtzen badakite, egungo testu arruntak batez ere, eta idazten ere ez dira hain desegokiak; hitz egiteko orduan ondotoxoz okerrago dabilta, ordea. Inplikazio-eskala horren muga nagusia, salbuespen zorrotza ez bada ere, alfabetatu gabeko euskaldun zaharrek osatzen dute dena den: horietariko askok eta askok, berrogeita

hamar urtetik gorako gehienek, nekez irakurtzen dute euskaraz eta nekezago idazten. Hitz egiten halere, beren euskalki edo azpieuskalkian, oraingo euskaldun gazte gehienek baino hobeto dakite.

Ondo bereiz ditzagun hortaz, erabilera zuzenaz hitz egiterakoan, mintzajardunaren hiru agerbide nagusiok: hizketa; jendaurreko edo boz gorako irakurketa; idazketa. Zuzentasun-baldintzak ez dira hiruretan berdinak, ez neurritz eta ez izaeraz. Pertsona berberak zuzentasun handiz jardun dezake ahoz eta oso eskas idatziz, edota alderantziz. Zuzen hitz egitea gauza bat da, zuzen irakurtzea bestea eta zuzen idaztea bestea. Berriro itzuliko gara dena den, xehetasunei heltzerakoan, bereizbide honetara.

## **I.2. Nahi-jakin-eginen arteko jauzia**

Euskara garbiaren aldeko asko ez da gai euskara garbian hitz egiteko edo idazteko. Euskara batuaren aldeko askok ez daki, berak besterik uste duen arren, euskara batuaz idazten. Euskara batuaren arauak ondotoxo ezagutzen dituen zenbaitek, euskara batuaz jarduteko gai den zenbaitek alegia, ez du euskara batua erabili nahi izaten (une-leku jakin horretarako egokia iruditzen ez zaiolako, gogoko ez duelako edo beste motiboren bat dela medio). Hitz gutxitan esateko, gauza bat da euskara-molde bati buruz dugun jarrera edo iritzia; beste bat euskara-molde hori zuzen erabiltzeko dugun gaitasuna; eta besterik, azkenik,aldi jakin bakoitzean zer euskara-molde erabiltzen dugun. Zuzentasun-auzia garbitzeko orduan ere on dugu beraz, alferrikako buru-kantsazioetan jardun nahi ez badugu, jarrerak (zer nahi genukeen), gaitasuna (zer dezakegun) eta aldian aldiko erabilera (zer egiten dugun) elkarrengandik bereiztea. Lehen begiratu batean pentsa dezakegun baino alde handiagoak izaten dira sarri, erabilera zuzenari dagokionez, predikatzen dugunetik egiten dugunera. Geure burua engainatzen ere jarduten dugu zenbaitetan, hau edo hori nahi genukeela eta hau edo hori euskaraz azaltzeko erabat gai garelara diogunean: ehizerako afizioa gauza bat da, ehizean ondo jakitea bestea eta ehizaz kargaturik etxeratzea erabat bestea.

## **I.3. Mintzajardunaren inguramendua: esparruak, rol-harremanak, situazioak**

Gainerakoak ezertan gutxiesi gabe ere ikuspegi hau iruditzen zait niri bidezkoena, erabilera zuzenaren auzia era objektibo samarrean garbitzen saiatzekotan. Mintzajardunaren zuzena, edo zuzentasunik eza,

jarduera horren inguramenduak markatzen du neurri on batean: non gertatzen den (esparrua), nork norekin diharduen (rol-harremana) eta solaskide jakinek esparru jakinean zertaz diharduten (situazioa). Banan-banan ikus ditzagun inguramendu-markatzaileak.

#### a) **Esparrua**

Definizio teorikoekin inor aspertzen ez ibiltzeko, har dezagun gizaki guztiok aski ezaguna dugun esparru bat: familia. Gizarte-bizitzak esparru asko ditu, jakina denez. Mintzajardunaren bereizgarriak aintzakotzat hartzekotan, eta Schmidt-Rohr-en aspaldidaniko multzokatzeari eutsiz, familiaz gainera hor genituzke lan-esparrua, hezkuntza-mundua, erlijio-alorra, entretenigarriak, luze-zabaleko komunikabideak, aginte-esparrua eta administrazioa, etab. Esparru hauek denak eta gehiago bereiz daitezke, mintzajarduna NON gertatzen den azaltzeko orduan. Aski esparru zabalak dira horiek gainera.

#### b) **Rol-harremanak**

Esparru bakoitzaren barnean bereizketa xeheagoak egin daitezke. Familiaren esparruan, horrela, NORK NOREKIN jarduten (normalean hitz egiten) duen aztertzen badugu berehala aterako zaigu honako solaskide-zerrenda hau bederen: senar-emazteak, gurasoak haurrekin (aita-semeak, ama-alabak...), anai-arrebak, aiton-amonak ilobekin... Esparru jakin batean (kasu honetan famili giroan) berezkoenak diren rol-harremanak ditugu horiek. Lan-munduan beste rol-multzo batzuk genituzke, aldiz: nagusi-enplegatuak, kapataz-menpekoak, parez pareko langileak, zerbitzu-emailea batetik eta bezeroak bestetik... NORK NOREKIN jarduten duen, bakoitzak duen rola duelarik, gertatzen da banaketa horietan erabakitzaile. Eta banaketa-modu horrek, nahita edo nahi gabe, bere legeak ezartzen dizkio mintzajardunari: seme-alabek hika egingo dute agian beren artean, baina ezinbestean zuka (hain aspaldi ez dela berorika) egingo diete gurasoei; zuzentasunaren kontrako arau-hauste larria litzateke alderantzizkoa. Ikasleek ere nekez hitz egingo dute irakaslearekin, ikasketa-buruarekin edo eskolako zuzendariarekin beraien artean jarduten duten moduan. Norekin ari diren ez zaie, normalean, ahazten.

#### c) **Situazioa**

Diferentziak markatzen dituen ez da esparrua eta nork-norekikoa bakarrik, ordea. Zertaz hitz egiten (edo idazten) den ere garrantzitsua da. Mintzajardunaren agerbidea ere bai: ahoz eta aurrez aurre ematen den abisua gauza bat da, eta idatzizko oharra bestea. Situazio bakoitzari bere

hizkera-modua dagokio. Horrela, era batera jardungo du hizketan Aurrezki Kutxako zuzendariak bere lagunekin larunbat arratsaldean, goizean ibili ondoren kopaxka bana hartzen ari direlarik solas eta irri; eta beste batera jardungo du astelehen goizean bere despatxo ondoko bilera-aretoan, diru-etxeke goi-arduradunak bildu eta azken sei hilabeteetako gestio-balantzea hitz neurtuz eta boz goran, azken hamar egunetan ongi orraztutako txostenetik noski, era pausatuan irakurtzen dienean. Erabilera zuzena aldatu egiten da, pertsona bakoitzarentzat ere, situazio batetik bestera. Situazio batean egokia eta are gomendagarria den doinua, perpaus-osaera eta trataera-moldea desegokia, barregarria, zakarra edota iraingarria gerta daiteke beste situazio batean. Aldatu dena ez da pertsona (eta, beraz, bere hizkuntz gaitasuna), situazioa baizik. Urrutirago gabe hementxe ari natzaizue orain, ahal dudan serioenik, buruari astindualdi bat baino gehiago eman ondoren txosten hau irakurtzen. Zaudete seguru beste era batera jardungo dudala gauean, etxeraten naizenean. Orduan ere ni izango naiz, noski, baina beste mintzamolde batez diharduena. Esan ote dezakegu zuen aurrean zuzen ari naizela, eta etxean oker? Ez, inola ere.

Hizkuntzaren erabilera zuzena ez da balio absolutu bat. Situazio bakoitzak bere beharrak ditu, bere rol-harremanak eta bere mintzagaiak. Agerbide batera edo bestera makurtzen du situazio bakoitzaren definitzaile den NORK-NOREKIN-NON-ZERTAZ multzo horrek. Eta kasuan kasuko situazio-ezaugarri horiek agintzen diote, hiztun trebe eta garbiari, une horretan zer den on eta zer txar, zer egoki eta zer trakets, zer mesedegarri eta zer enbarazu huts. Erabilera zuzena, zuzentasuna alegia, situazionala da. Situazio-egoerak berak markatzen du hortaz, hiztunaren beraren trebeziak gainera, egokiaren eta desegokiaren arteko muga lauso, eta halere eragingarri, hori non dagoen.

#### **1.4. Hizkuntzaren erabilera eskolako situazio-egoera desberdinetan**

“Ondo da, bale, konforme...” pentsatzen ariko da honez gero irakurle bat baino gehiago. “Esan diguzu, mila buelta eman ondoren, erabilera zuzenik, behin-betiko eta singularrean eman daitekeenik, berez ez dagoela; situazio-egoera bakoitzak bere zuzentasun-baldintzak dituela eta baldintza horietara biltzen den mintzajarduna bakarrik izan daitekeela zuzena edo, nahiago badugu, egokia. Nola aplikatu behar dugu hau guztia, ordea, gure eguneroko praktikan? Nola konkreta daiteke hori guzti hori hezkuntza-munduko jardunean?”. Arrazoi du noski halako kezkarerkin dabilenak, eta gisakoa denez hobe izango dugu gerora gabe konkretzio horietara hurbiltzen hastea.

Mintzajardunaren situazio-egoeraz ematen ari garen eredu honek, NORK-NOREKIN-NON-ZERTAZ galderei erantzunaz eta agerbidea kontuan izanik, honako kasuistika nagusi hau luke, nire ustez, eskola-giroan:

a) irakaslea mintzo, hizkera formalizatu samar batean; ikasleak entzuten ari, edo apunteak hartzen.

b) irakaslea boz gora irakurtzen; ikasleak entzuten ari, edo testu hori berori irakurtzen.

c) irakaslea boz gora ari, buruz edo irakurtzen; ikasleak idazten ari (diktaketan).

d) ikaslea mintzo; irakaslea (erantzuteko edo) adi eta ikaskideak entzuten.

e) ikaslea boz gora irakurtzen; irakaslea eta ikaskideak entzuten edo, isilik, irakurtzen.

f) ikasleak (azterketan edo bestela) idazten; irakaslea, ondoren, irakurri eta zuzentzen.

g) ikasleak, binaka edo taldeka, elkarrekiko mintzajardunean: berdin du gela barruan, gelatik kanpora baina eskolan, edo eskolatik kanpora.

h) irakaslea apunteak edo fitxak prestatzen; ikasleak apunteak ikasten edo fitxak betetzen.

i) ikasleak etxeko lanak egiten; irakaslea, gero, zuzentzen.

j) ikasliburugilea testua idazten; orrazketa-arduraduna txukuntzen; irakaslea irakurtzen eta aplikatzen.

k) aurreko situazio bera, baina irakaslea ordez ikasleak dira irakurle, edo ikasle-irakasleak.

l) irakasleak beren arteko lan-jardueran (mintegian, zuzendaritza-taldean, klaustroan,...) eskola-bizitzaren gora-beherak gobernatzen.

Badakit ondotoz situazio-egoera gehiago eman daitezkeela eskola-munduan, eta haietarikoz batzuk aski espezifikoa direla (ikus-entzunezkoen gelan, kirol-kontuetan eta abar). Bere mugatuan ere aski adierazgarria gerta daiteke, ordea, hamabi ataleko sailkapen hau. Kasuan kasuko erabilera zuzen edo egokiaren onargarritasun-eremua definitzen lagun dezake, bederen. Horrela, boz gora hitz egin behar deneko egoera azaltzerakoan berriaz aipatu beharko da doinuera jatorrak eta hitz-ebakera garbiak duten garrantzia, perpaus-atal desberdinen azentuazio-unitateak

non doazkeen eta hitz arteko etengaitzoak nola ebitatu jakitea zein mesedegarri den...; irakurketa lantzerakoan abiaturari zor zaion begirunea eta erdal doinuetaatik ihes egiten erakustea komeni da, bestalde. Gutxiegi aipatzen dira aho-hizkuntzaren kontuok erabilera zuzenaz jarduterakoan: funtsezkoak dira, ordea, eta goiko sailkapen horretako lehenengo bost situazioek hurbilbide erosoak eskain dezakete zer hobetu behar den finkatzeko. Situazio bakoitzak bere eskakizunak ditu, eta eskakizun horietara ondo egokitzen jakin behar du hizkuntza zuzen erabili nahi duenak. Eskola-munduko erabilera zuzenaren ereduak ere ez da beti-batekoa, kasuan kasukoa baizik.

Badakit, ordea, urrun gelditzen dela oraindik sailkapen-modu hori irizpide operatiboetara iritsi ahal izateko. “Konforme —esango didazu— situazioak eta situazioak aztertu behar direla eskola-munduko hizkuntz erabilera zuzenaz jarduterakoan. Hurbilbide horrek ez digu ordea, lehen fase bateko nahaste-borrasteetatik libratzen erakutsi ondoren, eguneroko problema larri askori zer erantzun eman behar zaion erakusten”. Egia da kexu hau ere, eta aurrera egin beharko dugu beste aiheka batetik, problemaren muinerago iritsi eta korapiloa askatzen asmatu nahi badugu.

## II. ZUZENTASUNAREN TENTSIO-BEKTOREAK

Albo-hizkuntza nagusiek ere antzekoak dituzten batezbesteko arazoek gainera auzigai konkretu bereziagoak hor ditu gure hizkuntzak: azken mendeotan izan duen bilakaera eta gaur egun bizi duen egoera ezin dira ahaztu *zuzentasunaz* hitz egiterakoan. Erabilera zuzena definitzeko orduan euskararen gizarte-egoera horrek eragiten dituen zenbait tentsio-bektore aztertuko ditugu, gaingiroki izango bada ere, hurrengo atalean.

Oraindano emandako argibideez gainera, zein definizio-moldetan oinarrituko gara euskara zuzen erabiltzea zer den esateko? Garbi ote daukagu, bestela esanik, eskola-munduko erabilera okerren iturriak zein diren? Irakasleen kexuei kasu egitekotan, eta arrazoi sendoak daude horretarako, badirudi zuzentasun-listoia jartzeko orduan honako tentsio-bektoreok direla gaur-egun, eskola-giroan, buruhauste larrienak sortzen dituztenak: etxeko euskaratik edo euskalkitik euskara batura dagoen tartea; euskaldun ele-erasanetik euskaldun garbiaren mintzajardunera dagoena; euskaldunberrien gaitasun-gabezietatik euskaldunzaharren moldeetarakoa. Banan-banan ikusiko ditugu hiru puntuok, zuzentasun-kontuak eztabaidatzerakoan sarri gertatzen baitira nahasmendu-iturri.



## II.1. Etxeko euskaratik edo euskalkitik euskara batura dagoen tartea

Hizkuntza biziak, belaunaldi batetik hurrengora aurrez aurreko mintzajardunez transmititzen direnak, dialektotan banaturik egon ohi dira sarri. Ahozko agerbideak, beste hitzetan esanik, jaioterriak edo bizilekuak markaturiko aldaerak izan ohi ditu berekin. Lekuan lekuko moduan hitz egin ohi dugu gizakiok, umetan ikasitakoari beranduago (eskolan, unibertsitatean, goi-mailako lan-esparruetan) mintzamolde jaso, landu, bateratuagorik eransten ez diogun artean. Orduan ere ez dugu, normalean, txikitan ikasitako mintzaera zeharo ahazten eta etxean, familian, lagunarte hurbilean bederen dialekto horretatik ez gara erabat aldentzen. Non jaiokoak eta non haziak garen salatzen digu, sarri, gure hizkera-moldeak.

Gaztelaniaz, frantsesez, alemanez edo beste hainbat hizkuntzatan nabarmena den fenomeno hori ez da euskararenean txikiagoa. Mendez mende erabili ditugun euskalkiek osatzen dute orain ere, jardungune arrunt, aurrez aurreko gehienetan eta lagun-giroko xede afektibo, barrenkoi-intimo ugarienetarako, ohizko hizkera-molde bizi nagusia. Bakarra den hizkuntza euskalki bidez ezpain-belarrietaraten da, bertatik bertarako mintzajardunean, bizi-eremu arrunt ugarienetan: euskalki bidez edo, gero eta sarriago, euskalki-seinaleak oso agerian dituen “tarteko” mintzaera batez.

Etxetik euskaldun diren haurrak tokian tokiko hizkera egiten dutela datoz, beraz, maiz asko eskolara. Ez beti, euskalki arteko nahas-ezkontzak eta gurasoen herri-aldatzeak (lanbideak eraginik eta abar), helduen alfabetatzea eta irati-telebisten zabalkundea behinolako konpartimentazio geografiko hertsitatuaren aurka ari baitira, eta aurrerantzean ere ariko: baina orain ere Lekeitioko eskoletara doazen haur euskaldun gehienek Lekeitioko (edo bere inguruko) euskara-moldea dute lehen oinarri, Azpeitiko ikastetxeetara doazenean Azpeitiko edo Urola aldeko hizkera, Lesakara doazenean Bortzirietakoa, ...

Kontua ez da, gainera, hitz egiteko orduan bakarrik agertzen. Gure literatura ere, gure tradizio idatzia oro har, euskalki bidezkoa izana da orain punturarte. Hitzez ezezik idatziz ere leku batetik bestera norma, eredu, “zuzentasun”-patroi desberdinak izanak ditugu. Nola ezkontzen da, beraz, diasistema horren multiformetasuna zuzentasun-irizpideak ezinbestekoa-edo lukeen uniformetasunarekin?

Galdera horri erantzuten ez da batere erraza. Irakasleek beraiek dakite, inork baino hobeto agian, eragozpen horren berri. Euskara zuzena euskara batua dela uste duenari erraz samar aterako zaizkio, noski, kontuak; buruhauste gutxiago izango du horrek, zuzentasunaren langa “bere

lekuan” jartzeko. Euskara batua eta euskara zuzena sinonimotzat hartzen dituen irakaslearentzat, izan ere, euskara batuan ari ez den ikaslea oker ari da. Are gehiago: euskara batuaz idatzirik ez dauden liburuak, berdin du Orixeren *Euskaldunak* edo Lizardiren *Biotz-begietan* izan, ez daude “euskara aldetik” zuzen. Irizpide horretan oinarritzen den irakaslearentzat euskalkia, euskara batua ez den mintzaera edo idazmolde oro, ez da zuzena.

Aldiz, zuzentasunaren ikuspegi estremo horretara joan nahi ez duen irakasleak, eta asko dira estremo horretara joan nahi ez dutenak, lanak ditu euskara zuzenaren eta zuzena ez denaren arteko onargarritasun-listoia puntu egokian jartzen. Ondotxo konturatua dago era honetako irakaslea euskaraz, hitzez zein idatziz, zuzen egitea *dogu* ordez *dugu*, *laister* ordez *laster*, *ikusi dezake* ordez *ikus dezake* jartzea baino gauza konplikatua dela. Ikusi ere ikusi du, behin baino gehiagotan, euskarak indarra duen eskualde eta bizi-giroko eskolaumeen hizkera-moldearen ezauguera indartu eta hartaz baliatzeko mintzamena landu arte zaila dela euskara batuari oinarri sendorik ematea. Urtetako eskarmentuak erakutsi dio ikasle horien hizkuntz kodeak bat-batean “zuzendu”, “hobetu”, “osotu” edo antzekorik egin nahi izateak ez duela gainera, askotan, emaitza onik ekartzen. Euskara batuarekiko zuzentasuna bestelako zuzentasun-patroiekin konbinatu beharra izan ohi du, ondorioz, gure irakasle horrek.

Bere buruari galdezka hasten da, hasieran “oso garbi zeuzkan” kontuak hain garbi ez dauzkala oharturik: zer adinetako haurrekin edo eskolaumearekin hasi behar da euskara batuaz?; zer adinetatik aurrera hasi behar zaio ikasleari berari hizkuntz eredu bateratu hori eskatzen? Idatzizko zereginetara mugatu behar da zuzentasun-patroi hori, ala ahozkoa ere bai? Noiztik aplikatu daitezke eskakizun hori trebetasun pasiboetan (entzundakoa ulertzea, irakurtzea), eta noiztik aurrera aktiboetan (idaztea eta, hartarako eredurik dagoen neurrian, hitz egitea). Orduan ere zer leku aitortu behar zaio euskalkiari eskolan: lagunarteko hizketan, formalizazio-maila jasoagokoetan, euskal hizkuntza eta literatura irakastekoan?

Irakasle askori bururatzen zaizkion galderok are nabarmenago agertzen zaizkie Bizkaiko eta, oro har, euskara batutik urrunago gelditzen diren euskalkietako irakasle eta eskola-arduradunei. Inon baino argiago ageri ohi da, barne-egituraz hizkuntz eredu bateratutik urrunago dauden (eta urrunago daudela dakiten) hiztun horien artean, euskara batua eta euskara zuzena ez direla gauza bera: txikitatik ondo hitz egiten duenari (hots, bere guraso, anai-arreba eta lagunaren modu berean diharduenari), eguneroko gauzak erraz, arin eta bixi esaten dakienari, ohizko bizi-giroan adierazi beharrekoak argi eta zorrotz adierazten dituenari ezin esan

dakioke, noski, zuzen hitz egiten ez duenik. Ez, behintzat, *zuzen* hitzari aski adiera zehatz-konkretua ematen ez bazaio.

Eman egiten zaio, ordea, beste adiera zehatz-konkretu hori ere. Ez gurean bakarrik, gainera, eta ez gurean bereziki. Lehen aipaturiko gaztelania, frantses eta alemanen alorrera itzuliz, lekuan lekuko mintzaera (dialecto, patois, Mundart) horiez gainera bere eredu bateratua ere badu hizkuntza horietariko bakoitzak. Hasieran hitzun-talde jakin baten idatzizko formalizazioa zatekeen eredu hori ahozko zereginetan ere erabiltzen du gure hitzun gaztelau, frantses edo aleman horrek erabilgune eta mintzagai jaso-landu-formalizatuenetan. Ez hori bakarrik: hasieran jendaurreko erabilera jaso, landuetarako prestaturiko mintzaera horrek lekuan lekuko hizkerai lekua jaten die, apurka-apurka, eguneroko mintzajardunean ere.

Tradizio oso bat dugu Europa alde honetan, frantses-gaztelanien kasuan bederen mendetako tradizioa, hizkuntza zuzena Hizkuntz Akademien edota beste instantzia agintedun baten eredu bateratuarekin identifikatzen duena eta eskola-mundua eredu horren erakusleku eta zabal-kunde-iturri definiturik duena. Ikusmolde hori indartu egin da gainera mundu zabalean, ahuldu baino gehiago, azken berrogeita hamar urteotan estatu beregain “berri”-ak sortu diren heinean.

Etxeko eta lagunarteko mintzaera gozo biziak gainera hitzun beteak idazmolde eta hizkera-bide jasoagoa (jendaurreko agerpen eta azalpen-saio formalizatuertarako bereziki landua) berekin behar duela adierazten du ikusmolde honek. Etxekoarekin, lagunartekoarekin, bere eskualdean korritzen duen *Umgangssprache*-arekin ez duela aski. Nonaniko eta noranahiko erregistra ere, geografikoki neutroa den mintzaera alegia, ongi menderatu behar duela. Nonahiko euskaldunak, gurera etorritik, nonahiko euskaldunekin jarduteko balio izango duen eta txoko-markak hein batean neutralizaturik izango dituen euskara batu bat behar dugula. Euskara batu hori inon erakutsiko bada, berriz, eskolan erakutsi behar dela edota, gutxien-gutxienez, hor hasi behar dela erakusten. Euskara batu hori zuzen erabiltzen erakutsiko bada, berriz, batutik aldentzen dena “zuzen” ez dagoela erakutsi beharko. Horra beraz, hizkuntza zuzenaren lehen tentsio-bektorea. Bi zuzentasun-irizpidez ari gara hizketan,aldi berean: bi eratara uler daiteke, ikusi dugunez, hizkuntza zuzen erabiltzea zer den. Irizpide biok ez dute, ezinbestean, bateraezinak izan beharrik. Era eskusiboan hartu eta aplikatzen badira istilu-iturri izan daitezke, ordea.

## II.2. Euskaldun ele-erasanetik euskaldun garbira dagoen tartea

Aurreko batean gertatua. D ereduko ikastetxean gure semearekin dabilen mutiko batek etxera deitzen du. Telefonoa hartu orduko galde-tzen dit: “dago Ibon?”; eta nik: “bai, nor zara?”. Erantzuna ziplo: “naiz Aitor”. Handik ordu-laurdenera etxean dugu Aitor, beste bi lagunekin. Hor hasten dira laurak, D ereduko ikasleak guztiak, aita edo ama edo biak euskaldunak dituztenak, semearen gelara sartu eta elkarrekin jolasean. Bihurrikieran ere bai. Batek honela dio: “begira zer bota dit Asier!”; eta Asierrek azkar erantzuten: “si bera hasi da!”. Baretzeko-edo “jolasten dugu a kanikas?” galdetu du batek eta hor ibili dira, lurrean belaniko jarrita, bost bat minutu. Aspertutakoan, gelako beste lagun batez, itxura denez egunaren erdia telebista aurrean pasatzen duen batez, gaizki-esaka hasten dira: “dauka un mono!”. Gaiaz aldatzen dute halako batean, eta Asierrek honela dio: “A ke bai Jon, a ke zure aita dauka un bote fueraborda?”. Baietz dio Jonek, eta besteak inbiritan.

Euskara al da mutiko horien hizkera? Euskara hutsa, garbia, puru-purua bistan da ezetz. Erdal-euskara, erdarak erasandako euskara da hori. Ez edozein erdarak eta ez nolana ere erasandakoa, gainera: euskara baino gehiago euskainol dela hori esango du norbaitek.

Badakit zer esango didazun. Kasu estremoak direla horiek, eta hortik ezin dela konklusio handirik atera. Hitz egiten duten guztia ez dela hain nabarmena. Hamar urteko mutilak direla, gainera, eta mejooratuko dutela: ikasiko dutela behar den bezala hitz egiten. Edota, okerreanean ere, gaitz-erdi dela hori: “edo nahiago duzu erdara hutsean egin dezaten?”.

Kontua ez da ordea zer nahi dudana edo zer nahi dugun, zer gertatzen ari den baizik. Badakit, hasteko, lau eskolaume horiek (horietarik bik, behintzat) hori baino hobeto hitz egiten badakitela eta, egun horretan bertan, hobetoxeago mintzo zirela. Semeak, esate baterako, etxekoe-kin (gurasookin eta arrebarekin, aiton-amona eta izeba-osabekin) ez du horrela hitz egiten. Eskola-lagunen arteko mintzamoldea, jolas eta solas ari direneko batezbesteko hizkera-bidea, eredu horretarantz makurtzen da ordea sarri. Batzuek ezin dute hortik askoz gorago joan, eta besteak lasai sentitzen dira erdal-euskara horretara hurbilduz, guztientzat eroso-oso-edo den tarteko hizkera horretan eginez. Badakite ez dela euskara zuzena, baina horrantz hurbiltzen dira: zuzen-zuzenean batzuk, amor emanaz besteak.

Hiri eta herri hazietan, euskara-erdarak elkarren pegante bizi diren lekuetan edo erdarak euskara oso mendean hartua daukan inguruetan, maizago gertatzen da horrelakorik. Etxean eta kalean euskara nagusi den

tokietan (berdin du herriska txiki zein Azpeiti moduko bailarako herriburu izan) ez da hori, urrundik ere, joera nagusia. Gutxienak dira, ordea, euskara osasun betean duten herriskak; are gutxiago Ondarru, Oñati, Leitza edo Azpeiti moduko herriburuak. Beste multzokoak dira, demografiari dagokionez, gehienak. Erdal-euskararen fenomeno hori ez da, beraz, hain punta-mutur batekoa. Baliteke adibideak gordinegiak izatea; baina ez dira asmatuak eta gertaera zabal baten lekuko ditugu.

Eskuartearen dugun kontu hau ez da, euskalkiarenean bezala, mende mende geografi muga zehatzak izan dituzten hiztun-multzo eta harreman-sare aski egonkorren ondorio. Geure begien aurrean gertatzen ari den soziolinguistikazko bilakaera, sarri asko mintzaldaketa (eta berandu-xeago hizkuntz galera) bidelagun izan ohi duen gertaera da hau, ezer baino lehen. Geografiazko ezaugarriak ere izan ditzake noski, eta izaten ditu sarri; baina egungo elebitasun-molde desberdinen gizarte-dimentsioa da, nagusiki, euskaldun bete, garbien eta euskaldun ele-erasanen arteko tartea markatzen duena.

Garai batean, Kardaberazenean edo Mogelenean adibidez, elebaker edo ia elebaker izan ohi ziren euskaldun asko: denak ez, jakina, baina asko (gehienak, itxuraz) bai. Hiztun “beteak” deitu izan zaie hauei inoiz; euskaldun “garbiak” esaten zien, oker ez banago, Kardaberazek berak. Euskara erabat menderatzen zuten hauek; beren bizi-giroko edozer gauza esan behar zutenean, hizkuntzak hartarako dituen bideez airoski baliatzen ziren, hitz-etorri errazez eta behar zen zehaztasunez; giroak eta xedeak hala eskatzen zutenean, behar zen graziaz eta piperrez, hiztun iaioen doai den gazi-gozoz eta kolorez gatz-ozpindurik, jarduten zuten berbetan.

Joan dira gure artetik garai bateko euskaldun elebaker “bete”, “garbi” haiek. Euskaldun elebakarrik, bederen, apenas gelditzen zaigu inor sei urtetik gorakoetan. Elebidun bihurtu gara, halabeharrez. Euskaldun elebidunen artean ere baditugu, ordea, hiztun bete, garbiak. Are gehiago: lehengo haiek ez bezala, ondo irakurtzen eta ondo idazten dakite oraingo euskaldun bete, garbiok: atzera baino gehiago aurrera egin dute hauek. Ez dira lauzpabost euskalari askojakin eta beste lauzpabost euskaltzale bihotz-bero bakarrik, gainera. Gehiago dira, eta lanbide desberdinetan aurki ditzakezu. Irakasmundua ez da lekurik txarrena, bai irakasleen eta bai adin batetik gorako ikasleen artean osabetezko euskaltasun horretara iristen edo hurbiltzen diren pertsonak aurkitzeko. Orain mende-erdi elizgizon saiatu batzuen ezaugarri zen osabetezko gaitasun-lantze hori ikasle gazte zein helduen hezkuntza-alorrera, komunikabideetara eta administrazio-guneetara zabaltzen ari da apurka-apurka.

Hori ez da, ordea, egoera multiforme baten punta-muturra baizik: hortik hasi eta, lehen azaldutako eskola-lagun haiek etxean ageri zuten

erdal-euskarazko jarduneraino, tarte handia dago. Egungo euskaldunen artean, eskola-munduan eta eskola-mundutik kanpora, euskara-mailari dagokionez mutur bi horien tarte-bitartean gaude gehienok.

“Beste lekuetan ere horrelatsu izaten da”, pentsa dezake norbaitek. “Denak ez dira Real Academia-koak, eta gehienak ere ez”. Hankamotz gelditzen da ordea, ondo pentsatzen jarrita, gogoeta-molde hori. Kontua, izan ere, ez da Real Academia-koen pare gutxi batzuk bakarrik mintzo direla. Kontua ez dago hor, beste punta-muturrean baizik. Valladolid-ko, Madrilgo edo Logroñoko eskolaumeak, beren artean ari direnean, gaztelaniaz ari dira normalean: ez anglo-gaztelaniaz, franko-gaztelaniaz, germano-gaztelaniaz edo ez dakit nongo atzerri-hizkuntzak erasandako hizkuntza batean. Gaztelania bera aldatzen ari da noski, eta gazte horien mintzaera ere ez da beren gurasoen edo aiton-amonen hizkeraren kalko hutsa: gaztelaniaz pentsatzen duten neska-mutilok gaztelaniaren joskera-arau, hots-ebakera eta esamoldeak erabiltzen dituzte, ordea, neurri handi-handian. Hortxe dago aldea, alde nabarmena, lehen aipatu ditugun Donostiako lau eskolaume haiekin eta, oro har, egungo euskaldun askorekin: euskal familia batean (edo erdi-euskal erdi-erdal familia batean) jaiok dira hauek, baina gero kale-giroak, lagunarteak, ikasketak, lan-munduak hartaraturik euskararen “sena” galduz joan dira; gauzak euskaraz azaltzeko gaitasuna aski erasana daukate. Horien elea ez da betea, horien elea erasana dago. Ele-erasanak direla esango dugu, nolabait esan behar eta.

Erasanaren kontua ez da, berez, txuri eta beltz arteko partiketa: nekez esan dezakegu, egungo euskal herrian, “hiztun hauek ele-erasanak dira eta beste horiek ez”. Maila kontua, neurri kontua da batez ere: batzuk besteak baino erasanago daude edo gaude. Eskolaumeen kontua bakarrik ere ez da, esan berri dugunez: helduen artean bertan, irakasleak barne, maiz ageri den gertaera da ele-erasana edo interferentzia.

Hizkuntza ez dugu kolpean, bi urte-inguru horretan, ikasten. Hizketan orduan hasten bagara ere lehendik hasiak gaude oinarri-oinarrizko trebetasun batzuk eskuratzen eta gure hizkuntz gaitasuna osatzen, zabalitzen, aberasten jarraitzen dugu, normalean, bizian zehar: lehenik ulertzen eta hitz egiten bezala irakurtzen eta idazten ikasten dugu aurrerago; jardungune eta situazio-egoera desberdinetarako mintzaera egokienak bereizten joaten gara; zenbait lanbide-esparru eta espezializazio-alorretako terminologiaz jabetzen joaten gara,... gure hizkuntz gaitasuna sendotu eta garatu egiten dugu, bi hitzetan esanik.

Osabetezko egoeran dauden hizkuntzetan gauzak horrela edo horrelatsu badira ere, besterik da gure egoeran dauden mintzaiterako hiztunen kasuan: hauetan ez da, bertako hiztun askorentzat, horrelako sen-

dotze eta garatzerik gertatzen beren hizkuntz gaitasunean. Hobeto esanik, beste hizkuntzan (gizartean nagusi den hizkuntzan) sendotzen eta garatzen dute batez ere beren hizkuntz gaitasuna: gurera etorri hobeto manejatzen dira erdaraz, situazio-egoera askotan, euskaraz baino. Sendotu eta garatu baino gehiago ahuldu eta kamustu egiten zaie euskarazko gaitasuna. Hizkuntzaren berezko esamoldeak, joskera-arauak, hitz-jokaerak eta hots-ebakerak ez dituzte, neurri on batean, menderatzen. Ez hori bakarrik: hizkuntzaren lege eta arau horiek hautsi eta aldatu egiten dituzte, beste hizkuntzak erasanik. Gaztelaniari (iparraldean frantsesari) lotutako itzulpena egiten dute, euskara bortxatuz edo erasanez.

Euskaldun asko eta asko, neurri batean edo bestean, egoera horretan bizi bagara, zer zentzu du euskararen zuzentasunaz, euskararen erabilera zuzenaz hitz egitea? Arau-haustea lege bihurtzen ari den egoera batean, zer arau betearazi behar da eta zer arau ez? Non jarri behar da hizkuntza zuzenaren onargarritasun-listoia? Zer leku (hots, zer onarpen-maila) aitortu behar diegu mailegu zaharrei, berriei eta bart arratsekoei? Zer leku erabilera arrotzei (“ikasten ari naiz” ordez “ikasten nago”)? Jatorzaleak, garbizaleak, berehala erantzungo dizu: “fuera guzti horrekin; hori ez da euskara”. Gure hizkuntza bere buruaren jabe dela esango dizu halakok. Bere legeak, bere adierazpide eta debekuak dituela eta hiztunok, nor bagara, lege-bide-debekuok errespetatu egin behar ditugula. Ikusmolde honek badu, halere, bere ahuldaderik. Euskaldunok, gero eta euskaldun gehiagok, euskaraz ari garenean egiten dugun hori euskara ez bada zer da, izan ere, euskara? Behinolako hizkuntza jator, galdu bat, inoiz bateko osotasun jatorrean lau jakitunek baizik menderatzen ez dutena? Gizarte-bizitzan eragin-indarrik bereganatu ezin duen araua zertarako behar dugu?

Erosozaleak ere, *todovale*-zaleak alegia, pronto izango du erantzuna: “guk horrela egiten dugu eta hau da gure euskara”. Irizpide honek ere dirudien baino oinarri ahulagoak ditu, ordea. Bestela esaten ez dakigulako edo horrela erosoago gertatzen zaigulako edozer gauza euskara, eta honenbestez euskara zuzena, dela esaten bagara bukaerarik gabeko pendizean behera lerratuko gara. Hobeto esan, gaztelanian edo frantsesean bukatzeko probabilitate handiak dituen osinean murgilduko. Euskara bizirik aterako bada, zuzentasun-eredu eta onargarritasun-listoi batzuk behar-beharrezkoak ditugu. Erdal uholdearen zurrunbiloak eramango gaitu, bestela.

Hortxe dago, beraz, irakasle-jendearentzat (eta beste hainbat lanbidetan hizkuntz ardura bere gain dutenentzat) bigarren tentsio-bektorea: ikasle gehienak gutxi-asko ele-erasanik dauden honetan non jarri euskara zuzenaren galga? Zertan eta noraino izan behar dugu euskara jatorra-

ren aldeko?; zer neurritan zuzenetsi behar dugu gure eskolaume askoren ezpain-lumetan hain nabarmena den gaztelaniaren eragina?

### II. 3. Euskaldunberrien gaitasun-gabezietatik euskaldunzaharren mintzaldura dagoen tartea.

Askotan komentatzen duguna. Ingelesez (edo frantsesez, edo gutxi-asko ikasia duzun beste atzerri-hizkuntza batean) hasten zara, eta es- trainio sentitzen duzu zeure burua. Badakizu gauzak esaten, baina ez zara gai gauzak ingeles (frantses, etabar) batek esango lituzkeen moduan esateko. Zure bigarren hizkuntza hori jatorrizko hitzunenena baino xinp- leagoa da, pobreagoa, torpeagoa. Ingeles murriztua, gozorik eta zapo- reri gabea, txisterik kontatzeko nekez balioko ligukeen modukoa da gu- rea.

Beti ez da horrela izaten, jakina. Milaka edo milioika dira mundu zabalean ingelesa, frantsesa, etab. zoragarri ikasi eta oso txukun erabil- tzen dutenak. Gehiago dira, ordea, erdi-bidean edo bide-laurdenean daudenak. Baliteke hauetariko batzuek erabateko trebetasuna eskuratzea bigarren hizkuntza horretan, baina gehienak ez dira osabetezko gaitasun- maila horretara iritsiko. *Arinaiz*-tarrak izango dira, onenean ere, urtea joan eta urtea etorri.

Beste honenbeste gertatzen da euskaldunberriekin. Nork ez ditu ezagutzen, gure artean, euskaldunzahar askok baino dotoreago egiten du- ten euskaldunberriak? Zenbat euskal idazle gailen ez dira, partez edo osoz, euskaldunberri? Ezin esan liteke, inola ere, euskaldunberrien ar- tean goren-mailako gaitasunera inor edo ia inor iristen ez denik. Gutxi- nak dira, ordea, gailentasun-maila horretara iritsiak.

Eskola-mundua da gaur egun, inon halakorik bada, euskaldunbe- rrien erreinu. Alde batera utz ditzagun une batez irakasleak, eta fija gai- tezen ikasleetan. A ereduko ia ikasle guztiak, B ereduko gehien-gehien- ak eta D ereduko multzo ohargarri bat etxetik erdaldun dira. Eskolan ikasi dute, nagusiki, dakiten euskara: hizkuntza asignatura gisa ikasiz A eredukoek, asignatura-erdiak edo ia denak euskaraz ikasiz B eta D ere- dukoeak. Etxean, lagunartean eta klase-giroan ez dute, gehienek, beren hizkuntz akatsak zuzenduko dizkienik; beraiekin euskaraz egingo duenik ere ez asko. Irakasleek, ikasliburuek eta irrati-telebistek emango dieten eredia indartu eta osatzeko jardungune eta harreman-sare mugatuak di- tuzte. Egiten duten euskara, A ereduko kasuan, gutxitan garatzen da oinarri-oinarriko mailatik gora. B eta D ereduetakoak ere (azken hauek batez ere), ondotoz euskara-maila hobea duten arren hobek dira esa-



ten zaiena edo irakurtzen dutena ulertzen hitz egiten eta idazten baino. Dena meyoratu liteke mundu honetan, eta hau ere bai noski. Ez dago, ordea, ikasle horien euskarazko mintzajardunean gauetik goizera erabateko hobekuntzak gertatuko direla uste izateko motibo sendorik. Daurkan egoera dauka, beraz, ikasgela bakoitzeko irakasleak; eta egoera konkretu horretan aplikatu behar ditu hizkuntzazko zuzentasun-irizpideak.

Zer zuzentasun-maila eskatu behar zaie ikasle euskaldunberriei? Nola juzkatu behar ditu irakasleak beren gabeziak? Bistan da etxetik euskaraz dakiten, kalean eta lagunartean maizenik euskaraz egiten duten eta ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasleei eska dakiekeen zuzentasun-maila bat dela eta euskaldunberriei eska dakiekeena bestea. Euskaldun baten gaitasuna azken helburutzat jar dakieke euskaldunberriei ere, baina onean uneko zati-eskakizunekin konformatu behar izaten dute hauen irakasleek. Aurrerago ikusiko dugu zati-eskakizun horiek, lehen hurbilketa moduan, nola atalka daitezkeen.

Esana bego, beraz, bizi-osasun onean eta aspalditxodanik eredu bateratu batez horniturik dauden auzo-hizkuntza handien ondoan berariazko ezaugarriak dituela eskola-munduko euskarak, gaur egun, zuzentasun-patroia aplikatzeko orduan: eredu bateratuak euskalkiekin zer-nolako elkar-bizitza behar duen, eskola alorrean eta hortik kanpora, ez da oraindik zeharo argitua; ikasle gehienak, ez bakan batzuk, neurri batean edo bestean euskaldunberri dira edo, etxetik euskaraz baldin badakite ere, ele-erasanak (euskara-erदारक ez daukate zeharo bereizirik eta erdararen bortxazko eragina argi nabari zaie euskaraz ari direnean). Beste hiztun-herri sendoetan baino garrantzi handiagoa duten tentsio-bektoreak dira hiru horiek, irakasle-jendeak oso kontuan hartu behar izaten dituenak. Zuzentasun-trataera ere, ondorioz, berariazko ezaugarri horiek kontuan hartuz egin behar izaten da alfer-lanean jardun nahi ez bada. Gelako haurrak etxetik euskaldun ala erdaldun diren ikusi behar du, lehen-lehenik, irakasleak: euskara ikastera datozen haur erdaldunei eta euskaraz ikastera datozen euskaldunei ezin die, lehenengo urteetan behintzat, zuzentasun-maila bera eskatu; ez, behintzat, zuzentasunaren alor guztietan. Irakasleak etxetik euskaldun dituenen ere, xehetasun handiagoetan sartu beharra dauka irakasleak: euskaldun beteak diren ikusi behar du, elebidun orekatu samarrak diren eta hizkuntza bakoitzaren egitura eta gainerako ezaugarriak erabiltzen dituzten edota, erdarak erasanik, erdal-euskara murriztuz nekosoan baizik jarduteko kapaz ez diren.

Ikasle euskaldunen kasuan, gainera, etxetik zer euskalki dakiten kontuan hartu behar du irakasleak. Hiru tentsio-bektore horiek kontuan hartu gabe nekez ezarri ahal izango du, bere gelarako, zuzentasun-irizpide operatiborik.

### III. ZUZENTASUNAREN PARAMETROAK

Aurreko ataletan esandako puntu horiek argitu ondoren ere zalan-tzarik ez zaio faltako irakasleari. Nola sailkatu ikasleen zuzentasun-eskasia adierazten duten faltak, hutsuneak, desegokitasunak? Era askotara egin daiteke hori, noski. Hiru parametro nagusitara bilduko ditugu hemen, labur beharrez: gramatikazko eta grafiazko zuzentasuna; situazio-egoera bakoitzari dagokion egokitasuna; mezuaren transmisio ona. Ikus ditzagun banan-banan, gaingiroki izango bada ere, hiru parametrook.

#### III.1. Gramatikazko eta grafiazko zuzentasuna

Aski zentzu zabalean harturik dago, hemen, gramatika hitza: hizkuntzaren barne-egitura sistematizatua osatzen duten atal desberdinak biltzen ditu (hots-egitura eta ebakera-doinuerak, hitz-jokoa eta joskera, hitz-eraketa, hitz-altxorra,...).

Hizkuntzaren “berezko” egiturak eta arauak, legeak eta debekuak ongi betetzen diren azertzen du, beraz, gramatikazko zuzentasunak: “neguan mendateak itxitat aurkitzen dira” entzuten edo irakurtzen diorean ikasle bati, *-tak* hori gramatikalki oker dagoela konturatzen da irakaslea; akaso, gainera, *aurkitzen da* hori *se encuentra*-ren itzulpen itxua dela adieraziko dio ikasleari. Euskaraz “itxita daude, itxita egon ohi dira” esaten dela argituko dio ikasleari. “O gradutan ura izotzean bihurtzen da” ordez “O gradutan ura izotz bihurtzen da” behar duela gogoraziko dio. Hizkuntzaren egiturak berak hala eskatzen duela esango dio. Hizkuntzak berak ez bada ere hiztunek beraiek idaztarau batzuk dituztela esango die bestalde ikasleei, eta ondorioz *hilabete* [h]-rekin eta [ll] gabe idazten dela erakutsiko. “Eman dezaizuket” ordez euskara batuan “eman diezazuket” dela errepikatuko die, gainera, behin eta berriro.

Hauxe da, izan, irakasle askoren lan-esparru nagusia ikasleen hizkuntza zuzena neurtzeko orduan edota beraien hutsuneak eta errakuntzak zuzentzerakoan. Hizkuntzaren erabilera zuzena ortografiarekin, euskara batuaren edo bizkaiera bateratuaren hitz-formekin eta hizkuntzaren beraren fonetika-fonologiazko, morfologiazko, syntaxizko eta lexikozko ezaugarri-arauekin identifikatzen da lehenik eta behin. Ikasleari ortografi arauak, euskara batuaren edo bizkaiera bateratuaren arauak (*etor daiteke*, ez *etorri daiteke*; *deutso*, ez *dautso*,...) eta hizkuntzaren beraren osaera-arauak eta erabideak (*gau guztietan* ordez *gauero*,...) erakusten ordu asko pasatzen dira eskolan. Ikaslearen adina, euskaldunberri ala euskaldunzahar den eta gainerako ezaugarriak oso kontuan hartu behar izaten ditu irakasleak halakoan.

### III.2. Situazio-egoera bakoitzari dagokion egokitasuna

Gramatikazko eta grafiazko zuzenketa guztiak eginik ere, beste “zerbait” falta zaiola ikaslearen testuari edo hizketari antzematen du sari gure irakasleak. Eskolaumeak ikasi du [h]-ak bere lekuan jartzen, *die-zaiokedalako* idazten ere ikasi du azkenean, baina egin berri duen idaz-lana ez da betea, ez da egoki-egokia. Beti-bateko hizkera-molde hotz, azalpen-asmozko prosa neutroan jarduten erakutsi diogu akaso ikasleari, eta horra: gatzik eta piperrik gabeko testu hibridoa prestatu digu. Gramatikazko eta ortografiarazko arauak betetzen ditu testuak, egia da, baina gu geu ez gaitu betetzen. Ez da egokia, testu horrek berez duen xederrako: gure ikasle hori ez al zen bada elkarrizketa bat egitekoa, Pasaiako portuan, 26 urte luzez bakailao-arrantzan ibili eta orain jubilatutik bizi den ontzi-patroi bati?. Zertara datoz, orduan, bere “zure irizpidez, nola deskriba daiteke altuerako arrantzaren gaurregungo egoera duela hogeita bost urteko jarduerarekiko” moduko esamoldeak? Gramatika aldetik zuzenak direla emanik ere (eta balegoke, bistan da, zer eztabaidatu), ez dira 70 urteko arrantzale bati bere bizialdiko pasadizoak agerrarazteko egokienak. Norekin ari zen, eta zertaz, kontuanago hartu izan balu beste esamoldeetara joko zukeen, agian, gure ikasle horrek. Agian; agian ez. Testuetan ez al diogu bada, gure ikasle horri, urtea joan eta urtea etorri horrelako euskara espositibo hotz neutroa erabiltzen erakutsi? Ez al diogu bada “bakoitzaren errealitatearekiko desberdinak diren errealitateen azterketa eta aurkikuntza” moduko esapideak erakutsi, behin eta berriro?

Hizkuntzak behar du, osatuko bada, jardungune eta situazio-egoera jakin batzuetarako hizkera-molde jaso, landu, abstrakzio-lanketarako trebaturik. Eztabaidagarria da, oso, hizkera-idazkera landu horrek goiko adibide horren ildotik joan behar duen (gero hitz egingo dugu honetaz), baina hizkuntz aldaera jaso behar dugu. Beste asko ere behar ditugu, ordea. Eta hortxe dago koska: eskolako ikasketak prosa-modu landu horretarako aukerak eskaintzen dituen bezala, beste situazio-egoera arruntetarako ere eskaini behar lituzkeela eta bakoitza noiz-non egokia den, eta nola esan, erakutsi behar lukeela. Hori ere zuzentasuna dela erakutsi behar genieke ikasleei. Beste era batera esanik, gramatikazko legeak eta idaztarauak betetzearekin bakarrik ez dela zuzentasun beterik eskuratzeko. Zeregin zabala daukagu, alor honetan, eskola-munduekin era bakoitzeko edo besteko harreman-ardura dugunok.

### III.3. Mezuaren transmisio zuzena

Besterik ere bada, gainera. Edota, nahiago bada, beste era batean ere enfoka daiteke hizkuntzaren erabilera zuzenaren kontua. Hizkuntza-

ren erabilera zuzenak, beste ikuspuntu edo enfoke honen arabera, mezua ongi transmititzea eskatzen du. Mezua ondo transmititzen ez duen testua, grafiaren eta batasun-arauen aldetik, gramatikaren eta situazio-egoerara egokitzearenetik zuzena izanik ere, nekez izan daiteke testu zuzena. Berdin du, bistan da, testu hori hitzezkoa zein idatzizkoa izan.

Zer eskatu behar zaio testu bati, euskaraz zein erdaraz mezua ongi transmititzeko? Eskatzea libre denez honako lau puntuok behintzat ez lirateke ahaztu behar,ene ustez: esan nahi den guztia esatea; esan nahi dena bakarrik esatea; esan nahi dena argi esatea; esan nahi dena erraz eta atsegin esatea. Ikus ditzagun puntuok banan-banan, laburkiro bederen:

a) esan nahi den guztia esatea

Bizi garen korrika eta presakako gizarte honetan badirudi gauzak osorik esateari ez zaiola hainbateko garrantzirik ematen. Minimo batekin balio du, eta aurrera. Hurrengo egunean gizarte-zientzietako azterketa duten ikasleek, normalean, “bihar gizarte daukagu” esango dizute (badira, jakina, “mañana tenemos gizarte”-ra pasatzen direnak ere, baina orain ez gara horretaz ari). Bere testu-inguruan ondo funtzionatzen du, itxuraz, labur-bide horrek: esanahiarekin ez da inor, dirudienez, deskuidatzen. Zuzentasunaren eredutzat ere ezin har daiteke, ordea, honelako jarduera. Kontua ez dago, gainera, ikasleen arteko jerga moduko hizketara mugatua. Ondotxo lan delikatuagoa da, aitzitik, testu bat ongi egituratu eta esan nahi den guztia esatea: lan izaten dugu, gainerakook ere, horretan zuzen jokatzeko. Hitzak ezezik esaldiak eta pasarte osoak arretaz zaintzea eskatzen du horrek. Idazterakoan, esate baterako, pasarte bateneko konexio-bide egokiak eratzea. Esaldien arteko loturak, pasartearen artekoak ere bai, egokiak direla ziurtatzea. Kontraesanak ebitatu beharko dira eta, adin batetik gorako ikasleekin jarduterakoan bereziki, terminologia tekniko egokia erabili beharko da: behar den zehaztasun-mailakoa baina, aldi berean, ikasleek edo kasuan kasuko mezu-jasotzaileek ongi ulertuko duten modukoa.

b) esan nahi dena bakarrik esatea

Besteren erruaz eskarmentatzeak balio badu, hona hemen euskal komunikabide batean baino gehiagotan entzutea (inoiz irakurtzea ere bai) tokatzen den esapidea: “normalki ongi informaturiko iturriek jakinarazi dutenez Portugaleta hiri bizkaitarrean bi kamioiren arteko istripua gertatu da”. Ba ote da euskaldunik, notizia hori entzuten edo irakurtzen ari den euskaldunik, Portugaleta hiri dela ez dakienik? Eta Bizkaian dagoela ez dakienik? Ez ote genuke aski, kasu gehienetan, “bi kamioiren artean istripua izan (omen) da Portugaleten” esatearekin? Esan nahi duguna horixe bada, ez besterik, zertara datoz gainerako gehigarri horiek?

Hau ez da, kontuz gero, komunikabideetako errua. Bete-betea daukagu eskola-mundua ere, Administrazioaren goi-ataletatik hasi eta ikastetxe xumeeneko iragarki-taulan jartzen den oharreraino, era honetako betelanez. Beste hainbat esparru ere bai. Itzulpen-teknika erdizka menderatzen duenak sarriago egiten dizu, gauzak xuxen-xuxen itzuli nahirik, horrelakorik. Zuzentasun-irizpideak era honetako “sobrak” alde batera botatzen lagundu behar liguke, besteak beste. Entresaka ederra egin behar harko genuke, hartaraz gero, zenbait eskola-liburutan. Estiloa dela hori esango dizu, ordea, holakok edo halakok, eta estiloa ezin dela ukitu. Estilo-kontu hutsa ote da, ordea? Estiloaren alorrean bagenbiltza ere, ez ote genioke mintzajardunaren edo idazlanaren kohesioari kasu gehiago egin behar?

c) esan nahi dena argi esatea

Baietz esango nuke. Gai bat ikasleei azaltzerakoan, berdin du arbetetik edo testu-liburu bidez, kontuz ibili behar duzu informazio berriari sarbide egokia emateko orduan. Perpausen luzera, termino tekniko gehiegi elkarren gainka metatzea eta abar iluntasun-iturri izan litezke. Testu hermetikoekin nekez lortuko duzu ikasleek ezer asko entenditzea. Mezu-igorlearen hizkuntz gaitasuna oro har, gauzak ongi trabaturik eta entzuleek berehala jasotzeko moduan azaltzeko erraztasuna bereziki, faktore klabea dira mintzajardun edo testu horrek bere etekina izan dezan. Hau ere, gutxitan aipatzen dugun arren, zuzentasun-faktorea da berez.

d) esan nahi dena erraz eta atsegin esatea

Esaten errazagoa da hori, egiten baino. Badira ordea testuak, gainerakoan “zuzenak” izan arren azalpideagatik beragatik gogaikarri gertatzen direnak. Oso era konplikatuan esanak daude han gauzak; irakurlea erakarri ordez uxatu egiten dute. Zertarako balio digu, konplikatua konplikatua atzera eragiten digulako alde batera uzten dugun testuak? Zuzena dela esan al dezakegu testu hori? Irizpide labana dela azken hau, inon labanik bada, esango du inork. Testu batzuek ezinbestekoa dutela, edozein hizkuntzatan ere, konplikatua edo irakurgaitzak izatea. Mezu-jasotzaile trebatu batentzat egokia eta ernagarria gerta daitekeela, gainera, landu-arinarentzat irakurgaitza dena. Egia handia da hori ere. Ezin uka liteke, halere, zuzen hitz egin eta zuzen idatzi nahi duenak era erraz eta atseginean jarduten saiatu behar duela. Mintzagaiaren eta mezu-jasotzaileen baldintzak kontuan izanik, ahalik eta errazen eta atseginen.

#### IV. EGUNGO EGOERA

Aurreko pasarteetan esandakoaz aipaturik daude, neurri on batean, hemen azaltzekoak nituenak. Labur-labur agertuko dira, beraz, eskola-munduan erabiltzen den euskarak zuzentasunaren aldetik dituen zenbait ezaugarri. Hezkuntza-administrazioarena, testu-liburuena, irakasleena eta ikasleena atalka azalduko dira.

##### IV.1. Hezkuntza-administrazioko euskararen zuzentasun-maila

Itzulpena da nagusi, beste zenbait administrazio-ataletan bezala, hezkuntza-administrazioko euskararen idatzizko erabileran. Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren Agindu-Erabakiak, zuzendariak ikastetxeetara bidaltzen dituzten zirkular-idazkiak, prentsan eta Lurralde Ordezkaritzetan jakinarazten diren oharra, gaztelaniatik itzulpen dira lautatik hiru baino gehiago. Egiten da saiorik gauzak euskaraz prestatzeko eta kaleratzeko, eta ardura berezia jartzen da gehienetan testuaren arrazoizko kalitate-maila bati eusteko, baina itzulpena da nagusi. Ez nolanhiko itzulpena gainera, korrika eta presakakoa baizik: administrazio-makineriak azken orduko “gehigarri”tzat ikusi ohi du normalean itzulpena. Testuek ele bietan joan behar dutela ikasia eta onartua du honez gero, eta kunplitu egiten da. Ez dira asko administrazioko agintari, teknikari eta administratiboak beren idazkiak euskara txukunean, aldenik aldeko orrazketarik behar izan gabe, idazteko gai direnak. Askoz gehiago ez dira ordea, hortxe dago koska nagusia, idazkirik euskaraz prestatzen dutenak. Sorgin-kurpila da hori, noski: erdaraz hobeto manejatzen direlako, beren idazkia erdal begiek ikusi/onartu behar dutelako edo beste arrazoiren bat tartean delako idazkiak erdaraz prestatzen jarraitzen badute, noiz eta nola lortuko dute izan ere euskaraz zuzen jarduteko gaitasuna? Sorgin-kurpil honi konponbiderik eman dakioke berez (euskarazko jardungune eta harreman-sareak, trebatze-sistema,..). Ez da hori, dena den, gaurko gaiari zuzenean dagokiona.

Itzulpen-lanetan, berriz, era guztietakoak daude. Batetik besterako diferentziak itzultzaile desberdinen trebetasun-maila diferenteei zor zaizkie, noski, neurri batean: ongi gaituriko profesionalen, hizkuntz gaitasun handia izateaz gainera itzulpen-teknika ederki menderatzen duten profesionalen ondoan *amateur* askotxo ibili ohi da hezkuntza-administrazioko itzulpen-lanetan, eta hori antzeman egiten da. Ez da hori bakarrik ordea. Itzultzaile kualifikatuei ematen zaizkien testuak, erdietan hor nonbait, irribarre gozoaz “ahal bada atzoko itzuliko al didazu” galdetuz eskuratzen zaizkie. Atzoko ezin izaten dute, gehienetan, egin; gaurko

edo, beranduenik, biharko prestatu-erako zenbat itzulpen dabil, ordea, bazterretan! Gaia bera ere ez dute, askotan, berta-bertatik ezagutzen; inor gutxi ematen die halakoetan osagarrizko argibiderik. Eta, zenbaitetan, jatorrizko testua bera ez da gaztelaniaren erabilera zuzenaren eredu izaten. Testuinguru horretan kokatu behar dira, beraz, hezkuntza-administrazioaren euskal idazki gehienak. Horren argitan juzkatu behar dira beren on-gaitzak.

Geure buruari harrika jarduteaz gainera ez genuke egiaren zati bat baizik adieraziko, ordea, goiko azalpen horrekin. Aukeran gutxi izan arren badaude, izan ere, nagusiki euskaraz jarduten duten administrazio-atalak eta norbanakoak hezkuntza-sailean. Beste administrazio-alorretan baino gehiago, seguru asko. Urteko eskarmentuaz besterik ez bada ere, beren hizkera-bidea eta terminologia, azalpen-moldea eta idatzankera osatzen, zabaltzen eta finkatzen ari dira. Sortzen ari diren burolektu hori ez da erabilera zuzenaren inolako gailur-erpinetara iritsi, baina bada zerbait. Orain hamar-hamabost urteko egoerarekin konparatuz aurrerapauso bat eman dela esan daiteke, gune mugatu horietan.

## IV.2. Ikasmaterialetako euskararen zuzentasun-maila

Administrazioko testuetan baino itzulpen gutxiago dago, esate baterako, testu-liburu eta gainerako ikasmaterialetan. Jatorrizko lanak, euskaraz pentsatu eta euskaraz prestatuak, gehiago dira alegia. Kontuz ibili behar da, ordea: eskoletan barrena euskarazko sorkuntza-lan gisa dabilen testu-liburu, irakurgai, bideo eta abar dexente, lehen begiratu batean dirudien baino gehiago, ez da euskarazko sorkuntza-lan hutsa. Aitortzen direnak baino gutxiago dira euskaraz idatzitakoak, eta are gutxiago euskaraz pentsatuak. Euskal sena itxuratxarki galdua ez daukan irakurleak, ofiziokoa bada bereziki, igarri egin ohi du hori. Muga horiek guztiak tartean izanik ere egia da pauso nabarmena eman dela, azken hogeita bost bat urtean, euskarazko ikasmaterialetan orijinalak prestatzen. Eta ezin uka liteke txukun itzulitako ikasliburu, bideo eta softwareak ugaritzen ari direla.

Euskaltzaindiaren arauak (edo, bizkaierazkoetan, bertarako eredu bateratuarenak) dira askogatik, zuzentasunari dagokionez, ikasmaterialetan hauek ongien, argitaletxe hauek ongien betetzen dituztenak. Eredugarri ere bihurtzen ari da, argitaletxe bat baino gehiago, eginbehar horretan. Terminologia teknikoan ere, arau mailako gomendioetatik urrunago gauden arren, bateratze-saioa aurrera doa. Zenbait alorretan, matematikan adibidez, aspaldidanik normatibizaturik dauden hizkuntzen parera ari da, OHO eta UBI mailetan, bateratze hori hurbiltzen.

Okerxeago dabilena, ikasmaterialetan, gramatikazko zuzentasuna da alde batetik: “talde bakoitzarako kalkulagailu bana”, “idatzi gure Autonomi Elkarteko zein beste Elkartekin dituen mugak”, “ordena alfabetikoaren buruzko ikasketa eta erabilpena”,... moduko esamoldeak hor agertzen dira, tarteka-marteka batzuetan eta sailka besteetan, zenbait materialetan. Itzulpen traketsa izan ohi da, batzuetan, arazoaren iturri. Itzultzaile on batek erraz asmatuko lizuke, azken adibidean esate baterako, “alfabeto-ordena buruz ikasi eta erabiltzea” edo beste forma egokiren bat. Argialetxe askok badute, halere, arazo horrentzako konponbiderik: hizkuntzako orrazketa-lanaren arduraduna da, arazo-modu hau gainditzeko gaur-gaurkoz gehien-edo erabiltzen dena.

Testu bat baino gehiago lehorrak, ilunak, irakurgaitzak gertatzen dira. Itzultzailea ez da, halako askotan, errudun bakarra. Itzuli gabeko (hots, testutik testura itzuli gabeko) zenbait lanetan ere antzeko problema ageri dira. Erdaraz ikasitako kontzeptu-sare eta adierazpideen jarraitzaile xuxen izan nahiak sortzen ditu, batzuetan, lehor-iluntasun horiek. Euskarazko idazmena bete-betean garaturik ez izateak, euskarak gauzak adierazteko dituen moldeez ongi baliatzen ez jakiteak alegia, eragiten ditu gehienetan, halere, eragozpen horiek. Etxean eta kalean, helduen munduan apenas esistitzen den euskara-molde batean murgilarazten ditugu zenbaitetan, horrelako ikasmaterialak direla medio, ikasle-irakasleak. Euskaldun batek gauzak adierazteko dituzten zenbait baliabide errazegi alboratzen ditugu, bestalde, etxeko eta liburuetako euskararen tarte (fonetismoek eta batasun-kontuek sortutakoez gain) areagotuz. Hobetu daitekeen alorra izanik ere, ordea, tarte hori berezkoa da hein batean, euskaraz zein beste hizkuntzetan: “eje instantáneo de rotación y deslizamiento” betiko euskarari, lehen belarri-kolpean edonork jasoko duen moduan, asmatzea ez da seguru asko posible.

### IV.3. Irakasleen euskararen zuzentasun-maila

Esana dugu gorago, euskaldunberriei eta ele-erasanei buruz ari ginen hartan, egungo euskaldunon hizkuntz gaitasunak *continuum* xehe bat osatzen duela erabateko euskaldun landu, trebe, ongi alfabetatu eta hiztun ederretik abiatuz beste puntan dagoen “aizu, leike posible apunataxea en la convocatoria?” galdetuz deitzen dizuneraino. Era guztietako kasuak daude tarte-bitarte horretan. Irakasleak ez dira arau nagusi honen salbuespen. Inoiz idatzia dugu zerbait horretaz, eta ez goaz han esanda-koak berrizera.

Puntu pare bat azpimarratzea komeniko da, halere. Horrela,



a) eskolan umetan, eta gaztetan unibertitatean, erdaraz ikasitakoak dira euskal irakasle gehien-gehienak. Horiatariko mordoska bat euskaldunberria da gainera. Etxetik partez edo osoz euskaldun zirenek ere erdaraz (gaztelaniaz hemengo gehienek, frantsesez iparraldekoek) jasoak dituzte beren zientzi ezaguerak, beren mundu-ikuskeraren formalizazioa, abstrakzio-esparrua eta kontzeptu-sareak. Eragin sendoa du horrek, nahi eta ez, beren egungo irakasle-jardunean.

b) idatzirako euskal eredu bat (edo gehiago) d(it)uen arren, jendaurrean hitz egiteko edo liburutik bozgora irakurtzeko irakasle-jendeak ez du eredu handirik jaso. Doinuera eta bizkortasuna, hitz arteko eternaldi-era eta azentuazio-moldea, etxetik kanpora ikasi beharrekoak ditu askok eta, horiek ere, erdaraz jasoak ditu gehien-gehienetan. Inpresioa baino zerbait gehiago da, jendaurreko mintzajardunean irakasle askok idatzizkoan baino gaitasun-gabezia larriagoak ageri dituela esatea.

Lehen une batean, irakasteredu elebidunak eratu eta zabaltzen hasierakoan, nola edo hala euskaraz egingo zuten irakasleak eskuratzea izan zen buruhauste larriena. Hizkuntz kalitateak izan beharko du aurrerantzean, seguru asko, hobekuntza-iturri nagusia.

#### IV.4. Ikasleen euskararen zuzentasun-maila

Hauetaz hitz egingo da gutxien-gutxiena, goragoko ataletan beraien jarduna aztergai eta adibide izana baitugu. Labur-labur, eta *flash* moduan, honako hauek behintzat azpimarratzea komeniko da:

a) ele-erasanaren eragina, kopuruz eta indar-neurriz, handitzen ari da itxuraz gurasoen eta, batez ere, aiton-amonen belaunaldiarekin konparaturik: “ikasle dugu abesti bat oso polita dela” moduko nahas-adi-bideek amaierarik ez dute;

b) horretara jotzen ez duten ikasle euskaldunzaharrek ere joera nabarmena ageri dute code-switching delakoa egiteko. Honetan ezin esan, halere, fenomenoaren gorantz doanik: orain ehun urteko **Euskalzale** batek behin eta berriro (Urruzunoren, Azkueren eta abarren eskutik) eman ohi zituen adibideetan kode-aldaketarako ohitura hori ez da, itxuraz denez, oraingoetan baino askoz ahulago ageri. Orduan bezala esapide-modismoetan edo hizkeraren arrunteko (broma, txiste eta burla asmozko) esatera pikante-bitxietan ageri da orain ere, itxuraz, maizenik;

c) telebista, Euskal Telebista, eskolaren lehiakide bihurtzen ari da zorionez ikasleen hizkuntz ereduen iturburu gisa. Zorionez, eskola-jarduneko gai lehor-formaletatik kanpora eguneroko bizimodu arruntaren mintzagai erakargarriagoak ere euskaraz eskaintzen baititu. Ikasle euskaldun askoren zenbait esamolde eta itzulika telebistako hizlari-aktoreei ikasiak dira, irakasleei baino sarriago. ETBko haur eta gazteen programazioa arrakasta ohargarria lortzen ari da, itxuraz, gure seme-alaben artean. Abantaila horrek baditu ondorio zuzenak: haur askoren euskarak tele-euskara horren eragina bistan du, halako neurri batean.

## V. ZENBAIT HOBEKUNTZA-BIDE

Badira proposamen puntualak, ikasliburuei, irakasleei eta abarri begira egin daitezkeenak. Badira luze-zabaleko proposamenak ere. Azken hauetatik hasiko gara, hobe beharrez.

Zuzentasuna, has gaitezen hemendik, kalitatearen sinonimo da neurri on batean. Kalitate ona lortuko bada, berriz, gainerako baldintza guztien gainera dedikazioa aipatu behar da. Dedikazio hutsaz ez dago kalitate ona segurtaturik; ez industrian, ez kirol-lehiaketan eta ez beste inon. Dedikaziorik gabe oso nekez lortzen da, ordea, ezertan aurrera egitea. Hizkuntzaren erabilera zuzena ere horren beharrezko da: dedikazioa eta profesionaltasuna behar da hartara iristeko. Lau errezeta merkerekin ez ditugu gure liburuak, gure administrazio-dokumentuak, irakasleen klase-emankizunetako mintzajarduna edo ikasleen hizkuntz trebetasuna hobetuko. Gauzarik txikienean ere antzematen da dedikazioaren behar hori. Administrazio paper, azterketa-orri, iragarki-tauletako ohar eta irakasleen apunte fotokopiatu askok erruz irabaziko lukete idatzi ondoren berriro erreparatuko balira eta okerrak zuzenduko. Mekanografi errakuntzetatik hasita, noski: leku batean “irduditzen ziat” jartzen badu “iruditzen zait” ordez, hurrengo lerroan “ikastaro berezia” ordez “ikastaro gerezia” eta hurrengoan beste zerbait, testua ondo idatzia egon arren nekeza da irakurtzen. Hori ere kalitate kontua da. Behar baino sarriago agertzen dira horrelakoak, baita liburuetako irar-hutsak ere, gure artean. Dedikazioak, idatzitakoa berriro irakurri eta hutsak zuzentzeak, asko dezake zuzentasun falta arin (baina nekagarri) horiek ebitatzeko.

Hortik gora jo behar du, noski, zuzentasun grafikoak: Euskaltzaindiaren ortografi arauak errespetatzera, nolahi ere, hezkuntza-munduko idazlanetan (ez gara orain filologiazko lanez, euskal irakurgai klasikoez eta abarrez ari). Ez dira gure artean falta, euskara batuaren aldeko azalpen suharrak egin baina idaztarau oinarrizkoenak ere (ez naiz azken urtepare honetakoez ari) oraindik menderatzen ez dituztenak. Administra-

zioko dokumentu-prestatzaileek eta ikasgeletako irakasleek, lanbidez eta jardueraz beste askoren eredu diren neurrian, ez dute gaur egun motibo handirik grafiazko batasun-arauak erdipurdika erabiltzeko. Ulergarri zatekeen hori orain hamar-hamabost urte. Gero eta onartzen nekezagoa da gaur egun, ordea, profesioz horretan dihardutenen artean. Ikasliburuetan eta jendaurreko dokumentuetan are zailagoa da horretarako erreparorik onartzea.

Zuzentasun grafikoaren eskakizunak ez gaitu, ordea, liluratu behar: hizkuntzaren beraren egiturazko legeak errespetatu eta errespetaraztea arazo larriagoa da gaur egun, eta eginbehar nekezagoa ere bai. Horretara bideratu behar genuke, ahal den neurrian, forma-kontuetara dedikatzen dugun esfortzu bat baino gehiago. Eta situazio-egoera bakoitzari dagokion errejistro artezena aukeratu eta indartzen ahalegindu behar genuke, bete-betean. Hizkuntzaren batasunaren izenean ezin alhora dezakegu aldian aldiko hizkera-bide egokiena aukeratzen jakitea eta hura indartzea.

Erabilera zuzenak, oro har, ez dezala erabilera moteldu, traba edo galerazi. Testua ez dadila, landuegia izateagatik edo, irakurri behar duentzat eskuragaitza gerta.

Terminologia ere neurrian aplika dezagun; gauzak zehatz eta zorrotz esan nahiaren esan nahiaz ez dakigula testu hermetikoa bilaka. "Neurrian" aplikatzeak aplikatzea esan nahi du, ordea. Aplikatzeko orduan, arau zorrotzik ezin eman bada ere saia gaitezen, gutxienez, bestek zabaldutako bideak ezagutzen eta, ahal delarik, gehientsuen-edo korritzen duen hitz-aukerari edo esamoldeari lehentasuna ematen.

Hizkuntza zuzena ez dezagun, gainera eta batez ere, hizkuntza idaziaren alorrera muga: hitzezko jardunean, bai bat-bateko azalpen librean eta bai bozgorako irakurketan, zer zuzendu asko dago hezkuntza-munduko profesionalon artean. Doinuerari eta hots-ebakerari, bereziki, azken urteotan baino ardura eta atentzio gehiago zor zaie euskara zuzenaren eredia jendarteratu nahi bada.

Xede-helburu horiek nola lortu behar ditugun galdetuko du, ordea, irakurleak. Zer-nolako bide konkretuak proposa daitezkeen. Egungo ikasle-irakasleen, liburu-prestatzaileen eta gainerako hezkuntza-agenteen goian aipaturiko ezaugarriak kontuan izanik honako dekalogo-modu hau emango nuke nik, lehen hurbilbide moduan.

V.1. Ortografian eta oinarri-oinarrizko terminologia teknikoan (eragiketa matematikoetan, adibidez) posible da, eta komeni ere bai, lehengo egunetik batasun-bideari eustea. Irizpide hori ezin da, ordea, esparru guztietara zabaldu. Eskola-mundu osorako ezin da alegia, gaur-gaurkoz eta begien bistako etorkizunean, euskara-eredu zuzen bakarra

finkatu. “*Euskara zuzena* hau da eta denek (ikasle eta irakasle, testugile eta administrari) horrela egin bezate”-rekin ez gara urruti iritsiko. Gela barruko jarduerari dagokionez, konkretuki, hobe da ikasleen euskara-moldetik abiatzea eta forma osatuago, landuago eta batuagoetara urratsez urrats joatea, hasiera-hasieratik zuzentasun-maila “goren”-etatik abiatu ordez. Irizpide honek ez du etxeko hizkera euskara batutik urrunen duten ikasleentzat bakarrik balio: euskaldunberri eta ele-erasanekin ere bete-betean aplika liteke.

V.2. Ikasleen hizkuntz erabilera zuzendu eta hobetzea ezin izan liteke euskara-irakaslearen egitekoa bakarrik: beste irakasle guztiek ere, eta eskola bakoitzak bere osoan, neurri eragingarriak hartu behar dituzte ikasleen erabilera zuzena indartu eta bermatzeko. Besteak beste azterketa desberdinetan (berdin du gizarte-zientziak, filosofia edo matematika izan aztergai) hizkuntz akatsei zer trataera eman (hots, azterketako notan zer puntuazio-eragin izan behar duten) berariaz finkatu behar litza-teke ikastetxe mailan. Erabilera zuzenaren ardura ez da, gainera, azterketa-ordura mugatu behar. Zenbait irakasleri entzun izan diogu inoiz honelako zerbait: “nik natur erakusten dut, eta ez du inporta nire apunteak euskara aldetik gaizki badaude; euskarako irakasleak erakutsiko die hori”. Berak uste duen baino gehiago inporta du, ordea. Hori ez da bidea.

V.3. Administrazioako dokumentu-prestatzaileok, liburugileek eta (apunteak edo azterketak prestatzerakoan) irakasleek itzulpen gutxiago egin dezagun eta euskaraz pentsaturiko idazlan gehiago presta. Arrazoi desberdinengatik. Lehenengoa, kontuan izan dezagula itzulpen-teknikarekin beste teknika-moduekin bezala gertatzen dela: menderatzen ez duenak nekez ezer onik egin dezakeela. Bigarren arrazoia: geure neurri-ragoko testua prestatuko dugu sorkuntza bidez eta, ia seguru, irakurleek ere errazago ulertuko digute. Konplexutasun aberatsean hasieran gal dezakeguna ez da, gehienetan, hain-hain inportantea. Irakurleek, ikasle zein irakasle, eskertu egingo dute gehienetan.

Itzulpenak beti egin beharko dira, dena den: gurea bezalako egoeran bestetan baino ugariago, agian. Itzulpena geuk egiten badugu saia gaitzen, argitaratu aurretik, norbaiten (ahal delarik horretan jantzia dagoen norbaiten) eskutan jarri, haren hobekuntza-oharrak jaso eta azken idazkuntzan egoki txertatzen. Edota, jatorrizko testua trinkoa izanik segurutzat jo nahi dugunean, profesional egokien eskutan utz dezagun itzulpen-lana.

V.4. Ordainsariak ezar bitez, ahal den guztian, euskara zuzen erabiltzen duenaren fabore. Horrelakorik egiten da jadanik, neurri apalean bada ere, zenbait esparrutan (ikasleentzako literatur lehiaketak, dekla-

mazio-sariak), hizkuntz erabilera zuzena indartzeko. Hortik gorako ordainsariak ere komeni da, noski, indarrean jartzea.

V.5. Jendaurreko testu idatziei eta hitzeko agerraldiei dagokienez, eginbide zuzena dute Herri Aginteeek oro har eta, konkretuki, hezkuntza-alorreko aginte-organo desberdinek: norik bere esparruan duintasun-maila bati eusteko neurriak hartu edo harraraztea: presa-kontuak, profesional-eskasia eta abar arrazoibide eskasak dira, normalean. Euskal profesional hoberenak alboratu eta dirubide publikoak itzulpen edo moldera desegokienera lerratzeko okasioa, behin baino gehiagotan.

V.6. Kalitate-kontrolaren kontzeptua hizkuntzaren zuzentasun-alorrera ere zabaldu ezinik ez dago. Argitaletxeek, irakasle-mintegieki eta abar beren zeregin profesionalean erabat integraturik daukate, aspaldidanik, kalitate-faktorea. Hizkuntzazko kalitatea ere espresuki txertatu beharra dago, emaitzak hobetuko badira. Beraiek erabaki behar dute, kasuan kasuko egoeraren, baldiaren eta egingarritasun-faktoreen arabera kalitate-faktore hori nola, noiz eta zer neurritan bideratu.

V.7. Ikasleen mintzaera-sorta (barietate-errepertorioa) hizkera-molde formal, inpersonalera mugaturik gelditzeko arriskuan gaude, ikasle askok harreman ahula baitu etxeko, lagunarteko eta, oro har, ohizko bizi-giro arruntetako mintzamoldearekin. Azken elementu honi eskola-munduan leihoak zabaltzen saiatu behar dugu denok, ixten baino gehiago. Euskal komunikabideek, telebistak bereziki, eman dezaketen laguntza ez genuke, puntu honi dagokionez, gutxietsi behar.

V.8. Irakasleek erdaraz jaso dute, kasu gehienetan, beren formazio tekniko-akademikoa. Euskarazko klase-emankizunaren etekina hobetzeko, eta hizkuntzaren erabilera zuzena indartzeko, oso inportantea da irakasle euskaldunei administratibotik edo beste nondipait eskainiko zaizkien prestakuntza-ikastaroak ahal den gehienak euskaraz izatea. Zulo handia dago hor, gaur egun. Lehendik belaunaldi gisa dakarkigun defizita areagotu egiten du horrek, laburtu ordez. Hemen ere arrazoibide ahula iruditzen zait, behin baino gehiagotan hala izan arren, ikastaro-antolatzaileek "eske ez dago profesionalik hori euskaraz eman dezakeenik" esatea. Horrela jokatu izan balitz gaur egun ez zegokeen ez euskal eskolarik, ez euskal irakaslerik, ez euskal irratitelerbistarik, ez...

V.9. IRALE bidez edo beste ekintza-molderen batez, alfabetatze tekniko indartu beharra dago. Dagoeneko EGA edo HE2 lortua duen (eta zenbait kasutan, dauden inguruan daudelako edo beste zerbaitegatik maila hori galtzen ari diren) irakasleei berariazko aukerak eskaini beharra dago, beren jakintzagaiak euskara hobean azaltzen laguntzeko. Klase-formulatik ekintza-molde dinamikoetara pasa behar da, ordea, zuzen-

tasun-mailara iristea nahi bada. Bide luzea da hori, interesatuaren esfortzu zuzena gabe nekez lor daitekeena.

V.10. Hizkuntzaren zuzentasunaz dauden ikusmolde desberdinak ikasle-irakasleei, ikasmaterialgileei eta abarri helaraztea komeni da. Arriskua dago zuzentasunaren kontua, beste zenbait bezala, tabu bihurtzeko. Kaltegarri genuke hori, alde askotatik: hizkuntza indarberrituko bada garrantzitsua da hezkuntza-alorreko profesionalak problematika horretaz, bere zailtasunez eta aukerabide emankorrez, jabeturik egotea.

### BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, J.M., I. EGUZKIZA, I. IDIAZABAL eta L.M. LARRINGAN. 1985. *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- ALTUBEtar Seber. 1929. *Erderismos*. Bermeo: Gaubeka.
- 1933. La vida del euskera. In *EUSKERA* 1933, 299-397 orr.
- 1936. Más sobre la vida del euskera. Bafiro euskeraren bizitzari buruz. In *EUSKERA* 1936, 1-217 orr.
- ANNAMALAI, E. 1989. The linguistic and social dimensions of purism. In Björn Jernudd eta Shapiro, Michael J. (edk.) 1989. *The Politics of Language Purism* (225-231 orr.). Berlin: Mouton de Gruyter.
- ARRASATE, Manu. 1992. *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*. Bilbo: EITB.
- AZPEITIAtar Julene. 1962. Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi. In *EUSKERA* 1962, 289-297 orr.
- BASTERRETxea et. al. 1991. *Eskola hiztun bila*. Gasteiz: Eusko Jaur-laritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- BÉDARD, Édith. 1979. *La qualité de la langue: survol des préoccupations récentes*. Québec: Conseil de la langue française.
- BELAUSTEGIGOITIAtar Perderika. 1921. Euskerazko eskolak. In *Le-nengo Euskalegunetako Itzaldiak*. Bilbo: Euzko-argitaldaria.
- BIBEAU, Gilles eta Claude GERMAIN. 1983. La norme dans l'enseignement de la langue seconde. In Édith eta Jaques Maurais (edk.) *La norme linguistique* (511-540). Québec: Conseil de la langue française (Paris: Le Robert).

- DORIAN, Nancy. 1989. *Investigating obsolescence. Studies in language contraction and death*. Cambridge: Cambridge University Press.
- EDELMAN, Martin. 1968. The contextualization of children's bilingualism. In J.A. Fishman eta R.L. Cooper (edk.) *Bilingualism in the Barrio* (525-537 orr.). New York: Office of Education. U.S. Department of Health, Education and Welfare.
- EGUNKARIA. 1992. *Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria.
- EUSKALTZAINDIA. 1959. Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz. In *EUSKERA* 1959, 214-15 orr.
- 1979. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. In *EUSKERA* 1979, 103-106 orr.
- 1986. Euskal azentu eta ebakeraz II. Jardunaldiak. In *EUSKERA* 1986-2. 441-42 orr.
- 1991. Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz. In *EUSKERA* 1992-2, 445-447 orr.
- FISHMAN, Joshua A. 1968. The relationship between micro and macro-sociolinguistics in the study of who speaks what language to whom and when. In J.A. Fishman eta R.L. Cooper (edk.) *Bilingualism in the Barrio* (1000-1028 orr.). New York: Office of Education. U.S. Department of Health, Education and Welfare.
- 1983. Modeling Rationales in Corpus Planning: Modernity and Tradition in Images of the Good Corpus. In Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (edk.) *Progress in Language Planning* (107-118 orr.). Berlin: Mouton Publishers.
- GAGNÉ, Gilles. 1983. Norme et enseignement de la langue maternelle. In Édith Bédard eta Jaques Maurais (edk.) *La norme linguistique* (463-509 orr.). Québec: Conseil de la langue française (Paris: Le Robert).
- GAMINDE, Iñaki. 1992. Euskara batua eta euskararen irakaskuntza. In *ELE* 11-12 zkia. 139-142 orr.
- HELLER, Monica (ed.). 1988. *Codeswitching. Anthropological and Sociolinguistic Perspectives*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. 1982. *Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan*. Gasteiz: HUIS.
- IDIAZABAL, Itziar. 1986. Euskara eta eskola. In J.I. Ruiz Olabuenaga eta J.A. Ozamiz (edk.) *Hizkuntza minorizatuuen soziologia* (167-181 orr.). Donostia: Ttarttalo.

- JERNUDD, Björn eta SHAPIRO, Michael J. (edk.). 1989. *The Politics of Language Purism*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- KARDABERAZ, 1761. *Eusqueraren berri onac. Eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac*. Iruñea: Antonio Castilla.
- MEEUS, Baudewijn. 1979. A diglossic situation: standard vs. dialect. In William F. Mackey eta Jacob Ornstein (edk.) *Sociolinguistic Studies in Language Contact* (335-344 orr.). The Hague: Mouton.
- MENDIGUREN, Xabier. 1976. Irakaskintza liburuetako euskeraren desberdintasunak. In *EUSKERA* 1976, 210-213 orr.
- 1978. Euskara batua eta irakaskuntza. In *EUSKERA* 1978-2, 523-531 orr.
- MENN, Lise. 1989. Some people who don't talk right: universal and particular in child language, aphasia, and language obsolescence. In Nancy Dorian (ed.): *Investigating language obsolescence. Studies in language contraction and death*. Cambridge: Cambridge University Press.
- MOGEL, Juan Antonio. 1881. *Peru Abarka*. Durango: Julian de Elizalde.
- MOKOROA, Justo M. 1935. *Genio y Lengua*. Tolosa.
- NEUSTUPNY, J.V. 1989. Language purism as a type of language correction. In Björn JERNUDD eta SHAPIRO, Michael J. (edk.) 1989. *The Politics of Language Purism*. (211-223). Berlin: Mouton de Gruyter.
- LOPETEGI, Eskarne. 1993. *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*. Gasteiz: Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- RETOLAZA, Jose Antonio. 1977. Ume euskaldunen alfabetatzea. In *EUSKERA*, 1977, 283-295 orr.
- ROTAETXE, Karmele eta Xabier ALTZIBAR. 1985. La crise de la langue basque. In Jaques Maurais (ed.) *La crise des langues*. Quebec: Conseil de la langue française. (Paris: Le Robert).
- SALABURU, Pello eta KINTANA, Xabier. *Euskara hobean hobe*. Leioa: EHUKo argitarapen-zerbitzua.
- SANTAMARIA, Carlos. 1979. El euskera como lengua escolar. In *EUSKERA* 1979-2, 465-481 orr.



- SCHMIDT-ROHR, Georg. 1933. *Mutter Sprache*. Jena: Eugen Diederichs Verlag.
- SETIEN, Jazinto Fz. 1974. Haurraren mintzaira berezia eta euskara. In *EUSKERA* 1974, 312-320 orr.
- URIEL, Weinreich. 1953. *Languages in Contact: Findings and Problems*. The Hague: Mouton.
- URRESTARAZUtar Andoni. 1963. Euskeraren aldeko lan orokar baten egitaraua. In *EUSKERA* 1963-64, 401-408 orr.
- URUBURU, Laura. 1993. Bizkaierea eskolan. In *II. Jardunaldiak soziolinguistikaz*, 197-222 orr. Bilbo: Bilboko Udala.
- VILLASANTE, Luis. 1988. *Euskararen auziaz*. Oñati: Editorial Franciscana Aranzazu.
- WOOLARD, Kathrina A. 1989. Language convergence and language death as social process. In Nancy Dorian (ed.): *Investigating obsolescence. Studies in language contraction and death*. Cambridge: Cambridge University Press. (355-367 orr.).
- ZALBIDE, Mikel (argitaratze bidean). Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- ZARATE, Mikel. 1978. Euskara batua ta euskalkiak. In *EUSKERA* 1978-2, 557-568 orr.
- ZENOZ, Jasone. 1986. Hutsegiteen inguruko zenbait ohar. In *ZUTABE*, 11.zkia.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon eta Pello ESNAL. 1993. *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



## ESKOLAN IKASIA BIZITZAN NOLA ITSATSI

*Bilbo, 1994.02.26*

*Joxe Mari Berasategi Zurutuza*

### ESKOLAN IKASIA

Hasiera-hasieratik egin behar da bereizketa: euskara etxean ikasita eskolaratzen diren haurrak eta euskara ikasten eskolan hasten direnak. Irakasteredu elebidun desberdinetan ikasteak oinarritzko bereizketa horren sinplekeriari ñabardura ugari eranstea ekar lezakeen arren, gaia planteatzeko oinarri aski sendoa delakoan nago. Multzo batari eta besteari ezin zaizkio hizkuntz helburu berberak ezarri, eta hezkuntzako legediak ere ez dizkio ezartzen.

### Hizkuntz helburuak

Hizkuntz helburu orokorrak Jardunaldion gaira makurtarazten saiatuz, eta oso-oso labur adierazita, honako hau atera zait niri:

- Etxetik euskaldun eskolaratzen denarentzat, *euskalkian / azpieuskalkian / etxeko euskalkian duen adierazkortasunari kalterik egin gabe, hizkuntza standardeko gaitasun egokia lortu, ahoz zein idatziz, erdarako gaitasunekin batera, baina bere euskara horien murrontza itsuan jarri gabe.*
- Etxetik erdaldun eskolaratzen denarentzat, *standardeko gaitasun txukuna lortu, ahoz zen idatziz, erdarako gaitasun jasoeekin batera, euskara adierazkorren ulermenean lehen pausoak emanaz.*

Esaldi laburrak dira, baina badute zer eztabaidatua eta zer argitua ugari, nire irudiko. Oraingo legediaren idazleek sakon aztertuko zuten, seguru asko. Nik lan egiten dudan giroan sarri ateratzen da gaia. Ziur naiz irakasleen artean ere maiz aipatzen direla gauzok. Baina ez al zai-zue iruditzen azken hamar-hamabi urteotan, egitekoak egiteko egonik,

hausnarketa formal eta serio bat egiteko ez parada ez beta handirik ez dugula izan? Giroak hartara ekarri gaitu, ordea, azkenean. *Kantitateari* soilik begiratu gabe, kalitateari ere beha hasteko orena iritsi zaigula dio batek; huts-hutsik zenbatekoari erreparatu barik, nolakoari ere kasu ematen aitzinatu beharra dakus besteak. *Begiratu, beha hasi, kasu eman...* ez legoke bat ere gaizki, *zeri* asmatuko bagenu, *zeri* horren albo eta goi-behe mugak ezartzeko bidean jar bagintez. Nire hitz parrastada honek ez du horretan gehiegi lagunduko baina, hitza eman didatenez eta hitza eman dudanez, borondate oneko betelana izan dadila badarik ere.

*Adierazkortasuna, standardeko gaitasun egokia, morrontza itsua, standardeko gaitasun txukuna, euskara adierazkorraren ulermena...* hitzak, hitz andanak dira, merezi balu-edo gerora definitzen saia gintezkeenak.

## **Baliabideak**

Onerako zein txarrerako, helburuak lortzeko lagungarri bezain kalterako gertatzen zaizkigu, eragin indar handiago edo txikiagoz. Eskola-koak bertakoak aipatuko ditut bakar-bakarrik, kanpoko faktoreek duten eragin gero eta handiagoa aitortu ondoren. Aipatuko ditudanetatik lehenak du, askogatik izan ere, eragin eta garrantzirik handiena, nire ustez. Gainerakoetan ez naiz ausartzen lehentasun ordenarik ipintzen, ahozko-rako batzuk izan daitezkeen bezala, idatzizkorako beste batzuk izan baitaitezke aurretik.

## **Irakasleen euskara**

Irakasleen artean euskara zuzen eta egokia erabiltzen duen asko dago, beste inolako lanbidetan baino gehiago, ziur aski. Eskoletako paper eta inprimaki dexente eskuztatu beharra izaten dut urtearen joanean eta, egia esan behar bada, denetarik kausitzen da horien artean. Euskara zuzen, egoki eta adierazkorra darabilenarekin hasi, euskara standardeko zuzentasun muga juxtu antzean gaintitzen duenarekin segi eta ez euskara standardaren oinarritzko zuzentasun mugari ez euskararen beraren funtsezko hezurdurari antz eman dion harekin egin dezakezu topo.

Harrigarria ere ez da, alabaina, horrelakoak aurkitzea. Oso urte gutxitan antolatatu behar izan da, ia ezerezetik hasita, euskal irakaslegoa. Irakasle horietako gehienak, gainera, bere garaian ikasketak gaztelaniaz eginak dira. Arrazoi usteko hau aitzaki itxuran uzten duen daturik ere badago, ordea. Txiki-txikitatik ikasketak eskolan eta baita eskola ondoren ere euskaraz eginiko irakasle bat baino gehiago gaztelaniaz ikasitako

haien mailatik apenas oso gora eta, kasu askotan, beherago ere ez ote dagoen susmoa baino zerbait gehiago izaten da, zenbait paper ikusita.

Badago, nire ustez, arrazoi gordinagorik. Norberak egiten ditu bere hautuak eta inguruak laguntzen dio den hura izaten. Gaur-gaurkoz, irakasle askok eskolako hizkuntza du euskara; are gehiago, askok ikasgelako hizkuntza duela esaten ere ausartuko nintzateke. Ez sentimeneko, ez gozameneko, ez pasadizu kontaketarako, ez algararako... ez du *bizi-hizkuntza*. Horren eragina nabarmena da irakaslearen eskolako eta ikasgelako euskararen. Hurbilago dabil gaztetxoek hizkuntz eredutik helduen hizkera osotik baino. Gizarte honetan bizi denez, ezin bada irakaslea, irakasle denagatik, salbuespen izan.

Eta honaino iritsita esan nahi nizueke irakasle gisa lehenengo, Euskara Zerbitzuan lanean gero eta guraso elkarte bateko jardunean orain-tsu izan dudan eskarmentu apurra oinarri, irakasleen euskara egokia den ala ez aipatze hutsarekin harrotzen direla hautsak bazterretan. Ez da oraingo kontua. Hauts horrek eragindako lehen arkuxuna 1980 inguruan egin nuen nik, guraso batek eskolaurreko andereñoen gutunetako euskara zela eta *konponbideak* jarri nahi izan zituenean. Ez da oraindik hiru urte zuzendari bati etxerako idazkietan erabiltzen zuen euskararen eskasa mahaigaineratu nahi izan geniola (ala *geniona* jarri behar nuen?) eta ez zigun ulertu (nahi izan). Esan nahi baita gai hori tabu bihurtua dela aspaldian. Aurtengoan izango al da egokierarik tabu hori gainditzen has-teko!

Irakasleek dute horretan hitza. Ez zait iruditzen gaia lasaitasun batekin jorratu gabe ezer asko aurreratu edo hobetu daitekeenik.

Nik neuk batez ere standardean idatzitako testuak eta grabazioak eskuztatu izan ditut, eta hiru multzotan bilduko nituzke, abiapuntu gisa:

- Standard egokia.
- Standard murrizt desegokia, hala-holako gramatika zuzentasunez-koa.
- Standard *euskañola*.

I. Eraskinean ikus daitezke, nahi izanez gero, hiru molde horien erakuskari batzuk.

## **Ikaskideen euskara**

Duena baino garrantzi txikiagoa ematen zaiolakoan nago; eta ez inportantziarik ikusten ez zaiolako, eragiten zaila den esparrutzat jo ohi delako baizik.

Zer nolako euskara egiten dute ikaskideek? Hara zer galdera? Zein egingo dute bada, ikasleak eta ikaskideak ez al dute bada multzo bera osatzen? Bai eta ez. Multzo gisa begiratuta bai. Baina ikasleak banan-banan hartzen baditugu? Orduan ez beti. Oso giro euskaldun edo erdal-dunetan ikasleen artean egon badago halako homogenotasun bat, onerako zein txarrerako. Onerako direnak beude horretan. Eskasiarik izatekotan, standarda menperatzeko orduan izango dute eta horrek, zaila bada ere, badu konponbidea. Txarrerakoek, aldiz, ez dute horretan geratzeko trazarik: ogi beltza edo-ta beltzena, hau da, ogirik eza. Euskararik ez dutela egiten, alegia, edo-ta egiten dutena *euskañola* dela.

Horrelako giro homogenoak gero eta gutxiago direla uste duteneta-koa naiz. Hiri giroa ari da nagusitzen eta hor, hizkuntza bien baterako bizitza da jaun eta jabe, kasurik onenean. Baterako bizitza horretan ikasten dute ikasle askok, batzuk etxetik bertatik hasita, dakiten euskara; beste askok eskolan. Ahoz aho dabilta gai hauekin kezkatutako gurasoen artean honelako galdera-harridurak: *Hau eta hura non ikasi du gure umeak? Guk ez diogu bada horrela egiten!* Haurrei beraiei galdetuta, ez dakitela edota eskolan/ikastolan hala esaten dela erantzungo dizute. Hango hizkera molde *homologatua* horixe izaki! Ez bada nabarmendu nahi! Irakasleak ere berehala homologatzen ei dira, eskola esparrua zapaldu orduko edo-ta hango lagunena batekin topo egiten dutenean, nahiz eta esparru hartatik kanpo izan.

### **Eskola materialak**

Testuliburu, kontsulta liburu, irakurgai, kasete, bideo eta abar, eskolara kanpotik ekartzen direnak daude alde batean. Bestean, eskolan bertan sortuak, ia beti irakaslearen eskutik edo-ta horren gidaritzapean. Lehen multzoak badu, EIMA laguntza deialdiaren inguruan antolatuta eta sortzaileen/argitaratzaileen lan bulegoetan orobat, euskararen egokitasun mailari eusteko ahalegin handi bat. Bestek daki horren berri eta ez naiz sartuko. Bigarren multzo horren nondik norakoak ezagutzen ez da hain samurra. Normalean geure seme-alaben fitxa, paper eta azterketak ikusteko aukera izaten dugu, baina ez beste inorenak. Komentatu ere gehien bat trakeskeria nabarmenak komentatzen dira eta horrek batez-besteko txar baten irudia uzten du tertulietan. Ikuspegi murriztegia dugu, ordea, egoera zuzen ezagutzeko.

### **Ekoizpen aukerak eta ekoizpenen trataera**

Eskola antolatua dagoen eran, ikasleak ulermena eta gaitasun pasiboak lantzeko du aukera, beste ezertarako baino gehiago. Berak ekoiz-

teko aukera gutxi du, batez ere ahoz; baina idatziz ere ez orain dela urte batzuk beste.

Idatzizkoari dagokionean, orain urte batzuk testuliburu faltan hainbeste ugaldu zen *fitxitisak* izan du eragina. Ikasleari bost lerrotik gorako apenas ezer eskatzeraino. Baina ekoizpen aukeren eskasak adinako eragina izan duen beste faktore bat ere bada tartean, nire ustez. Penduloarenak agintzen du hemen ere: garai bateko *redaccin diaria o semanal* hartatik oso gutxi idazteraino pasa gara (nik hiru hilabeteen behineko kasua ezagutzen dut, OHOk 6. mailan). Gainera, irudipena daukat eskola ez ote den pasa hizkuntzaren balio formal eta erretoriko haiek hainbeste goraiпатetik aho zein idatzizko produkzioa ez baloratzera edo, okerrago izan daitekeena, *edonola ere berdin delako* uste-muste xeble antzeko batera, ondo, edo airoso, edo eroso, edo dotore jardutea gaizki-ikusaren behelainoan bilduta balego bezala jokatzuz. Ondo jardutearen gozamen loriak eskolan/ikasgelan/ikasle elkartean aitortzea kirol kontuetan soilik balitz bezala onargarri.

## Hezkuntza Administrazioko hizkuntza

Esparru honetan erabiltzen den hizkuntzak ere badu eragina ikaslearen euskaran, zeharka bada ere. Administrazioak bere edozein mailatatik ikastetxeetara bidaltzen duen batez ere idatzizko produkzioak, bai egoitza nagusitik, bai lurralde ordezkarietatik, bai eskualdeko zerbitzuetatik, badu eragina eskolako administrazioan erabiltzen diren dokumentu eta paperetan. Asko inprimakiak edo ereduak dira eta hainbat jarduera horien gainean hezuramitzen da. Orobat ahozkoari dagokionean ikuskaritza eta aholkularien ikustaldi, elkarriketa, hitzaldi eta abarrez. Horiek guztiek ondorio zuzenak dituztela iruditzen zait irakasle taldeek prestatzen dituzten dokumentu garrantzitsuenetan, hasi nota agiri eta ebaluazio aktetatik eta ikasturteko plan eta memorietan buka.

Administrazioetik eskoletarako isuriak, neurri batean behintzat, betetzen ditu elebitasun itxurak. Beste edozein administrazioak adinbat bai, seguru asko. Ez da harrigarria ere, ordea, aurretik bidalketa-orri elebiduna duela, txosten edo taula-sail mamitsu eta mardulak gaztelania hutsean bidaltzea. Elebitasun *itxura* esan dut; elebitasun itsua ere maiz deitu izan diogu. Sortzeko hizkuntza gaztelania da ia beti. Euskara, azken orduko lagungarri. Kasurik onenean, itzultzaile onaren esku uzten da, presaka eta korrika egiteko aginduarekin, elebitasunaren betekizuna. Emaitza zein? Onenean gramatika zuzentasunaren maila gaintzen duen testua. Oso nekez testu adierazkor, zehatz eta irakurteraza. Irakasleak zer irakurriko du, aukera *elebidun* horretan? Eta militantismo laudagarriz

euskal bertsoia irakurtzen hasten bada, eta jatorrizkora jo gabe amaitzea lortzen badu, zer eredu ari da jasotzen?

Administratziotik igorritako idazkietako euskara eskoletan nola ikusten duten ez dago jakiterik azterlan sakona egin gabe. Azterlan horren faltan, II. Eraskinean ikus daitezke, nahi izanez gero, 1992an egindako galdekizun batetik ateratako kezka. 90 eskolak Administrazioak erabiltzen zuen euskararen desegokitasuna aipatu zuen, harekiko harremanak euskaraz izateko oztopoen artean. Hona zer zioen galdekizuna hustu ondoren Euskara Zerbitzuan egindako txostenak:

*Idazkietako euskara desegokia:* itzulpen bihurria, joskeraz eta hiztegi aztertasunik gabea, estilo korapilotsua, ... ez dira inongo hizkuntzatan lagungarri sendoak. Bai, aldiz, behaztopa-harri larriak. Zer esanik ez erdal itzulpena, gurean bezala, gehienetan euskarazkoaren parean dagoenean eta, bai jatorrizkoa delako eta bai hartara jarriak gaudelako, askotan errazago entenditzen denean. Behar bezala zaindu gabe bidaltzen dira gainera, sarri, euskarazko testu-atalak: orrazketa on baten faltan, idazmakina-lana garaiz eta ganoraz zuzendu gabe, ...

... Besteak ezertan gutxietsi gabe ere bi dira, askogatik, kezka-gai nagusiak: hizkuntz prestakuntza ahula eta idazkietako euskararen egokitasun falta.

Jendea, Administrazioa eta ikastetxeetakoak, behar bezala trebatu gabe ikusten dute beraz, horra lehenengo kezka, euskaraz normal eta egoki jardun ahal izateko. Administrazioetik bidaltzen zaizkien dokumentuetako euskara ez zaie, gainera, begi-betegarri gertatzen. Hortik datozke nagusiki, beraien esanean, euskaraz jardun nahi eta ezina.

Ezintasun horren bi iturriak ez dira hain bi, ondo erreparatzen badiegu. Elkarren oihartzun dira izan ere, neurri ohargarri batean, bata eta bestea: euskaraz jarduteko trebatu eta trebatzen ez den jendeak nekez paratuko dizu, izan ere, euskal idazki erraz, samur, zehatz eta osaturik. Entenditzen ere lan ematen duten idazki disgustagarriekin gaitz izango da, orobat, Administrazio (eta eskola) jendea euskaraz jarduteko ondo trebatzea.

Bata iturri eta bestea ondorio den, ala alderantziz, aztertzen has daiteke noski. Hemen ez gara, ordea, horretan sartuko. Probetxu handiegirik ez genuke gainera, seguruenik, hortik aterako. Hobe izango da, oraingoz, faktore biak esku esku doazela eta batean egiten den aurrerapenak berandu baino lehen bestean eragingo duela uste izatea.

Askoz hobe ote da, bestetik, eskolako irakasle-jendeak Administrazioa bidaltzen dituen idazkietako euskara? (II. Eraskineko esaldiei begiratu bat eman, behar izanez gero) Eta askoz hobe ote eskolako bertako administrazioan erabiltzen dena, euskara erabiltzen denean? Edo-ta etxeetara bidaltzen diren ohar idazkietakoa? Eta zer esan eskolan D ere-



dua irakatsi eta ikastetxeko plan eta memoriak gaztelaniaz idazten dituen irakasle taldeaz? Zer gero hori eskolan bertan itzuli eta, behar den tokirako, euskaraz edo ele bietan aurkezten duenaz? Zer, eta nahi baduzue ez sinetsi, gaztelaniaz idatzi eta gero udaletxeko itzultzaileari euskaratu dezan eskuratzen dionaz?

Norabide bietan topatzen dira euskara egokian idatzitako testuak ere. Gehiena ez ote da, ordea, erdarari lotuegia, gaztelaniaren morrontza itsuko? Eta euskara molde horrek ba al du eraginik ikasleen euskaran? Testu horiek ez dituzte eta ikasleek irakurtzen! Ez, baina irakasleek bai, eta hauen euskaran eragina badu... horregatik nioen atal honen hasieran euskara honek zeharka, baina eragin eragiten diola ikaslearen euskarari.

**Emaitzak**

Eta zer nolako euskara egin eta idazten dute, honenbestez, gure ikasleek? Galdera zaila, inondik ere. Denbora, jakituria eta seriotasunez aztertu beharrekoa. Nork? Horra beste galdera. Erantzunen zain, nik galdekizun txiki bat prestatu dut hasieran ezarritako helburu haien neurria eta, hartarako gogorik duenak, erantzun dezala berak ezagutzen duenetik:

	<i>Emaitza onak</i>	<i>Hala-holako emaitzak</i>	<i>Emaitza eskasak</i>
<i>Etiket euskaldunak</i>			
– Standardeko gaitasun egokia ahoz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Standardeko gaitasun egokia idatziz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Etxekoaren adierazkortasunez	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Erdarako gaitasunekiko morrontzan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Etiket erdaldunak</i>			
– Standardeko gaitasun txukuna ahoz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Standardeko gaitasun txukuna idatziz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Euskara adierazkorra ulertzeko lehen pausoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Batezbesteko optimistenean hala-holako emaitzak ateratzen zaizkit niri, lortu diren baldintzetan lortuak izateko meritu handia izan arren.

## Eskolaren mugak

Askok uste baino askoz handiagoak dira. Oso argigarri gerta daiteke, hartaz jabetzeko, Mikel Zalbidek *Eskola Hiztun Bila* (1) liburuaren sarreran eta lehen bi kapituluetan (I Hasi-masiak: eskola-giroko hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa. II Eskolaren eragimena euskara indarberritzeko orduan) egindako hausnarketa eta, orobat, muga horien guztien gainetik, eskolaren egitekoari aitortzen dizkion betekizun garrantzizkoen dioena irakurtzea.

## Zer egin?

Emaitzen datu zehatz eta segururik ez dugun artean (zuzentasuna eta egokitasuna helburu hartuta ez baita egin, nik dakidala, eskolako euskara moldearen azterketa osaturik) ezer ez dakigulakoa edo ikusten ez dugulakoa ezin, bada, egin. Bakoitzak bere ikuspegi eta begiratokitik, baina emaitzen argazki itxurako bat badugu begibistan.

Geure gaur-gaurko argazki itxura horretan orain zortzi-hamar urte baino hobeto gaudela agertzen bada, are askoz hobeto gaudela, erraza dago: utzi denborari eta oraingo sistemari bere lanean segitzen.

Eskolan bertan edo eskolarekin gu baino harreman zuzenagoan da goenak nolako irudi diakronikoa duen ez dakit. Nik neuk, adibide bi jartzearen, garbi ikusten dut aurrerapena EITBren edo testuliburuaren batezbestekoan. Ez dut horrelakorik sumatu eskoletatik jaso eta eskuztatu izan ditudan paperetan. Ez eta Administrazioetik eskolarakoetan ere. Egunero daukat belarrian *nago ez dakit zer eta nago badakit zer* erako euskañol euskarazal españolmuin hedatua.

Egia da, inon egotekotan itzulpen batean daudela bi hizkuntza beren barne-egitura horretan elkarrengandik hurbilen eta, beraz, kalko bat izateko arriskuan, baina, gure kasuan, behar baino ere hurbilago daudela esango genuke euskal kazetaritzan, sarritan errazegi, jauzi arrisksuegirik gabe, alegia, heltzen baikara euskaratutako albisteetatik gaztelaniara. Beraz, kontua da, gaur egun euskal kazetaritzan egiten den itzulpegin-tzak asko narrasten, arrotzen eta, ondorioz, ulergaitzotzen digula euskara; hitz batez esanda, gaur egungo itzulpen-hizkuntza kazetari-hizkuntzaren etsai dela. Izan ere, testu bat irakurri-ahala irakurritakoa euskaraz jabetzean bailegoke sekretua, eta behin dioenaz jabetuta gero, erdaraz jasotakoa euskaraz egokitu eta berregitean. Beste hitz batzuetan esateko, erdaraz ulertua deskodetu egin behar da, ondoren euskaraz birkodetuta emateko.

Ohar bat egin daiteke hemen, hain zuzen ere kazetaritzako eta beste literatur hizkuntzetako itzulpenen arteko bereizketa azpimarratzeko. Kazetari-hizkuntzaren ezaugarri bereziak kontuan harturik, arras desberdinak dira beren ezaugarri eta helburuetan, alde batetik, kazetari-hizkuntza, hots, informazioari loturiko eguneroko hizkuntza hori, eta, bestetik, nahiz eta orokorki informaziorako izan, beste hainbat literatur testueta-ko hizkuntza; eta, zer esanik ez, are eta desberdinago, kazetari-hizkuntza eta literatur sorkuntzakoa, nobelagintzakoa, adibidez.

Alabaina, bada gure artean, kazetari ikuspegitik behintzat, okerre-kotzat eman behar den teoria bat. Askoren iritziz, euskara puskatu egin behar da gaurko beharrei, eta horien artean behar komunikatiboei, erantzuteko. Besteak beste, gaur arteko literaturan modan egon den uste honek kalte handia egin diezaioke euskal kazetaritzari, batez ere, joera nagusi bezala, eguneroko albiste eta itzulpengintzan gauzatzen bada. Gehiago esango dut: "prentsa kontrakulturala" deritzan horrek izan ditzakeen ezaugarrien artean salatu beharko genuke joera hori. Izan ere, hainbat hizkuntz arau nagusiren aurkako joera bat nabarmentzen dute prentsa-mota horren aldeko diren zenbait kazetari gazte eta modernok.

Baina, azken batean, argitu beharreko kontua beste hau da, alegia, ea kazetari horiek benetako eredu berri bat proposatzen duten ala, hizkuntzari zorretan, egoki idazteko gai ote diren; alegia, gure arazo partikular honetara etorritz, ea kazetari horiek euskal senik baduten ala ez,

eta, ondorioz, euskaraz pentsatuz idazteko gai diren ala ez; azken batean, prolema ez baita erdaraz pentsatzen duenari euskal ulermena errazteko formulak aurkitzea, baizik eta guztiontzat euskal senarekin ados dagoen kazetari-hizkuntz eredu jator bat eraikitzea.

Ondorio gisa, euskararen berezitasunean oinarritutako kazetari-hizkuntza bat sortzen joatea erreibindikatzeko dugu, itzulpengintza barne dela, noski. Horretarako, lehenik eta behin, euskara izan behar du gure kazetari-hizkuntzak, baina, jakina, bere sen eta guzti, bere komunikagaitasunean osoa eta betea izan dadin.

## **KAZETARI-ERREGISTROA: SOLAS MAILAKO KOHERENTZIA**

Hau guztia esanik, azter dezadan, zertxobait bederen, kazetari-hizkuntza, beronen berezitasun bat aztertzeko. Beti ere teoria mailan, kazetari-hizkuntzaren ezaugarri nagusietako bi (zuzentasuna eta egokitasuna), eta horrez gainera, hizkuntza horren oinarria (ahozko euskara) aipatu ditugu orain arte; baina aurrera begira, ikuspegi praktikoa batetik azter dezakegu kazetari-hizkuntza, hain zuzen ere, literatur genero berezi den aldetik, kazetari-erregistroa esan dezakegunaren berezitasuna zertan datzan ikusteko.

Nolanahi ere, beste ezer baino lehen, oinarritzeko ideia bat finka dezakegu inongo azterketetan hasi aurretik: teknika batzuk dominatzean baino gehiago, hizkuntza ondo menderatzean dago kazetari on baten sekretua, kontu eginik, hizkuntzaren erabilpenean agertzen duen segurtasunak emango digula fidelkien kazetari baten kalitatearen berri eta neurri.

Zehazki kazetari-hizkuntza bera aztertu baino lehen, beharrezko da kazetari-mezuari buruzko gogoeta bat. Komunikazioaren aldetik, beti izan behar du kontuan kazetari-hizkuntzak, alde batetik, berehalako efikazia, eta, bestetik, denbora eta hitzen aldetiko ekonomia, esan nahi baita, ahalik eta hitz gutxienaz ahalik eta gauzarik gehien jakinarazi behar du diola kazetariak irakurleari.

Beraz, funtsezko da kazetariarentzat hiru puntutan oinarritutako buru-ariketa hau: a) mezua eta bere osagai nagusiak aurkitzea, b) mezu hori adieraziko duten ideiak lehentasun maila batean sailkatzea, eta c) hizkuntzaren aldetik kontakizun egoki bat burutzea, ez baita ahaztu behar albiste bat idaztea beti dela, presaka ala presarik gabe ibili, ondo jokatu beharreko kontu bat.



Adibide batez esateko, ez dago kazetari-hizkuntzarik testu honetan:

Atzo ekarri zuten Mikel etxera. Hori jakin  
bezain laster, bisitara joan nintzaion. Ez zidan,  
halere, askorik eskertu.

Aitzitik, albiste hori emateko kazetari-hizkuntza egokia beste hau da:

Ez zidan askorik eskertu Mikelek, atzo bere  
etxera ekarri ondoren egin nion bisita.

Hizkuntz eragiketa batera mugatzen da, beraz, kazetariaren mezugintza, eta, orokorki, kazetaritza guztia. Irudi batez esan behar bagenu, albiste bat entzutera edo irakurtzera prestatu den solaskide hipotetiko batekin kazetariak egiten duen ibilaldia izan daiteke kazetari-mezua. Hizkuntza da ibilaldi horretako bidea, haren gainean joango baitira buruz buru kazetaria eta bere solaskidea elkarrekin; eta joanaldi horretan, kazetariak kontatzen diona interesgarri zaion neurrian eta, bestalde, bidean hizkuntz oztoporik aurkitu ezean bakarrik joango dira biak elkarrekin; gainerakoan, bi baldintza horietako batek huts egiten badu, adi ego-teari uko egin eta bere ibilaldia amaitutzat emango du solaskideak, kazetariak bere kasa aurrera jarraituagatik.

Demagun kazetariak kontatzeko daukana interesgarri zaiola bidelagunari, eta, beraz, bidea bera da gure ondorengo aztergai. Eredu bat eraiki behar eta, aldez aurretik hobetsi dugu ahozko euskararen eta belarriaren araberako hizkuntzan oinarritutako kazetari-hizkuntza. Horrela izanik, hitz-katean daukagu elementurik nagusia.

Jakina da, begiaren araberako hizkuntzak hitza duen bezala, belarriaren araberakoak *hitz-katea* duela bere unitatea. Ondorioz, hitz-kateak izan beharko du kazetaritzako euskararen erreferentzi puntu nagusia; izan ere, zenbat eta lotuago eta osoago hitz-katea, hainbat eta ulerterrazago; eta hori, bai ahozko kazetaritzan eta baita idatzizkoan ere, ez baita ahaztu behar idatzia ere "entzun" egiten dela, eta beraz, idatziak ere baduela, Pello Esnalen hitzetan esateko, nota eta hitz soltea baino areago, bere doinu, melodia eta armonia ere. Beraz, bere osotasunean hartu behar da hizkuntza eta ezin da galdu kazetaritzan euskararen osotasuna.

Beraz, perpaus elkarketarako baino areago, testu mailako loturarako (lotura semantikorako, funtsean) balio digute lokailuek, eta haatik, solas mailako lotura edo koherentziaren adierazgarritzat jo behar dira, pragmatika munduan murgilarazten gaituztenez.

Begi bistan da, esaten ari garen hau guztia kazetari-testuak behar duen koherentziagatik azpimarratu behar dela, izan ere, hasieran aipatu

bezala, ezer izatekotan lotura sintaktiko eta semantiko egoki bat duen testu koherentea izan behar baitu kazetari-testuak, hots, testuaren harian etenik gabekoa, eta, beraz, testu ez ezik solasaldi.

Jakina, esaldi desberdinen arteko erlazioaz ari garenez, intonazioa da azpimarratu beharreko beste elementu nagusi bat, izan ere nola egituratu duen hiztunak esaldien arteko erlazioa, halako intonazioa erabiliko baitu eta halako eten-pausak egingo, bereziki perpausen luze-laburra, konplexutasuna eta adierazkortasuna kontuan dituela. Honek esan nahi du, kazetari onak beti eduki behar duela kontuan esaldien erritmoa, beraz, denboraren poderioz, subkonszientea bihurtzen bada ere.

Laburbilduz, berebiziko garrantzia dute lokailuek testuaren koherentziarako, eta, beraz, behar-beharrezko elementu dira kazetari-hizkuntzan, irrati-hizketan, bereziki. Hizkuntza dela medio, kazetariak bere solaskidearekin egiten duen ibilalditzat aipatu dugu lehen kazetari-mezua edo komunikazioa. Hala izanik, berriz, solaskidearen interesa eta arreta ez galtzeak izan behar du beti kazetariaren helburu nagusi, eta horretarako, baliabide aproposagorik ez lokailuak baino.

Izan ere, albiste bat jarraitzerakoan irakurleak oharkabean jasotzen joan behar duen erritmo bat markatzen baitute lokailuek; musikan izan ohi den bezala, barne-pultsazio edo tempo bat markatzen diote testuaz jabetu behar duen irakurleari, bi gauza posibilitatuz: batetik, irakurlea sekuentziaren harian manteneztea, eta, bestetik, irakurle hori, beti ere aurrera bultzaka, mezuaren azken ondorioetara eramatea.

## **ERABILERA ZUZENA DELA ETA**

Kazetari-hizkuntzari buruzko hainbat xehetasun eman ondoren, hizaldiaren azken zatira etorri eta euskararen erabilera zuzena garatzeko egin daitekeenaz mintzatzea dagokit. Bi norabide har ditzake puntu honetan nire gogoetak. Batetik, kazetariari eta bere lanari begira jarri naiteke gogoetagai izan daitekeen zenbait ideia azpimarratzeko. Eta, bestetik, enpresa barruko planteamentu berri baten baitan aurrikusiko nuke erabilera zuzenaren arazoa.

Gure komunikabideetako euskararen alde zer egin daitekeen pentsatzen jarrita, nik uste euskara berarengan baino gehiago kazetariarengan pentsatu behar dela. Arazoa ez baita euskara. Arazoa izatekotan ere kazetaria baita. Beraz, kazetariari begira egin beharko da euskara hobetze aldeko apostua. Kazetariak badaki orokorki hiru direla kazetari-hizkuntza hezuramaitzen duten elementuak (teknika baten erabilpena, mezu baten zabalkundea eta irakurlearen arreta bereganatzea), eta hiru-

rak direla kazetari batek bere ofizioaren jabe izateko kontuan hartu beharrekoak. Hala ere, ofizioari dagokionez, benetako kazetariak jakin behar luke batez ere hizkuntzaren ezagutza sakonetik datorkiola bere trebetasuna eta ez hainbeste bere idazlanean erabili ohi dituen teknika eta formuletatik. Azken batean, kazetari baten nortasuna eta haren estiloa, zerbaiti zor izatekotan, bere jakituria, esperientzia, zentzu eta, azkenik, bere ariketa saiatuari zor zaio. Eta hori guztia, pentsamenduari lotuta, jakina, pentsamenduan baitago sakontasuna eta ez formuletan.

Baina, horrez gainera, beste ideia hauek ere oso kontuan hartze-koak lituzke euskal kazetariak. Lehenik eta behin, denok dakigun hori gogoratuko nuke: euskal komunikabideen esku dagoela hizkuntzaren etorkizuna, hau da, gure irrati, telebista, egunkari eta gainerakoetan entzun eta idazten den euskara hori nagusituko dela gaur-biharko euskal hiztunetan. Ondorioz, nahiz eta, lehen esan bezala, oraindik ez dugun kazetaritza-hizkera propiorik, hau da, ereduzko kazetaritza-hizkerarik, inguruko hizkuntza normalizatueta duten bezala, geu gara hizkuntz eredu, gure lan-tresna euskara bera denez. Eta hemendixe gure erantzunkizuna, beti ere lan-tresna hori gertu eduki eta era egoki batez erabil dezagun.

Bigarren, beti ere egiari zorretan albistearekiko zintzotasuna eta irakurlearekiko leialtasuna kazetari ororen bi helburu nagusi direla gogorazi ondoren, bere baitara bilduz partikularki kazetari euskaldun batek gogoan eduki beharreko beste errealitate hau azpimarratuko nieke neure lankideei: bere zerbitzari-izaera.

*Euskal kazetarien jardunaldiak* liburuan irakur daiteke euskal kazetari baten gogoeta hau:

“Taldea txiki bati begira diharduen kazetariak, ordea, bizipozez irauteko ere beharrezkoa du zerbitzari-izaera. Euskal kazetariak gutxi baztuen, baztertuen eta behartsuen aldeko aposturik egiten ez badu, nekez eutsiko dio ilusioari. Euskaldungo multzo txikia zerbitzatzeko eta gero eta hobeto zerbitzatzeko gogoia eta erabakia hartu behar du euskal kazetariak, nire ustez, irautea nahi badu. Herrigintzan eta euskalgintzan dihardutenen artean bere burua kokatzen ez duen euskal kazetariak ezin eutsiko dio etsipenari edo erdarara pasatzeko tentazioari” (2).

Bi hitzetan esateko, militantismorako borondatea eska dakioke, beraz, euskal kazetariari, izan ere, “zoritzarrez euskara komunikabide kokorra delako euskal kazetaria ere gutxietsi egiten baitu gizarteak”.

Hau esanik, arrisku edo gutxienez tentazio batez ohartarazi behar da euskal kazetaria. Edonork daki erdal munduak askoz ere oparago sa-

---

(2) *Euskal kazetarien jardunaldiak*, 49. orr.

ritzen duela kazetaria euskal munduak baino, eta hori, jakina, gure artean, erdaraz esandakoa euskaraz esandakoa baino askoz ere aintzako-tzago hartzen delako. Hori dela eta, badira euskal kazetariaren artean, euskaraz eta erdaraz ari direnen artean, bereziki erdal kazetaritza lantzeko apostu egin dutenak, eta ondorioz, euskaraz kazetaritza-maila on bati eutsiarren, batez ere erdaraz idazten dutenagatik txalotzen direnak.

Jakina, bakoitzaren esku dago aukera hori eta ez dago zer kritikaturik, baina lehenik eta behin, euskaraz “lehen figura”, eta haatixe besteentzat eredu, izango diren kazetariak behar ditu gaur euskal kazetari-tzak bere sinesgarritasun eta prestigioan aurrera egin dezan.

Hirugarren, ez da alferrikako honako arau hau gogoratzea: irakurlearen alde jarri. Bere buruari uko egin eta irakurlearen aldeko apostu egin behar du beti kazetariak; irakurlearen mailan jartzen asmatu, alegia. Mezulari eta bitartekari izatetik datorkio eskakizun hori, eta ondorioz, irakurlearen mailan jarri bereganatu, bizkarreratu behar ditu irakurlearen arazo, zailtasun eta ezintasunak. Maitasunaren lege nagusia: “Zuk nahi ez duzunik inori ez opa”.

Dagoela irakurlea irakurgai ilun, astun eta nekagarrietatik libre, konpon edo xamur ditzala aldez aurretik kazetariak irakurleari ulergaizto egingo zaizkion hitz, termino eta gainerako adigai guztiak.

Eta, azkenik, laugarren baldintza baten aipamen egingo nioke kazetari lankideari: euskararekin goza dezala. Edozein langile eta teknikari kualifikatuk bezala berezko dohain eta sena behar du kazetariak ere albiste-ehiztari eta aldi berean berriemate izateko. Baina bere langintza horretan ezinbesteko zaio kazetariari hizkuntzarekiko “borroka”, borroka amultsua, nolabait esateko.

Ez idazlan bezala, eta are gutxiago sorkuntza lan bezala dira gonparagari kazetaritza eta literatura; bi mundu dira. Baina biak ere idazle-ariketa, emozio berbera eragin dezakete eta eragin behar dute idazle eta kazetariaren. Horrela bada, hizkuntzarekiko borroka amultsu horretan, hizkuntzarekin gozatu egin behar du kazetariak; hizkuntza bera gozatzeaz batera, hizkuntzarekin gozatu, alegia, lehen-lehenik bere lanarekin eta gero, irakurlearekin identifika dadin. Nekez kazetari on bere albistegintzan hizkuntzaz gozatzeko gai ez dena.

Baina hau guztia baieztatuta gero, kazetariaren eguneroko lanari begira jarri gitezke, enpresa barruko planteamendu batera iristeko. Arestian esan dudanez, euskara hobetzeko apostua kazetariari begira egin behar da, prolema hizkuntza bera baino areago hitzuna baita, hots, kazetaria.

Lehenik eta behin, kazetaria bere eguneroko lanean eta aldez aurretik markaturiko bere lan-esparru jakinean aztertu beharko litzateke. Inoiz esana dut albistearen berarizko garrantziaren parean jarri behar dela hizkuntzaren duintasuna ere eta, ondorioz, ez zaiola kazetariari zilegi euskara onik gabeko albisterik.

Baina zer egin eguneroko lan dinamikan gure albistegintza barne-mekanismo baten kontrolpetik pasatzen ez bada? Zenbat kazetari daude gure artean nolabaiteko hizkuntz kontrolik gabe?, edo zenbat ari dira lanean kontrol horren arabera jaso beharreko sari edota zigorrik gabe? Edo, gutako edonork bere buruari egin diezaiokeen galdera, noiz arte izan daiteke bertutetsu kontrol eta saririk gabe?

Ez naiz ni kazetariaren hizkuntz protagonismoaren aurkako; alde-rantziz, oso aldeko baino. Gure erredakzioetan "filologoaren sindromea" zabalduxa dagoen honetan, beti egingo dut nik kazetariaren aldeko apostu. Baina ez nolanhiko kazetariarena, baizik eta euskara eta kazetari-hizkuntza on baten jabe den kazetariaren aldeko apostu.

Hau esanik, ez dut uste, adibidez, halamoduzko euskara darabilen kazetariari bere aldamenean itzultzaile edo filologo bat jarriz arazoa konpon dezakegunik, ez behintzat bere osotasunean. Lehen esan bezala, kazetariarena da albistea eta honenbestez, harena baita ere hizkuntza protagonismoa. Beraz, kazetariaren hizkuntz eta komunikazio-gaitasuna hobetzea izango da lehen helburu.

Eta, hori horrela, euskararen arazoa ez da elementu soil bezala hartu behar (zuzenketarako prestatzen den gai bat bezala, adibidez), baizik eta euskal komunikabideen erabateko kalitate apostuaren elementu bezala kontsideratu behar da. Beraz, kazetaria bere albistegintzan eta bere komunikazioan aztertuz egin behar da hark darabilen euskarari buruzko azterketa ere. Esan nahi dudana da, hikuntzaren tratamendua kalitate hobekuntzaren baitako elementu bezala planteatu behar dela gure komunikabideetan, eta, ondorioz, euskararen exigentzia lan-planteamendu berri bat bezala asumitu beharko dela enpresa barruan.

Honek, noski, zuzen-zuzeneko zerikusia du kazetari-profesioarekin, profesionaltasunarekin, alegia. Hizkuntzaren kalitatea eta profesionaltasuna elkarri josita daude eta, horregatik, beti dira aurrez aurre eduki beharreko helburu nagusi. Beraz, arazo estruktural baten aurrean geundeko, euskararen erabilera zuzena planteatzen dugunean.



## EUSKARAREN ERABILPEN ZUZENA IPARRALDEKO KOMUNIKABIDEETAN

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26*

*Luzien Etxezaharreta Galzagorri*

Arratsaldeon guziei:

Eskertu nahi nituzke gogoeta sail honen antolatzaileak, lehendabizi ene gomitatzeagatik: analisia sakonetan baino gehiago ohitua bainaiz eguneroko ekoizpen lanetan eta ene hurbilketa eskas baten arriskua hartu dutelakotz.

Eskerrak ere, honekin azpimarratzen baituzue Ipar Euskal Herriko komunikabideen garrantzia, denak bizirik, indartsu eta kalitate onekoa nahi dugun euskararen osasunaren aldeko borrokan. Gure hiru probintzietan ere agertu da azken hogeitun urteetan Gutenberg eta Mac Luhanen galaxiek ez zutela elgar tratatzen, baina osagailu premiazoak zirela, lankide, euskararen alorretan.

Hitzaldi labur honetan agertu nahi nuke euskararen egoera Iparraldeko komunikabideetan gero euskara horren kalitate edo hobetzeari buruz, araudiei egokitzeari buruz egiten diren gaurko urratsak, eta azken puntu batean, oharpen zenbaitzuk gure burukomin ohikoez, euskalkien edo batuaren oreka kontu horietaz.

Piarres Xarrittonek iaz Maiatz elkarteak Baionan antolatu mahain-guru batean egin oharpena errepikatu nahi nuke lehendabizi: Ipar Euskal Herriko idazle ia guziak kazetaritzan ibilitakoak direla. Horrek komunikabideen garrantzia agertzen du euskararen bizian.

Mende honen hasieratik argi da *Eskualduna* astekaria zer harrobia izan den: Jean Etxepare medikua Elizalde "Zerbitzari" eta anitz hortik datoz.

### PRENTSA IDATZIA

Prentsa idatziak tokia emaiten dio euskarari molde arras ezberdinetan.

*Euskaldunon egunkaria* Iparraldean sartua da, hedapen oraindik ahularekin, baina 800 bat irakurle egunero hunkiz. Euskararen erabilpenak hor ez du egokitze berezirik egiten nahiz "Iparraldeko estilo" zerbait nabari den kazetariengandik erabilpen zuzena nire ondoko hizlariak azalduko duen bideekin.

*Herria* astekaria gaur aldizkari banatuena du euskarak. 3.000 harpidedunek, hedapen zabala duela, erakusten dute. Lafittek duela 50 urte *Eskualdunaren* jarraitzailea sortu zuen. Iparralde baseritar baten isladatzaile zenak azken urte hauetan berrikuntzaren bidea hartua du. Euskararen ortografia batua hartu zuen 60.eko hamarkadaren ondarrean CH "X" idatziz bereziki; edo kontsonanteen ondotikako Hak gutituz.

Piskanaka, Euskaltzaindiaren gomendioak zuhurki aplikatuz, abiadura iduriz egokian, arau berriak jarraitzen ditu, Emile Larre euskaltzainaren gidaritzapean. Baigorriar gisartartuak testu guziak berak zuzentzen ditu astearteroko lan astun eta zehatzean. Lau urte hauetan berak dioenaz "aditz batua" erabiltzen du astekariak. Hargatik Zuberoako artikulua zuberotarrez goiten dira.

*Sud ouest* egunkariak astero euskarazko artikulua bat dakar Jamattitt Dirassarek idatzia. *Herrian* "egun eta bihar" idazten duenak, arau berdinak dauzka hor. XIX mendetik nagusi den "nafartar-lapurterra" darabil, gaurko euskara batuaren bidean.

Astekari politiko abertzaleek, *Enbata*, *Ekaitza*, *Ager* edo *Har hitzak*, *laborari ELB*koak euskarari toki ematen diote, herena edo laurdena. Horko euskara, erran daiteke, besteen frekuentzia berdintsuan dela: Euskaltzaindiaren arauetarik ibiliz, baina egilearen arabera. Laburbilduz, nahiz hitz ez zehatza izan "bakoitza bere moldean" dabilela, erran daiteke.

*Le miroir de la soule* Mauleko astekari eta Zuberoako informazio aldizkari bakarrak artikulua soil bat dauka zuberotarrez baina ortografia osoki frantsesarenari jarraikia aldakuntza gogorik agertu gabe.

Udal talde batzuen aldizkariak badaude, *Kutzu*, Baionan, Bidarten, Donibane Lohizunen, maiz abertzale edo ekologistek animaturik. Erabiltzen den euskara gaurko araei egokitua daukatela bakoitzaren arabera, erran daiteke.

Beste aldizkari noizbehinkakoek euskara erabiltzen dute.

Iaz Alliot-Marie ministroak eta Poulou deputatuak argitaratuan, gaurko euskararen norma gutienezkoen ignorantzia sakonena agertu zuten hargatik, hemen pudorez ezin aipatzukoa.

Parropia talde batzuek beren aldizkaria zabaltzen dute, Mezularien antzekoak. Horko euskara *Herriakoaren* bide beretik doa.



Dena den asko argitaratzen da Iparraldean: denetan euskara sartu da, gutienezkoa gehienetan, baina presentzia bada bederen edonon.

## IRRATIAK

Euskararen erabilpen ohargarriena sortu du irratiak, urte gutiz iraultza barnakorra eraginez euskararen entzute eta erabilerari. Irrati euskaldunetaz jendeak zuen gosea argian jarri da.

Jadanik 50.eko hamarkadaren ondarrean Miarrizetik hasi igandee-tako *Radio Cote Basquek*, Roger Idiart, Larzabal edo Pantxo Etxezaharretak animatzen zutenak, mezaren aurretik izugarrizko arrakasta lortu zuen. *Gure irratiak* 1981.eko abenduaren 24ean, *Irulegiko irratiak* ondoko udaberrian eta *Xiberoko botzak* udazkenean euskararen saio nagusiak ireki zizkioten.

Zerbitzu (omen) publikoak eskaini eguneroko bost minutuetarik kasik egun osorainoko euskararen entzuteko ahala eskaini zen, hobeki erran, Jendeak eraiki zuen bere nahikariz. Euskal hitzari, musikari kulturari, euskalkiei, bapatean mundu hertzianoaren ateak zabaldu zitzaizkien.

Gaur beste irratiak eskaini tokia aski murrizta da. *Radio France Pays Basquek* astean bost egunez 45 minutuko “euskal magazine” bat eskaintzen du, 13,30etan. Angeluko irratiak AFMek, aste honetan lehendabiziko aldiz euskal emankizun bat hasiko du. Beste irratiak ez dute euskara tutik erabiltzen gaur.

“Zerbitzu publikoaren irratiak” RFPBen, ez da euskararen erabilpeneko norma izpirik, bertako hizlaria jaun eta jabe da (andere eta jabe). Gaur Naroa Gorostiaga, ikastolaren bideetarik ibili denak euskara “zuzenago” baten garantia ematen digu.

Euskal irratiak ez da norma berezirik aplikatu “erabili behar den” euskarari buruz. “Euskara on” baten beharra maiz aipatu arren, ez da inoiz zehazki zuzendu. Maulen zuberotarra erabiltzen dute, Garazin Nafarroa Behereko euskalkia eta Baionan, *Gure Irratia* daiteke gehienik hurbiltzen dena Euskaltzaindiaren arauetara. Herri-irradi horiek jende asko mintzaarazi eta berrikerari ugari erabiliz Iparraldeko Babel zerbaiten oihartzun dira.

## TELEBISTA

ETB da Iparraldean euskara gehienik zabaltzen duena. Gure aldeko albisteak hedatzen ditu 12,45etan 5 minutuz eta 18,30etan 7 minutuz.

Gaur hor langile den Gillome Irigoienek erran diguna “tokiko euskararen” erabiltzeko aginduarekin uzten du.

*France 3* kateak sei egunez 1,30” eskaintzen ditu egunean errepor-taia bat zabalduz euskaraz. Zerbitzu publikoaren eskaintza oso murrizta da dagoenez.

## EUSKARAREN KALITATEA

Halako kantitate handian zabaldu ekoizpenentzat, kalitatearen ar-zoa gaur puntu nagusi bilakatur da. Alde batetik euskara berarengatik, baina ere kalitatezko gauzen gosea delakotz komunikazio munduan. Ipa-rraldeko kasuan eskas negargarriak ageri dira Badirudi orain arte ez dela euskararen erakundeen interesik izan horretarako. Edo bederen beste urgentziek gaia izkutatu dutela. Irratien mailan kokatzen da, ene ustez, arazo nagusia. Masa fenomeno bilakatu delakotz irrati bidez euskararen zabaltzea, gaia hurbiletik begiratzea beharrezkoa da.

*Xiberoko botza* irratian, aitortzen dutenez, “bakoitza bere aldetik da-bil, etxean maiz ikasi euskarekin, maiz AEKn hobetuarekin”. Hitz eze-zagunen bilatzeko Aita Lhanderen aspaldiko hiztegia edo berriki Junes Casenavek argitaratuak erreferentzi dira. Allande Sokarros irakaslea, es-kupean den aholkulari dohainezkoaren lanetan dabil.

*Irulegiko irratian* arazo berdina da. bakoitza bere aldetik dabil euskararen hobekuntzarako. Hori hargatik beharrezkoa dela aitortzen dute. “Formakuntza baten beharra” onartzen dute. Euskalkie begira, denak erabiltzen eta doi bat nahasten dira. Herrietako berrikerari edo elkarte asko mintzo baitira, gaurko euskara mintzatuaren oihartzun nabaria da.

*Gure irratia*k ditu euskararen hobetzeko grinak gehienik agertu ha-sieratik. Iparralde guzira hedatuz, euskalki ezberdinen, euskaldun be-rrien, Hegoaldiarren hitzen kurutzatziak egin ditu. Kakofonia bat ez esa-tekotan, piskanaka, hitz ezberdinen, sinonimoen erabilera zabaltzen lagundu du. Hala ere, beste irratietan bezala, jendeak hitza euskaraz har-tzearen premia nagusitu da orora gainetik. Baina “Euskara bildu” bat da sortu hala ere “de facto”, itzulpen lan ugariak ere hala beharrez lagun-durik.

Prentsa idatziaren erabilera, Hego Euskal Herrikoarena bereziki, euskararen batasun batera bultzatzaile gertatu da. Mattin Larzabal kaze-tariak agertzen duenaz “irratia hitz berriak laster inposatzen ahal ditu”.

Irratien arteko euskarari buruzko politika batuaren beharra aspal-dian agertu da. Zorigaitzez bakoitzaren ezin bizizko lanek, lanak ito lan-

gile eskasak, denbora gutiegik urratsa ttikiegiak baizik ez dituzte egitera utzi.

Erabilpen zuzenago bati buruz ohargarria da gure Irratian Xipri Arbelbidek egiten duen “euskara” emanalditxo.

UEUK, irratiek eskaturik, hiru urte hauetan irratilarien formakuntzarako ikastaroak moldatzen ditu.

Iparraldeko kazetari euskaldunen elkarte baten egiteko xedea obratzen hasi zen duela hamar urte. Honen helburuetarik zen “euskararen hobekuntza”, baina elkarteak ez zuen iraun.

## **OHARPEN BATZUK**

Kalitate hobeagoko euskara baten erabiltzeko gogoia argia da Iparraldeko komunikabide euskara erabiltzen dutenetan. Hamar urte hauetan horretarako tresna oso guti baizik ez da izan. Denek, bestalde, Euskaltzaindiaren egitura zerbaitek hori zuzendu dezan, onartzen dute.

Prentsak jaisten duen eguneroko presio eta abiadura ezagutzen duenok, badakizue ziur nolako behar ugari erantzun behar den, maiz berehala. Iparraldetik ikusita, behintzat, argi eskatzen da laguntza baten bidean irekitzea.

Pentsatzekoa da Ipar Euskal Herrian, euskaraz komunikatzen duten guziek “euskara batu” baten beharra onartzen dutela. Hargatik horri buruzko pausu beharrezkoetatik ere mintzo da gaur. Henri Duhau beskoiztarren lanak agertu nahi du herriko, ahozko euskara, historiatik etortzen zaigun amaren euskara horri kasu eman behar diogula gehiago. Urratsak behar bezala eginez “batuari” buruz. Euskara nagusi bat, bereziki Hegoaldeko kale hizkuntzak eta partez komunikabideek zabaltzen dutena ez genuke nahi, Iparraldeko berezitasun eta aberastasunen iresle itsua izan dadin.

Iparraldetik ikusirik, Hegoaldeko pausuak erraldoiak agertzen dira, euskararen plazaratzeko abiadura handiarekin. Hegoaldeko erbia jautzika dabil gu aldiz dordoka edo apo harmatu astiroak gintzaizkelarik. Ez da hala eta gainera alegiaren bukaera badakizue: erbiak galdu zuela punpa ero gehiegi eginez. Astiro, bide bazterreko liliak usainduz, belar gozoak jan eta liserituz, apo harmatuak zuhurtzia zerbait agertu zuen.

Iparraldeko komunikabideetan euskararen erabilpena zuenaren nahia indar handiz dago, batasunari buruz itzulia. Aholkuen, laguntzen eta elkarlanaren denborak etorriak dira. Ez da komunikabide handi edo txi-

kirik bakoitzak bere tokia baitaukalakotz, indartsuenak bestea lehertzea. harreman ezkor eta kaltegarria da, azkenean “heriotzeak berdintzen baititu handi txipiak”, Etxahun Irurik zioenaren arabera. Iparraldeko komunikabideek euskararen bizi irakaspen gogoetagarri eskaintzen digutela, uste dute.

Milesker zuen harrerarengatik.

## **EUSKARAREN ERABILERA ZUZENA EUSKALDUNON EGUNKARIAREN IKUSPEGITIK: ARLOZ ARLO**

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26*

*Patxi Petrarena Alzuguren,  
Euskaldunon Egunkaria-ko euskara arduraduna*

Euskararen zuzentasuna begiratzeko zer egiten da eta zer egin beharko litzateke komunikabideetan? Ardura al digu euskararen zuzentasunak? Zer baliabide ditugu? Zer arazo sortzen dira? Behar al da zuzentzailerik bazterretan? Behar al da zuzentzaileen zuzentzailerik? Nola hartzen dituzte kazetariak zuzenketak? Ba al da hutsegiterik? Zein hutsegite mota da barkaezin? Zein barkagarri, baldin bada? Zergatik egiten dira akatsak, egiten badira? Norena da hutsegiteen erantzukizuna? Kontuak eskatzen al dizkio norbaitek huts egiten duenari? Saririk eman behar al zaio erabilera zuzenaren aldetik nabarmentzen denari?

Ez dut uste galdera hauek guztiak (bakarren bat bai, agian) lekuz kanpo daudenik, egunotan eta noiznahi; ezta alferrikakoak direnik ere. Are gutxiago, ordea, erantzun erraza dutenik. Baina hauxe dugu gaia, eta ekin diezaiogun. Seguraski, askoz galdera gehiago egin litezke eta egingo dizkigute gero.

### **SARRERA**

Hiru punturen inguruan egitura liteke, nire ustez, komunikabideen ikuspegitik zuzentasunaren eta hizkuntz kalitatearen inguruko auzia. Lehenik, nork berean (komunikabide bakoitzean) lan gogorra egin behar du, bere esku dagoen guztia egiteko. Bigarrenik, komunikabideen arteko elkarlana behar-beharrezko litzateke (ohartu aditzaren moduan). Eta hirugarrenik, dagokionaren edo legokiokeenaren laguntza behar genuke, baliabidetan nahiz hizkuntz aholkularitzan. Hiru maila hauetan badago lana, gure ustez. Oraingoz, *Egunkarian* lehenbiziko alorrean egiten dugu ahalegina, etxe barruko lanean alegia.

## 1. Nork berean

Gure ustez, asko da nork berean egin dezakeena. Lan gogorra, baina funtsezkoa. Eta luzera emaitza ekartzen duena. Egia da gauza asko daudela erabakitzeke, zalantza franko ditugula, batzuetan ez dakigula nora jo, arazo batzuk konponbide zailekoak direla, behar berriak etengabe sortzen direla, unean unekoa egin behar dela denbora laburrean, jendeak bereari eusten diola eta ohitura txarrak (edo zuzentzaileok txartzat jotzen ditugunak?) aldatzea zaila dela, indar txikia dugula erdal komunikabideen oldearen aldean, asko itzuli behar dela... Baina, hala ere, asko da egin daitekeena. Eta aitortu behar dugu akatsak egiten ditugunean huts egin dugula. Eta gure ardura ahalik eta huts gutxien egitea da —norbaitek erants lezake hutsegite nabarmen edo puntualik ez egitea ez dela aski, komunikabideetako hizkera-idazkerak egokia, arina, jatorra, atsegina eta hainbat gauza gehiago behar duela izan—. Eta aitortu behar dugu berez ez duela zertan barkagarria izan hutsegiteak. Batzuk larriagoak izango dira, besteak arinagoak, baina barkagarriak ez.



*Ezkerretatik eskubitara:* Patxi Petirena, Antton Aranburu, Miren Azkarate, Igone Etxebarria eta Luzien Etxezaharreta.

Barkaezintzat joko nituzke nik era honetako hutsegiteak:

1.1. Euskal Herriko leku-izenak gaizki erabiltzea. Osasuna futbol taldeak entrenamenduak Taxoaren egiten ditu, ez Tajonarren, herri horrek bere euskal izena baitu. Ez naiz sartuko munduko leku-izenekin, hor oraindik gauzak finkatu gabe baitaude, baina hala ere irizpideak nahiko bideratuak daude.

1.2. Deklinabide sistema aspaldi bateratua da. Beraz, Euskal Herri osorako ari garenoi ezin zaigu barkatu hutsegiterik. Eta egin, egiten ditugu. Ezin dugu, beraz, “arazoetaz” hitz egin, “arazoez” baizik. Eta lur irristakorragoetan sarturik, “Ajuria Eneako” eta antzeko formez ere hitz egin genezake.

1.3. Erdarakadei ez genieke nolnlahi bide egin behar, arriskua etengabea den arren eta kontrola zaila. “Bilera berri bat” egitea ez da oso logikoa euskaraz, pixka bat ohartuz gero.

1.4. Tartean-tartean jardunaldiak egiten dira, hizkuntzalarien irizkiak entzuten edo irakurtzen, lan berriak agertzen dira han-hemen... Informatu egin behar dugu, adi egon. Adituek esaten badute eta hiztegiek jasotzen “bilera erabakiorra” ez baizik “bilera erabakigarria” behar duela, nahiz forma hura oso zabaldua izan, kasu egin beharko genieke. Eta “jakitera eman”, “ezagutzera eman” eta antzekoak oso dudakoak direla esaten badute, saiatu “jakinarazi” eta antzekoak erabiltzen. Jakina da komunikabide eta bideetako hizkerak eragin handia duela, onerako nahiz txarrerako.

Horrelako gauzetarako ez da baliabide askorik behar. Hortik gora ere (adibide batzuk baino ez dira, eta lexiko kontuan nahiz bestetan beste hainbat arazo aipa liteke —Euskal Herri osorako baliagarritasuna, behar gabe hartutako maileguak...—) balegoke nahikoa lan, hizkuntz kalitatea eta komunikagarritasuna hobetzeko nahian. Halaber, bateratasun handiagoa lortu behar genuke, kazetaritza hizkera finkatzeko eta ez nor bere modura ibiltzeko, baina hau bigarren puntuan sartuko dut.

Lehenbiziko puntu honetan aipatutako gaietan eragiteko *Egunkaria*-ren baliabideak hauexek dira: testu guztiak zuzentzen dira kazetariak bukatu ahala, denbora premiak eragotzi ezean. Horrez gain, kazetarietan lan pertsonala egiten dugu, gauza orokorrak jakinarazteko eta bakoitzaren joera txarren berri emateko. Egunkariko orrien barruko bateratasuna zaintzeko eta beharrezko hainbat gauza eskura izateko *Estilo Liburua* erabiltzen dugu, etengabe berritzen ari garena gutxinaka. Eta akatsak argitaratzen ditugu, dudarik gabe. Testuak behin gainbegiratu beharrean birritan egingo bagenitu, lau zuzentzaile izan beharrean zortzi jarri ahal bagenitza, hobeki aterako litzateke, baina beti izango litzateke zer hobetu.

## 2. **Komunikabideen arteko elkarlana**

Seinale adierazgarria da batzuek “huelga” eta beste batzuek “greba” erabiltzea. Horrelako gauzetan ez bagatoz bat, zailagoa izanen da “osoa-rekiko emendakina” eta “osoko zuzenketa” batzea, edo urrutixeago joanez egun batean “con premeditación, nocturnidad y alevosía” bezalako esamolde baten euskal ordaina finkatzea. Eta egunero sortzen dira beharrak. Egoki dirudi, borondatea baldin bada, biltzea eta gauza batzuetan behintzat irizpideak bateratzea. Hortik aurrera, arian-arian ikusiko litzateke.

## 3. **Aholkularitza eta laguntza**

Jakina, komunikabideetan ari garen gehienok ez gara euskaltzainak, eta egunerokoarekin badugu aski lan. *Egunkariaren* ikuspuntutik, komunikabide ezberdinetako ordezkariak bilduko lituzkeen taldetxoan Euskaltzaindiaren partaidetza edo Euskaltzaindiak berariaz izendaturikoarena(ena) beharrezko litzateke. Eta horretarako, bistan denez, nolabaiteko laguntza materiala. Ideia bat da, eta egoki dirudi hemen, Jardunaldi hauetan, plazaratzea. .. lehenago beste norbaitek ez badu egin.



## HIZKUNTZ EGOKITASUNA EUSKAL TELEBISTAKO SAIOETAN

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26*

*Igone Etxebarria Zamalloa*

Euskal Telebistaren, eta beste komunikabide guztien helburu nagusia komunikatzea da, entzule, ikusle edo irakurleekin bat egin, zabaldu nahi den mezua ondo ulertzeko bideak jarritz. Ez dago zalantzarik komunikazio hori lortzeko hizkuntza zuzen erabiltzeak garrantzi eta zeri-kusi handia daukala. Entzule-ikusleek entzuten duten hizkuntza jaso eta bapatean eurenganatu egin behar dute, hizkuntza bitartekoa da komunikazio mota honetan baina inoiz ezin da traba izan. Berez-berez, ia norbera konturatu gabe zuzenean buruan sartu behar da hizkuntza eta beronen edukia.

Euskara zuzen erabiltzea, kalitate onekoa izatea zelan definitu. Nik puntu batzuk ezinbestekoak ikusten ditut: gramatika arau jakin batzuk bete, hizkuntzak berak dituen errekurtsuetara jo, jatortasunari eutsi, erabiltzeko moduaren ondotik ibili, kasuan kasurako adierazpide egokiak aukeratu, eta zentzuz jokatu. Jakina, zerrenda luzatu egin daiteke, baina gutxi gorabehera nondik norako joera den ikusten delakoan nago.

Gaur egun Euskal Telebistan hau guztiau lortzeko berezko arerio batzuk daude derrogrirrez kontuan hartu beharrekoak:

– Saio batzutan gauzak behar bestean lantzeko astirik eza.

– Itzulpena da argi eta garbi kalte gehien egiten duena, baina ezinbestekoa da. Hainbat saio beste hizkuntza batean egin ondoren euskaratu egiten dira (bikoizketa osoa kasurako), eta beste hainbat gauza, hemen bertan sortu arren, erdaraz sortzen dira. Horrez gainera komunikabideek elkarri begiratzen diote, eta beste komunikabide gehienak, eredarrienak tartean direla, erdarazkoak dira.

– Hirugarren areioa guretzat, momentu honetan, sakabanaketa da. Hau da, beste arrazoi batzuk direla-ta. ETBko programazioa talde, pro-

duktora eta behargin katea askoren artean sakabanatuta dago bateratzea eta denari hizkuntza tratamendu bera ematea zailagoa da.

Hau azalduta, beste ohar bat egin beharrean nago. Sarritan entzuten dut esaten “telebistako kazetariak hau eta bestea”, eta horretatik atera dut askotan telebista kazetaritzarekin lotzen dela. Baina topiko hori apurtu egin behar da ze, egun bateko programazio osoari begiratzen badiogu kazetaritzari lotutako denbora proportzioan oso txikia da: egunero hiru albiste-saio, egun batzutan informazioari lotutako beste programaren bat (Iparra, Egunbete, Harira), eta kirolak, kirol-kazetaritza esparru honetan sartuta. Baina gainerako guztia zelan betetzen da: lehiaketak (Hor dago koska, Gezurra nagusi), kulturalak eta saio entretenigarriak (Sustraiak, Hitzetik hortzera, Euskal Herritik, Show show, Boulevard), eztabaidak (Txuribeltz), umeentzako programak (Superbat, Konta ditzagun gezurrak, pailasoak...), hemen sortutako telesail eta umorezko programak (Txokolatex, Duplex), eta bikoizketa (dokumentalak, marrazkiak, filmeak...). Hori guztiori kontuan hartuta ikusiko dugu zenbat lanbide nahasten edo tartekatzen diren telebistako produktzioan: kazetariez gainera, itzultzaile-egokitzailere-bikoizle, gidoigile, aktore, produktore, esatari, aurkezle eta besteren bat ere behar bada. Beraz, ez da egokia telebista kazetaritzarekin huts-hutsean lotzea.

Euskal Telebistak, beste komunikabideen aldean, ezaugarri bereziak ditu: ahozko komunikabidea da, eta hori ezin da inoiz ahaztu. Irudiaz baliatzen da, baina era berean irudiaren menpe dago. Programazio barrietate handia dagoen neurrian giro, egoera, pertsona mota eta leku barrietateak ere ez dauka azkenik, benetako zein fikziozko, gure arteko zein guretzat ezezagun izan. Eta horrek estualdi bat baino gehiago sortu izan digu denoi.

\* \* \*

Gaurko gaiari helduz, lehenengo ta behin euskararen erabilera zuzena gure arlorako zer den zehazten ahaleginduko naiz. Nik zuzentasun hori arlo bitan ikusten dut: alde batetik gramatika arauak betetzea eta zuzentasun gramatikalari buruzko muga batzuren barruan ibiltzea. Baina jakina da gramatika zuzentasunak ez duela jatortasuna ziurtatzen, eta horregatik besete irizpide bat euki behar da kontuan: kontestuaren araberako egokitasuna. Esakera bera kontestu batean zuzen egon arren beste batean baliteke oker egotea, guztiz lekuz kanpo dagoelako. Bi arlo hauek neurtzen zaila da guztiz, bigarrena batez ere. Eta zaila da subjeti-boa delako. Gauza agiriko edo argi batzuk gorabehera, iritzi, gustu eta norberaren erreferentziak daukate eragina, eta emaitza halakoa izango da.

Beti hartu behar da kontuan nork, non eta norentzat esateko den. Nori zuzenduta dagoen, zer programa mota den, pertsonaiaren izakerak zer adierazten duen, saio formala ala informala den...

Adibidez, saio batean kantari batek hartuko du parte eta aurkezleak kantari hori aurkeztu behar du. Giro lasaia da saioan, denak dotore-dotore jantzita, itxura ona eman nahi da, eta orduan aurkezleak esaten du: "Kriston martxa daukan kantaria dugu". Argi eta garbi lekuz kanpo dago.

Edo beste adibide bat: albiste saio batean, kirolari oso ospetsu bati buruz ari direla, esaten dute ospetsuago egin dela aldizkari batean "titi hutsik" agertu zenetik. Ez ote da hobeto esatea "bularrak agirian", edo "gerriz gora biluzik".

Retegik erretiratu egingo dela agertu zuenean, berriz ere albiste saio batean, esan zuten "inor ez denez hazitarako...". Ez ote da gogorregia? Erantzuna baiezkoa nahiz ezezkoa izan daiteke norberaren erreferentzien arabera, baina horrelakoetan, zalantza sortzen den momentutik beste forma batera jotzea dagokigu.

Euskal Telebistan momentu honetan zazpi laguneko taldea ari gara lanean hizkuntza gaietan. Gure helburu nagusia telebistako estiloa sortzea da, lehen aipatu dudan estilo ugaritasunari erantzun ahal izateko. Eguneroko lanean arazo, zalantza eta momentuan erantzun beharreko galdera asko sortzen da, baina ardurarik handienetakoa bateratsu jokatzea da. Hau da, adibidez programa batean esakera bat informalegia delako kentzea erabaki bada ahalegina egin behar da gero beste batean ez sartzeko. Gure zeregina hori da: irizpideak finkatu jendeari helarazi, eta bete daitezela ziurtatu. Gaur egun ez gara den-denera heltzen, eta inoiz, helduta ere ezin dugu ezer egin, denpora, arazo teknikoak edo bestelako arrazoiak direla-ta (lehiaketa izatea...).

\* \* \*

Baina ez naiz luzatuko zer egiten dugun eta zer ez azaltzen (norbaitek zerbait jakin gura balu gero eztabaidan hitz egingo dugu), azken batean gure lanaren emaitza telebistan irteten dena da, eta hori edonork ikus dezake. Interesgarriagoa deritzat zer arazo izaten dugun azaltzeari, eta horrela Jardunaldi hauetatik lanerako bideren bat sortuko balitz, nondik nora jo, edo zeri heldu pentsatzen hasi orduan pista batzuk emanda egongo lirateke.

Berez, nik erantzun edo azalpenak barik galderak dakartzat. Guk galderoi, ondo edo txarto beti ematen diegu erantzuna, ezin gara gauzak

esan gabe geratu, zelan edo halan bota egin behar dira. Baina edozein modutan, erantzun horrek nolakoa izan behar duen denon artean finkatzea litzateke onena batzuk era batera eta besteak bestera ibili ez gaitzen. Hona ba gaietarikoa batzuk:

—Lehenago esan dut Euskal Telebista ahozko komunikabidea dela, eta ahozkoa den aldetik gure erreferentzia liburuak baino gehiago herrian erabiltzen den ahozko hizkera da. Horrez gainera, ezin da inoiz ahaztu nori zuzenduta dagoen, eta publikoaren barruan era askotako ikusle-entzule daudela: leku eta euskalki ezberdinetakoak, zahar eta gazteak, euskaldunzahar eta berriak, eskolatu eta eskolabakoak. Orduan, zilegi da herrian erabiltzen den moduko hizkera erabiltzea telebistan? Zein saio motatan? Zein pertsona motak erabilia? Ahozko euskalkiak sartu bai ala ez? Eta laburdurak? Norainokoak edo zeintzuk? Zein kontestutan? Balio dute hizkuntza mailak bereizteko ala beste bereizketa batzutarako bakarrik erabil daitezke?

—Euskaltzaindiak arau eta gomendio batzuk eman ditu euskara baturako. Ez dago dudarik telebista tresna ezinbestekoa dela arau horiek betiko finka daitezten, eta gainera inork ez du zalantzan jartzen telebista euskara batuan egin behar dela. Baina arau horiek idatziz eta ahoz derrigor beti horrela erabiltzeko eginda daude? Kasu baterako, aurrerantzean beti esan behar da “honetan guztian, eta horrekin guztiarekin”? Beti horrela esan behar bada ahozko hizkera hierrikoiera hurreratzeko eta hango erreferentzia erabiltzeko helburua beteko litzateke? Eta beti horrela esan behar ez bada nork ipini behar du muga, edo nork esan behar du arau edo gomendioa nola interpretatu behar den ondo eta behar den moduan betetzeko?

Honelako beste adibide argi bat aditzen jokoarena da. Euskara baturako aditz laguntzailearen sistema aspaldidanik dago onartuta. Ordutik badakigu subjuntiboa eta aginte erako aditzekin aditz erroa ipini behar dela eta ez aditz partizipioa. Hori ez da beti betetzen, ezta idatziz ere. Honezkero komeniko litzateke argitzea ia arautzat hartu behar den ala ez. Badakigu “utz ezazu” eta “utz iezadazu” aditz jokoak horrela idazten direla ere, baina nola ahoskatu behar dira? Askok esango dute, horrela idatzi behar bada horrela esan; eta beste askok ostera esango dute horrela ez dela inon esaten, eta lehendik ere esateko modu asko dagoenez ez asmatzeko beste ahoskera bat. Iritziak iritzi, orain arte erabilitakoen artean hurrengo hauek: “utz ezazu”rako “utzazu, uztazu, utz ezazu, utzi-zu”, eta “utz iezadazu”rako “utzidazu, utzadazu, utzi zadazu, utz iezadazu”.

Forma sintetikoetan araututakoak “emadazu, esadazu” dira, beraz, “emaidazu, esaidazu” eta antzekoak zuzendu egin behar dira beti?

— Maileguak direla-ta, guk asko erabiltzen ditugu. Batzuk ezenbestean eta beste batzuk euskarazko hitzekin ordezkatzeko modukoak. Baina maileguak ahalik eta gehien ebitatzeko joera hartzea da komenigarriena? Oso leku txikian erabilia, arkaikoa eta esanahia mugatuagoa zeukan hitza gaurko erabilerarako normaltzat bultzatzea hobeto da mailegua hartzea baino? Eta zer esan mailegu euskaratuei buruz? Guk “gailur” hitza zentzu batean erabiltzen izan dugu, gaur egun ostera, “bilera nagusi” esanahia zabaldu da frantsesez eta ingelesez daukan zentzu bikoitzari jarraituz. Hori asko kritikatu izan da, horren ordezkari bilera nagusi esan daitekeelako, baina joera baztertu beharrekoa da? Eta baztertzekoa ez bada, non ipini muga? Hau da, “elkarrizketak puntu hilean daude” esatea zilegi da bide horri berorri jarraituz?

— Euskaldki bakoitzeko hitzen esparrua ezberdin banatzen denean berriz ere aukeratu beharra dago. Adibidez bizkaitar batentzat “behatzez” jatea nahiko zaila eta antojuagarria da, eta gipuzkoar batentzat ostera “lanean ari denari” “lanean dagoela” esatea iraingarri beharbada. Honen harira “etxean dago” eta “lanean dago” desegokitatzat jo izan dira “etxean da” eta “lanean ari da”-ren alde. Honelakoetan gramatika eta hiztegiatar jotzea dago, baina berriro lehengora goaz, hiztegiak normalean idatzitako eruedetan oinarrituta daude eta. Beraz, bereizketak egitea, eta lekuren batean bereizten bada horri eustea da jokabide onena ala beste leku batzutan bereiztu barik erabiltzen denez ez da derrigorra bereiztea? Honelako kasuak ditugu anaia-ahizpa-neba-arreba, gorpu-gorputz, atzamar (eri)-behatz, orduko (aurretik)-orduko (ostean).

— Kanpoko leku-izenak nola esan, horra hor beste buruhauste handi bat egunero egunerokoa. Gaur egun, Elhuyarrek eta Andolin Eguzkizak eta Gorka Palaziok egindako lanei esker badoa arazo hau apurka-apurka argituz eta finkatuz, batez ere nola idatzi behar diren leku izenok. Horrez gainera, gero esta normalagoa da euskarazko lanetan idatzita ikustea ere, eta horrek eragin handia dauka izenak finkatzeko. Baina nola esan, nola ahoskatu behar dira. Toponimia arloko adituen artean, batzuk esaten dute lekuan nola esaten den hala esan behar dela. Adibidez, espainolez Madrid bada eta frantsesez Bourdeaux, guk hala esan beharko genituzke euskaraz ari garenean ere. Baina gure erreferentzia hemengo hitzuna denez beti, ikusten dugu Madril eta Bordele esaten direla. Hori da Elhuyarrek hartutako bidea eta guk ere horri heldu diogu. Baina Brussela, Strasburg, Geneva idatzi orduan ahoskatzeko eredurik ez daukagu herrian. Nola interpretatu behar dira orduan aukeratutako grafia horiek? Gueneva/Jeneva/Yeneva? Jakina, arazoa askoz ere zailagoa da zenbat eta izen ezezagunagoak izan. Arlo honetan uste dut oraindik asko falta dela dena ondo finkatzeko baina oso garrantzitsua da, eta komeni da ahalbait arinen atlas onak atera, eta irakaskuntza, komunikabi-deak eta ostantzeko beste arlo guztiak batera ibiltzea.

— Berba eta esamolde batzuk jatorrizko kontestuan zuten zentzua aldatuta, zabaldua edo moldatuta erabiltzen dira gaur egun. Adibidez, “burutu” “egin”en parekotzat erabiltzen da sarritan, “luzatu” “eskaini, opatu”ren zentzuan, “kaixo”, “izorratu” eta “kriston(a)” edozein kontestutan. Era honetako prozesuak hizkuntzak beraz duen garapenerako joeratzat hartu eta erabilera berriari pasoa utziko zaio ala lehengo erabilera buelatzeko ahalegina egin behar da? Zein kasutan bai eta zeinetan ez? Eta zergatik?

— Umorea, barregarritasuna, txiste errazak egiteko erdarara jotzeko joera oso nabarmena dago, besteak beste errekurtsu gutxi daukagulako guk horretarako (eta dauzkagunak ez ditugulako behar beste ezagutzen). Baina aldi berean hori berori egiten du jendeak kalean. Euskaraz ari garenean parra-parra darabiltzagu “bueno, venga, vale” muletilak, eta osterera, umeentzako programetan asko ta asko erabiltzen direla konturatu gara, eta orain neurritz erabiltzeko aholkua dago. Baina hori nahiko da ala guztiz baztertu beharko lirateke? Eta baztertzekotan zer erabili euron ordez?

— Hika erabili ala ez. Erabiltzekotan noiz, non, zenbat, eta nolako hika. Honetan ere, hika erabiltzeko ohitura dutenentzat ezinbesteko errekurtsua da hika hainbat girotan, erabiltzeko ohitura ez dutenentzat osterera, traba. Telebistak ahozko hizkerari eutsi behar dio eta ezin dio uko egin hikako tratamenduak zabaltzen duen aberastasunari. Baina orduan oso zuhur jokatu behar da batzuen eta besteen arteko oreka litzeko. Esate baterako, umeentzako marrazki bizidunetan egokia da hika erabiltzea? Zenbat umeak ezagutzen du hika? Eta erabili? Bestalde, umeak ume dira baina ez leloak, eta nahiz eta erabiltzeko ohiturarik euki ez, ulertzeko gai dira, beraz, bide hori hika sartzeko erabiltzea komeni da? Sartuko da benetan hika marrazkietan ikusten dutelako?

— Ahoskera eta entonazioa: Zer esan beharko litzateke entonazioari buruz? Eta nola ahoskatu behar dira *j* eta *g* grafiak? (joan, jan, jai, erloju, geologia, gel). Eta “horiek” hitza? Eta bustidurak: baina, isilik, gaisorik...? Hitz hauetan bustidura egiteak gero “bakotxa, ekatxa, hatxa” esateko bidea emango du? Batzuk beste batzuk baino bustidura gehiago erabiltzen dute euren hizkeran, baina non dago muga esateko gorrixka, xamar, horixe, hauetxek eta antzekoak nahiz eta kontestu formalean ibili? Eta, azken batean ahoskera batu (bakartu zentzuan) beharrik badago? Ahoskera bakarra erabiltzea ez ote da bizitasun eta nortasuna galtzea?

Zerrenda hau asko luza daiteke eta luzatu egin beharko da, baina hasteko hainbat gauza dagoela uste dut. Galderetariko batzuk erraz erantzuteko modukoak dira, beste batzuk gehiago zehaztu beharrekoak erantzun ahal izateko, eta beste batzuk dauden-daudenean utzi beharre-

koak. Edozein modutan, euskarak eragina daukan arlo guztietan berdintsu jokatzeari izango litzateke onena, benetan finka dadin. Bestela, eskolan irakatsitakoa alperrekoa izango da gero telebistan ezberdin entzuten bada, eta telebistan egindako ahalegina alferrekoa izango da komunikabide idatzietan txarto agertzen bada, eta abar eta abar katea nahi beste luzatu arte.





**LEHEN JAGON JARDUNALDIEN  
ONDORIOAK**



## I. JAGON JARDUNALDIEN ONDORIOAK

Euskaltzaindiaren Jagon sailak, euskararen erabilera zuzenaren Jardunaldiok direla eta, jendearen aldetik jaso duen erantzuna eta parte-hartze zabala eta adegikorra eskertu nahi du.

Eskerrak emateaz bat, denon gogoetarako, honako ondorio gisakook ere eskaini nahi ditu:

1. Euskararen erabilera zuzena, euskarari eta euskaldunei zor zaien begirunearen ondorioa dugu, batipat jendaurreko agerbideetan.

2. Erabilera zuzenak, nahitanahiez, gidaritza akademikoa eta honen babes juridikoa eskatzen ditu. Erabilera zuzena, beste alde batetik, gizartean gorpuztu behar da, edozein alor eta egoeratako beharrizanei egokituz.

Euskaltzaindia prest dago, berari dagokion heinean, bere aholkularitza eta laguntza emateko.

3. Honela, administrazio desberdinetan, hezkuntza maila guztietan eta komunikabide orotan, euskararen erabilera zuzena garatu eta bermatzeko, beharrezkoa dugu Herri-aginteek, bakoitzak bere esparruan, neurriak eta denetariko baliabideak finkatzea eta honen ikuskaritza sendo eta jarraitua ezartzea. Lan horren emaitzak ezagunak, argitaratuak eta indarrekoak izatea komeni da.

4. Ikuskaritza honek euskararen erabilera zuzenean eragina izan dezan, gomendio eta laguntza-bideen beharra ikusten da lehen aldi batean, zigorbideak ere baztertu gabe.

5. Jagon Saila, eta Euskaltzaindia oro har, zabalik dago, epe labur batean euskararen erabilera zuzenaren inguruan lan gogoetan jarraitzeko, kezka bizia dugun gai honi guztion lankidetzaz aurre egiteko.

*Bilbon, 1994ko otsailaren 26an*



# **EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK**



## **BATZAR AGIRIAK**





## Donostian, 1994ko urtarrilaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Davant, J.-L.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Larre, E.  
Ondarra, P.  
Oyharçabal, B.  
Peillen, Tx.  
Salaburu, P.  
Sarasola, I.  
Satrustegi, J.M.  
Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
Zearreta, J. J., ekonomi eragilea

### Erregelak

Aurreko batzarrean erabaki bezala, 39. artikuluari P. Altunak egin duen al-daketa-proposamena eztabaidatu da, Zuzendaritzak aurkezturiko testuaren idazketaren arabera. Halaber erabili da artikulua horren ondorioz euskaltzain ohorezkoiei dagokiena, oraindik zenbakirik gabea. Lehenengoan, J.A. Aranak eskaturik, *kargua* hitza kendu da eta *euskaltzain oso izatea* esaera ezarri da. *Ezindurik* hitzari buruz ere luzaz mintzatu da. E. Larrek *eginkizunak bete ezinean* proposatu du, baina ez da onetsi. Azkenean, *ezindurik* testuan atxikitzea erabaki da. P. Altunak galdetu du ez ote den sobera zailtzen tokia uztea. B. Oyharçabalek erantzun du Euskaltzaindiaren onetan hobe dela muga horiei eustea. P. Salaburuk proposatu du *dituen arrazoiak adierazteko* hitzak kentzea eta prozedura urtean bi aldiz bakarrik egin ahal izatea, baina ondoren uko egin dio proposamenari. Honako testu hau bozkatu da:

“39. artikulua. 1. Nahiz bizi guztirako izendatua izan euskaltzaina, bere burua ezindurik ikusten badu euskaltzain osoari dagozkion eginkizunak betetzeko, bere gogoz utz dezake euskaltzain oso izatea. Euskaltzaindiak emango dio hiru

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1994ko urtarrilaren 28an, goizeko hamarrek eta erditan, bildu da Euskaltzaidia, aldameneko lerrokadan ageri diren kideak bertan zirela. Ezin etorria adierazi du X. Diharceek.

### Agiria

Abenduko batzar agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoren.

### Barne gaiak

I. Sarasolari dolumina agertu dio J. Haritschelhar jaunak, batzartu guztien izenean, amaren heriotzeagatik. Bestalde, Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariorde izendatu zenetik 25 urte bete direla-ta goresmenak eman dizkio.

hilabeteke epea, dituen arrazoiak adierazteko, eta gero erabakiko du onartzen duen ala ez. Onartua delarik, hurrengo bilkuran euskaltzainburuak iragarriko du hutsarte.

2. Euskaltzain oso izatea utzi ondoren euskaltzain ohorezko izendatuko litzateke, euskaltzain ohien zerrendan.”

E. Larrek X. Diharceren botoa zuela, bozketa egin da eta honako emaitza hau izan da:

Bai: 16

Ez: 1

Zuri: 3

Zenbakirik gabeko artikuluari datzekola, J.M. Lekuona Zuzendaritzak batzarreka ekarritako testuaren alde azaldu da. Hau da bozketara aurkeztu testua:

“Euskaltzain ohorezkoaren artean daude:

1. Euskaltzain oso izandakoak.
2. Beren merezimenduz hala izendatu izan direnak, herritar edo atzerritar-rrak.”

Bozketa eginik, hau izan da emaitza:

Bai: 16

Ez: 1

Zuri: 3

Hurrengo batzarrean aztertu eta onartzeko, 40. artikulutik 50.era bitarteko testu zirriborroa banatu da. A. Irigoyenek esan du boto-ahalaz proposamena eka-riko duela.

### **Hitanoko formen eztabaida**

Hitanoari buruzko erabakizuna prestatzeko aditz batzorde berri bat sortzea eskatu zuela gogoratu du A. Irigoyenek. X. Kintanak Euskara Batuko batzordean parte hartzea eskaini behar dela esan du. P. Altunak erantzun du egitasmoa egi-na dela, honez gero. P. Salabururen ustez, lehenik euskaltzain osoek batzorde guztietan parte hartzeko eskubiderik duten beharko litzateke argitu. Euskaltzain-buruak adierazi du hori erabakia dagoela, ezen batzordeak bi urteoro berriztatzen baitira. M. Azkaratek esan du punturen batean bidea eman daitekeela. Euskara Batuko batzordeak materiala sailkatzen eta bideratzen du, P. Salabururen esane-tan. A. Irigoyenek eskatu du behar den denbora eman dadin. Horrela erabaki da.

Gero P. Salaburuk azalpen laburra egin du, etorri diren oharren gainean. Gaia otsaileko batzarrean erabiliko da.

### **Eskuartekoak**

Euskaltzaindiaren diru egoera larriaz hitz batzuk egin ditu J. Haritschelha-rek. Ondoren, J.A. Arana diruzainak batzarrera ekarritako txostena azaldu du la-

burki. I. Sarasolaren iritziz, Herri Aginteeekiko oraingo hitzarmena txarra da, Euskaltzaindiak behar adineko askatasuna ez duelarik eta papererian denbora asko galtzen baita. P. Salaburuk esan du Akademiak gutuna bidali behar diela agintari. Gaia otsailean ikertuko da xehekiro.

Graciniano Garcíak, Príncipe de Asturias fundazioren zuzendariak, igorri duen gutuna irakurri da. Fundazioak urteoro deitzen dituen sarietarako hautagaiak aurkeztea eskatzen du, martxoaren 31a baino lehen. Mahai gainean gelditu da gaia.

Centre Nationale de la Recherche Scientifique-ko arduradunekin Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaz Parisen, urtarrilak 12, izandako bilkuraren gainean argibidea eman du J. Haritschelharrek. Aspaldian begiz jotako hitzarmena lor daitekeela esan du, lan eta argitalpenarekikoa.

Azkenik, J. A. Aranak Azkue Bibliotekan 1993ko abenduan sartu diren liburuen zerrenda aurkeztu du. 210 liburu dira orotara.

Eta beste gairik ez zela, amaitu da batzarre arrunta, eguerdiko 12.30tan. Ordu horretan, Euskaltzaindiaren 75. urteurrenoko egitarauari jarraiki, Lexikologi Erizpideen Finkapenerako jardunaldia hasi da.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

## BILBON, 1994KO OTSAILAREN 25EAN AKADEMIEN ARTEKO AGERIKO BATZARREA

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Davant, J.-L.  
 Diharce, X.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Arejita, A.  
 Aurrekoetxea, G.  
 Badiola, R.  
 Eguzkitza, A.  
 Gereño, X.  
 Kortazar, J.  
 Lizundia, J.L.  
 Muniategi, A.  
 Oleaga, J.  
 Ruiz Urrestarazu, M.M.  
 Urizarren, P.  
 Urrutia, A.  
 Zearreta, J.J.

Bilbon, egoitzaren beheko aretoan, 1994ko otsailaren 25ean, eguerdiko ordubiak eta erditan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarrea, alboko letrorokadan aipatzen diren kideak bertan zirela. Ezin etorria E. Larrek, B. Oyharçabalek eta P. Ondarrak adierazi dute.

Egungo batzarrea Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren ospakizunaren barruan egin da.

Mahaian jarri dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua; Fernando Lázaro Carrerer Espaineraren Akademiaren zuzendaria; Marino Donega, Galizieraren Akademiaren idazkaria; Joaquim Rafel i Fontanals, Institut d'Estudis Catalans-eko idazkaria, eta E. Knörr Euskaltzaindiaren idazkaria. Euskaltzain oso eta urgazleez gain, aretoan aurkitzen ziren, besteak beste, Jesus Huguet, Valentziako Generalitateko Hizkuntz Politikarako zuzendaria; Aina Moll, Balearretako Hizkuntz Normaltzerako kanpainaren arduraduna, eta Glynn Williams, North Wales Unibertsitateko irakaslea.

J. Haritschelhar mintzatu da lehendabizi. Ongi etorri beroa egin ondoren, Euskaltzaindiaren 75. urteurrena eta Arantzazuko batzarrearen 25.a ekarri ditu gogora, bai eta Iruñean, Nafarroako Diputazioaren jauregian, 1968ko abenduaren 4an egin zen ekitaldia, lau Akademien eta Valentziako Lo Rat Penat eta Balearretako Obra Culturalen ordezkariekin. Ondoren, Euskaltzaindiak beste Akademiekin izan dituen eta orain ere dituen lotura estuak aipatu ditu. Menéndez Pidal, Tovar, Caro Baroja, Azkue, Urquijo, Mitxelena, Piñeiro, Corominas eta

Francesc de B. Moll gogoratu ditu, jakite alorreko eta adiskidetasuneko lotura hauen adibide. Azken 25 urte honetan Espainiako legerian gertatu den eta Frantziakoan gerta litekeen aldaketaz hitz egin ondoren, Euskaltzaindiaren lana azaldu du. Gero, euskaldunak izan beharko lukeen hizkuntzen ezagutza oroitarazi du, eta Salvador Espriuren neurtitzez bukatu:

“Diversos són els homes i diverses les parles,  
i han convingut molt noms a un sol amor”.

Ondoren, Fernando Lázaro Carreterrek hitz egin du. Euskaltzaindiaren sorreran Azkuek Madrilerara egin zuen bidaia, Espainiaren Akademiaren arautegia eta ibilpidea ezagutzeko asmoz, aipatu du. Callejo ministroaren eraginez 1927an egindako izendapenak, beste Akademien ordezkarienak, adierazi ditu, haien artean Azkue eta Urquijo, bi-biak kide oso. Azken hitzetan zorion agiankatu dio Euskaltzaindiari 75. urteurrenkari.

Hurrena, Marino Donega mintzatu da labor, Galizieraren Akademiaren historiari, 1903an Kubako galizierazale batzuen eraginez sortu zenetik.

Azkenik, Joaquim Rafel i Fontanals-ek Institut d'Estudis Catalans-ek dituen egitura eta eginkizunak azaldu ditu, bere sail guztiekin.

### Bilbon, 1994ko otsailaren 25ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.-L.  
 Diharce, X.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.  
 Lizundia, J.L., idazkariordea

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1994ko otsailaren 25ean, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria E. Larrek, B. Oyharçabalek eta P. Ondarrak adierazi dute.

Batzarrea hasi aitzin, Fernando Lázaro Carreter jauna, Espainieraren Akademiaren Zuzendaria, gelan sartu da eta hitz batzuk egin ditu euskaltzainak agurtzeko.

#### Agiria

Urtarrileko batzar agiria onartu da, zuzenketa batekin.

#### Diru egoera

Urtarrileko batzarrean erabaki bezala, Euskaltzaindiaren diru egoera kezgarria aztertu da. Batzartuei emandako txostena J.A. Arana diruzainak azaldu baino lehen, J. Haritschelhar euskaltzainburuak sarrera egin du. Akademiak 1989z gero jasotako diru kopuruan Herri Aginteez ez dutela inflazioa aintzat hartu esan du. Diruzainak egoitzaren xahupenak, ustez baino astunagoak gertatu direnak, aipatu ditu bereziki. Hitzarmen berriari begira (aurtengo abenduan prest egon behar du testuak) Euskaltzaindiak bere proposamena aurkeztuko du, euskaltzainen iritziak jasorik. Bestalde, lehendakariarekin, Nafarroako presidentearekin eta hiru diputatu nagusiekin Zuzendaritzak hitz egin nahi duela esan du J.A. Aranak. P. Salaburuk txostena goraiatu du, baina asmoa eta benetako aurrekontua bereiztea eskatu du.

#### Erregelak

Ondoren, Erregelaren artikuluen azterketari ekin diote batzartuek. 40. artikulutik 48.era Zuzendaritzak proposatu bezala onartu dira. Karguen denbora arautzen duen 48.ari buruz izan da eztabaida luzea. X. Kintanaren ustez, tarte bat izan beharko litzateke karguan zenbait urtez egon ondoren. L. Villasantek azaldu du Euskaltzaindiak bizi izan dituen arazoengatik ez zela inolako mugarik ezarri. Onarpena hurrengo batzarreko utzi da. 49, 50 eta 50 bis onartu dira. Aurreko batzarrean zintzilik gelditu zen artikulua, boto ahalari edo prokurazioari buruz-

koa, ikertu da orobat. A. Irigoyenek bere proposamena irakurri du, kasu berezi batzuetarako bakarrik zilegi izan dadin eskatuz. J. Haritschelharrek berea azaldu du, guztizko askatasunaren alde. Hurrengo batzarrean erabakiko da.

X. atalburua, ordezkartzez, eta XI.a, ordezkariez, onartu dira halaber. M. Azkaratek eskaturik, artikulu berezi bihurtu da proposamenean 24.3 zenbakia zuena, ordezkartza-kontseiluari dagokiona. Zuzenketa honekin onartu da testua.

### Hitanoa

Oso denbora laburra zela esanez hasi da hizketan P. Altuna Euskara Batuko batzordeburua. J. Haritschelharrek gaia aztertzeke egun erdia hartzea proposatu du. X. Kintanaren iritziz, material gehiago behar da ikusi. A. Irigoyentzat, gaia gordin dago eta ikerketa egin beharko litzateke. Txosten luzea aurkeztu du, Leizarragaren adizkiez, eta bertan banatu. P. Salaburuk, berriz, ikerketa zaila dela eta ez lukeela deus onuragarririk ekarriko esan du. M. Azkaratek, ildo beretik, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean eta Orotarioko Euskal Hiztegian lehendik eza-gutzen ez diren gauza berri gutxi aurkituko direla esan du. P. Altunaren ustez, berebat, aukeran diren formak gutxi eta hautatu beharra dago. P. Charrittonek Larzabal zenaren antzerki lanak aipatu ditu ikerketa-gai. P. Altunak erantzun dio lan hori B. Oyharçabalek egina duela. Hurrengo batzarrean ikusiko da gaia berriro. Lehen puntutzat jarririk.

### Eskuartekoak

Hurrengo hilabeteetan izango den egutegia kontuan harturik, X. Kintanaren sarrera ekitaldia aurtengo azaroan egingo dela erabaki da.

Errenteriako Udalak urteoro antolatzen duen Koldo Mitxelena ikerlan sari-kearako J.M. Lekuona izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkari.

M. Karmen Garmendia Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiak egindako gutunari erantzunez, hizkuntz eskakizunen esparruan euskalkien ezagutza neur-tzeko txostena egingo duen batzorde suntsikorra izendatu da: M. Azkarate buru. X. Kintana, Juan L. Goikoetxea, Jose M. Larrarte, Jose A. Mujika eta P. Uriba-  
rren.

J.M. Satrustegik Nafarroako Euskal Herrian Euskaraz elkarteak ordezkartza-  
ra bidali duen ibiltorria azaldu du. Euskararen Legea berriztatzean eraldun ere-  
mua ken dadin eskatzen du elkarte horrek. P. Charrittonek galdetu du ez de-  
nentz biltzen Nafarroan hango euskaltzainen kontseilua. J.L. Lizundiak erantzun  
du kasu berezi batzuetan bildu izan direla hango euskaltzainak Zuzendaritzare-  
kin, hala nola Lege hau berau eztabaidatzen hasi zenean. J.M. Satrustegik gehitu  
du osoko batzarreetara ekarri izan ohi direla horrelako eskariak. X. Kintanaren  
iritziz, Euskaltzaindiak zerbait esan beharko luke. J. Haritschelharrek erantzun dio  
Euskaltzaindia mintzatu dela honez gero gai horri buruz.

Azkue Bibliotekan urtarrean sarturiko liburuen zerrenda aurkeztu du J.A. Arana Biblioteka batzordeburuak. Denetara 181 liburu dira.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria





# **BATZAR-TXOSTENAK**



## **ONOMASTIKA**



## FRUNIZ/FRUIZ

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, emite el siguiente,

### DICTAMEN

Que según el *Nomenclator de los Municipios del País Vasco*, preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 260 y denominado hasta ahora en la versión romance: *Fruniz*, en su versión académica euskérica: *Fruiz*.

Que *Fruiz* es la forma tradicional usual de la población euskaldun o vascófona de la zona, siguiendo la regla general de la toponomástica de la pérdida de la *-n-* intervocálica. Hay decenas de casos en todo el País, de los que se apuntan a título de ejemplo: *Lemoa*, antes *Lemona*; *Lemoiz*, *Lemoniz*; *Laukiz*, *Lauquiniz*, en Bizkaia; *Zestoa*, *Cestona*; *Lazkao*, *Lazcano*; *Arroa*, *Arrona*, en Gipuzkoa; *Miñao*, *Miñano*; *Argomaiz*, *Argomaniz*, en Alava; *Labio*, *Labiano*; *Ledia*, *Liédena*, en Navarra.

Que según acuerdo adoptado por esta Comisión en su última sesión, celebrada el pasado 21 del mes en curso, en su sede de Bilbao, se ratifica que el nombre euskérico de este municipio es *Fruiz*.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido el presente en Bilbao, a veintiséis de enero de mil novecientos noventa y cuatro.

V.B. E. Knörr,  
presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto,  
secretario de la Comisión de Onomástica



**ERLIJIOA**





## EUSKARAZKO BIBLIEN HISTORIAZ

*Donostia, 1994.06.29*

*Joseba Intxausti*

### **ELIZEN ARTEKO BIBLIA-REN ARGITALPENA DELA-TA**

1994eko ekainaren 3an, Donostiako Miramar Jauregian Biblia osoaren elizarteko lehenengo euskal itzulpenaren aurkezpena egin da (1). Horrela, XVI. mendetik datorkigun itzulpen elizbakarren aroari —Leizarraga kalbindarrarekin hasi eta Olabide edo Kerexeta katolikoekin burutu zaigunari— elizarteko lankidetzaren honekin eman zaio gailur ederra (2). Gertakari honen garrantziaz jabetuta, zera diote argitaratzaileek berek:

“Ez da hau euskarazko lehen Biblia; hala ere, ziur gaude beronen argitalpena aparteko esanahia duen gertaera erlijioso eta kulturala dela; hain zuzen ere, hau dugu lehenengo aldia, Biblia osoa hebraieraz eta grekoz idatziak dauden jatorrizko testuetatik euskara batura itzulia ematen denekoa, Eliza katolikoaren eta Eliza protestanteen arteko lankidetzaren anaikorrean egina” (IX. or.).

Hor adierazi diren ezaugarri berriengatik (elizartekoa da, euskara batuan emana), gure Biblien historian leku berezia dagokio itzulpen honi, eta ongi etorriko da geroko ikertzaileei zenbait datu bilduta uztea. Honelako beste lanen historiak ezagutzeko albiste-urritasun nekagarrikeri ere nozitu duenak, jakin, badaki zein aringarria izan litekeen berriemate

---

(1) Argitalpenaren aurkezpenerako deia, Euskal Elizbarrutietako Gotzainek eta Bibli Elkarte Batuetako ordezkariak egin zuten. Aurkezpen-mahairako deialdian iragarritakoak: J. M. Rementeria, D. Amundarain, C. Buzzetti, J.L. Andavert, J. de Waard, M. Luna eta J.M. Setien. (Baina J. de Waard ez zen aurkezpenean egon, beronen ordeiz I. Mendoza egon zen).

(2) (1994): *Elizen arteko Biblia*. Lazkao/Donostia: Bibli Elkarte Batuak/Euskal Elizbarrutiak. (ik. VI. orrialdean argitaratzaileen xehetasun guztiak). Atarikoak: I-XXIII or.; Itun Zaharra: 1.478 or.; Itun Berria eta Osagarriak: 514 or.; 9 mapa eta plano, koloretan. (Osagarrien artean zera sartu da [415-514. or.]: “Bibli hiztegia”, “Aurkibide analitikoa”, “Euskalkien arteko hiztegia”, “Taula kronologikoa” eta “Leku-izenen aurkibidea [mapak]”).— Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Lurralde Kontseiluaren dirulaguntzak jaso ditu argitalpen honek. Edizioa: 15.000 aletarako asmoa (lehen ekinaldian, 7.100). Salneurria: 1.854 pta.

xehe bat eskura izatea. Nork ez luke ongi ordainduko gaur, adibidez, Leizarragaren lan-egunkariaren bat eskuetan izatea? Ondoko lerroen bidez, ba, *Elizen arteko Biblia* honen itzulpenaren lan-oroimena gordetzen lagundu nahiko litzateke. Horixe, eta besterik ez, inolako kritika-zereginetara pasatu gabe.

Beste hizkuntza askotan bezala, gurean ere euskal prosaren lehen urrats literarioak Bibliaren itzulpen baten arrastoan etorri zaizkigu (Leizarraga: *Testamentu Berria*, 1571). “Ez da hau euskarazko lehen Biblia” esan digute azkeneko beste horren argitaratzaileek, eta egoki izango da lehenagoko itzulpenen egileak gogoratzea: Duvoisin (Londres, 1859-1865), Uriarte (Londres, 1859-1868: partez bakarrik argitaratua), Olabide (Bilbo, 1958) eta Kerexeta (Bilbo, 1976, 1993).

Euskarazko liburuaren katalogo historikoetan Bibliaren edo beronen atalen euskal itzulpenek leku duin bat izan dute beti (3), eta azken urteetan han-hemenka izan da itzulpen horien historia orokorki azaldu digunik (4). Ez naiz, ba, historia orokor hori errepikatzen hasiko.

Bestalde, ikerlan monografikoagorik ere egon da, Leizarraga, Duvoisin eta abarri buruz (5). Aldizkari honetan bertan ikus liteke euskal Bibliari buruzko zenbait ikerlan edo berriemate (Etxezarreta 1981). Ondoko orrialde hauetan, monografia horien bidetik joango naiz, euskaraz argitarara eman den Biblia osoaren laugarren argitalpenaren historia hurbila jasotzeko asmoz.

---

(3) VINSON, J. (1983): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Bilbo: C. de Ahorros Vizcaina. (1891ko edizioaren faksimila). Ik. “Table méthodique” delakoan “Bible et Nouveau-Testament” (454-455). XX. mendekoaz, oster: TORREALDAI NABEA, J.M. (1993): *XX. Mendeko euskal liburuaren katalogoa (1900-1992)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 189-193 (035 epigrafea). Beste zentzu batean Bonaparteren argitalpen eta eskuizkribuek ere badute interesik franko gure hizkuntza idatziaren historian (eta dialektologian), Bibliari eman izan zaion leku ezagutzeko: GONZALEZ ECHEGARAY, C.; ARANA MARTIJA, J.A. (1989): *Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte*. Bilbo: Euskaltzaindia. Eta inprimatuen artean: BONAPARTE, L.-L. (1991): *Opera Omnia Vasconice*. Bilbo: Euskaltzaindia (4 lib.). Bonaparteren eskuizkribuetan geratu zitzaizkigun lanen argitalpena, in.: PAGOLA, R.M. ; GONZALEZ, S.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J.; MALLONA, A. (1992): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Bizkaiera, 3. lib.). PAGOLA, R.M. ; BEOLA, A.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J. (1993): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Gipuzkera, 6. lib.). Batzere haren daude bilduta Uriarte-ren lanak.

(4) (1978): “Biblia”, in: EGIPV. Donostia: Auñamendi. AKESOLO, L. (1989): “Euskera eta Biblia”, in: *Idazlan guztiak*. Larrea-Zornotza: Karmel. II, 823-903. LAFITTE, P. (1958): “Biblea Eskual Herrian”, in: *Euzko-Gogoa*. 9, 1958, 495-501. SAN MARTIN, J. (1981): “La Biblia en euskara”, in: *BRSBAP*. XXXVII, 1981, 602-608. ZABALETA, J. M. (1988): “Biblia itzulpena Euskal Herrian. Historia apur bat”, in: *Senez*. IV, 1988, 51-92. (Argibide osagarriak: ib., 165-170; 171-178).

(5) Adibideak aski ugariak dira: Lafont, Lafitte eta Ruiz Arzalluz-ek Leizarragari eskainiak, Orixe eta Altuna-k Olabideri, X. Mendiguren eta Akesolok Duvoisini, etab.

Hemen hizpide dugun elizarteko itzulpen-asmoaren inguruan zenbait bilera eta harreman izan ondoren (6) lanari ekin zitzaionetik hamaazapi urte bete dira (7): hain zuzen ere, 1977an, Arantzazun egindako mintegi baten ondoren, eman zitzaion Dionisio Amundarain-i lantaldearen bateragile-lana. Gerora erabakiorra gertatuko zen hori. Irizpide nagusienak ere onartuta geratu ziren orduan: a) Itzulpenak biblilarien eskutik joan beharko zuen, eta jatorrizko hizkuntzetatik egingo zen (8), eta b) Euskal hizkera berrikusteko euskalki eta Eliza desberdinetako lankideek izan beharko zuten tartean (9).

*Elizen arteko Biblia*-ren testua bi epealdi nagusitan landu da: a) Lehenengoan, Itun Berriaren itzulpena egin da (1977-1983), eta b) Bigarrenean, Itun Zaharra itzultzeaz gain aurreko epealdian eginiko IBren itzulpena berrikusi eta berregokitu da (1986-1993). Bi une horien historia deskribatuko da, ba, hemen.

## 1. ITUN BERRIAREN ITZULPENA (1977-1983)

Hiru lanalditan egin zen Itun Berriaren itzulpena, une bakoitzean lankide eta zeregin desberdinekin. Hona urrats nagusi horiek: a) Oinarrizko lehen itzulpena. b) Testu itzuliaren bateratze-lana. c) Testuaren berrikusketa, eta d) Elizarteko kontsultak eta edizio-ardurak (10).

(6) *Jakin* taldeko Agirrebaltzategik eta bestek, D. Amundarain-ek eta abarrek, argitaletze berean lehendik izandako bi esperientziari —oraingoa, euskara estandar baten bidetik— segida emateko asmoa ere izan da elizarteko Biblia honena (gogoan izan Goitia-Mendizabal-en *Lau Ebanjelioak*, 1961; Nimegako Katekesi Institutuaren *Kristau Bidea*, 1975).

(7) Dionisio Amundarain-i zor dizkiot bukatu den lan honi buruzko albisteak. Eske-rrik asko lantaldearen paperak eskuzabalki pasa dizkidalako. Zenbait xehetasun E. Etxezarreta, J. Apezetxea eta abarri eskatu diet. Guztioi eskerrak. Irakurle interesatuak taldeko bi lankideren berriemateak ikusi besterik ez du, hemengo aipu laburra osatzeko: AMUNDARAIN, D. (1988): "Elizen arteko Bibliaren itzulpen taldea", in: *Senex*. IV, 1988, 97-109. OLAIZOLA, J.M. (1992): "Elizen arteko Biblia euskara batuan", in: *Plazara*. VIII, 1992, 19. z., 6-8. (Irungo Udala). *Elizen arteko Biblia* honen itzulpen-historia xehea ezagutzeko, aurkezpen egunean izandako hitzaldien argitalpena izango du laster irakurleak (eta historilariak gerora, baita Amundarain-en argitaragabeko lan-egunkaria ere).

(8) Itun Berriaren lehen itzulpenean (1977-1983), ondoko beronen berrikusketa guztietan (1986-1993) eta Itun Zahararen itzulpenean erabilitako abia-testuak zerak izan dira: Itun Zaharrerako: (1967-1977): *Biblia hebraica Stuttgartensia*. Stuttgart.— Itun Zaharreko liburu deuterokanonikoetarako: (1931-....): *Septuaginta, Vetus Testamentum Graecum*. Göttingen. Eta: (1965): *Septuaginta*. Stuttgart.— Itun Berrirako: (1975): *The Greek NT*. Stuttgart. Hauen ondoan, lagungarri, Bibliaren itzulpen moderno eta landuenak egon dira, noski.

(9) Itun Berrirako lehen ekinaldian 16 lagun bildu ziren, exegeta, itzultzaile eta berrikusleen artean (1978ko urtarrilean).

(10) D. Amundarain-en 1983-11-29ko berriemate batean ageri dira hemen jasoko ditugun xehetasunak.

a) Oinarrizko itzulpenerako Bibli liburuetako itzulkizunen banaketa zehatza egin zen sei lankide-multzoren artean, beti ere bakoitzean exegeta eta euskal idazleak elkarrekin lanean jarriz (11).

### Itun Berriaren exegeta-itzultzaileak (1977-1983)

Lankideak	Ardura	Itzulitakoak
Pedro Nuñez Jesus M. Arrieta Dionisio Amundarain	Exegesia Euskara Euskara	Jn, 1 Jn, 2 Jn, 3 Jn, Ap
Kasimiro Pérez Mikel Plaza*	Exegesia Euskara	Erm, 1 Ko, 2 Ko, Ga, 1 Ts, 2 Ts
Kasimiro Pérez Jose L. Aperribai	Exegesia** Euskara	1 Tm, 2 Tm, Tt, Flm
Ramon Irizar Jose Arregi	Exegesia*** Euskara	Mt, Mk eta Lk, Eg
Jose Goitia Jose A. Gandarias	Exegesia Euskara****	Heb, St, 1 P, 2 P, Ju
Joan Apezetxea Jesus M. Arrieta	Exegeta Euskara	Kol, Flp, Ef

\* Arraiozko Erretorea: 1984-11-22an hil zen. Goian bego.— \*\* Hasieran J.A. Pagola ere tartean zen, baina Bikario Nagusi izendatzean, utzi egin behar izan zuen taldea.— \*\*\* J.L. Elortzak lan-arrazoiengatik utzi egin behar izan zuen taldea.— \*\*\*\* Hasiera batean, F. Mendizabalek ere parte hartu zuen.

Ikus daitekeenez, exegeta bakoitzari bere eremu berezituagoa eman zitzaion: San Joan-enak Nuñez-i, Ebanjelio sinoptikoak Irizar-i, etab (12). Exegeta eta euskalarion talde-lana hainbat irakurle hautaturen eskutara pasatu zen, gainera, bateratze-lanetan hasi aurretik.

(11) Koordinatzailearen artxibotik jasotako datuak.

(12) Datu osagarri bezala: P. Nuñez, sakramentinoa da; J. L. Aperribai eta J.M. Arrieta (Donostia), J. Apezetxea eta M. Plaza (Iruñea), Elizbarrutietako apaizak; D. Amundarain, Lazkaoko beneditarra; R. Irizar, J. Goitia, J. A. Gandarias eta J. Arregi, frantziskotarrak; K. Pérez (Felipe Hondarribikoa), kaputxinoa.

b) Bateratze-lana izan zen bigarren lanaldia: talde finko baten inguruan burutu zen Itun Berriko oinarrizko itzulpen guztien bateratzea, eta unean uneko itzulkizunari zegokion lankide-multzoaren ordezkari bat bildu izan zen bateratze-talde finkora (13). Berriz ere irakurle hautatuiei luzatu zitzaizen bateratutako testua, Itun Berriko testu honi beren ohar-erak egin ziezazkioten.

c) Berrikusketak-lana izan da testu-prestakuntzaren azken lanaldia: aurreko talde bateratzailearen emaitzaren gain egin zen lan, testuaren estiloa berrikusiz, testu paraleloak alderatu nahiz adostuz, etab. Iharduera hau sei lagunengain joan zen (14). Horrela, azkenik, 1983ko lehen hilabeteetan burututa zegoen Itun Berriaren itzulpena, moldiztegirako prest.

d) Elizarteko lankidetzak eta edizioaren ardura: Elizarteko exegesi-lankidetzak, bileratan eta horretarako kontsulten bidez bete zen (15). Setien Donostiako Gotzain jaunarekin Bibli Elkarte Batuko De Waard eta I. Mendozak, eta Olaizola eta Amundarain-ek egindako bileran eratu zen edizio-aurrezpenetarako batzordea (16). Data berean, moldiztegitik lan teknikoaren ardura Bibli Elkarte Batuko Erwin Zimmermann-en eta D. Amundarain koordinatzailearen eskuetan geratu zen.

Horrela, irten zitekeen, ba, egun-argitara lan bukatu berria: 1984ean jarri zen lehen edizioa kalean (1983ko Lege-gordailuarekin) (17), eta behala etorri zen bigarren edizioa ere: 1987 (18).

---

(13) Talde finko bateratzaileko lagunak hauek izan ziren: D. Amundarain (koordinatzailea), K. Pérez (exegeta), J.M. Arrieta eta J. Arregi (gipuzkera), J.M. Rementeria (bizkaiera), eta Iparraldeari begira, P. Andiazabal lehenik (lapurtera) eta M. Plaza baztandarra gero. Lanaldi honetako iharduera bereziki nekosotzat jo izan da, hasierakoa zelako, noski, eta artean, lan-irizpideak helduegiak ez zeudelako ere bai.

(14) D. Amundarain, K. Pérez, J.M. Arrieta, J. Arregi, M. Plaza eta J.M. Rementeria.

(15) Adibidez, Lazkaon 1981ko otsailean egindako lan-biltzarra: D. Amundarain koordinatzailearekin Artzain protestante hauek lan egin zuten: I. Mendoza (Bibli Elkarte Batuen ordezkaria Madrilen), J.M. Olaizola (Donostiako Artzaina) eta J. García (Bilbon Artzaina). Bigarren bileran, I. Mendoza, Jan de Waard (Bibli Elkarte Batuen ordezkaria Europan), J.M. Olaizola Artzaina eta D. Amundarain bildu ziren Donostian, argitalpenari ekin aurretik (1982-03-23). De Waard-ek, protestanteen aldetik, eragozpenik gabe aurrera egin zitekeela uste izan zuen.

(16) Batzordekideak: J.M. Olaizola eta I. Mendiguren (ebanjelikoak), J.A. Pagola eta D. Amundarain (katolikoak).

(17) (1984): *Itun Berria. Elizen arteko Biblia*. Lazkao: Pax. 680 or. 4.159 ale. Lazkaoko beneditarren artean eman zen, beraz, argitara, izan ere itzultzaileek nortasun juridikorik ez zuten, Bibli Elkarte Batuak ere ongi ikusi baitzuen horrelaxe egitea.

(18) 3.183 aletako edizioa: zuzenketa ugari egin zitzaion aurreko argitalpenari.

## 2. BIBLIA OSOAREN (BIR)PRESTAKUNTZA (1986-1993)

“(Bir)prestakuntza” diogu, zeren, esan bezala, bi lan-molde egin baitira lanen bigarren epealdi honetan (1986-1993): a) Itun Zaharraren itzulpena, eta b) 1983an argiratutako *Itun Berria. Elizen arteko Biblia*-ren testu-berrikusketa (19). Horretaz berri ematen hasi aurretik, ordea, ongi etorriko da hau dena samurtu duen inguru bibliko-instituzionalari buruz zerbaite esatea.

### 2.1. Elizarteko lankidetzarako egokiera

Euskal Herria ez da geratu azken hamarkadetakoa mugimendu bibliotikotik baztertuta edo urrundurik. Besteak beste (Liturgi testuak ditugu gogoan), izan ere hemen bere historia idazten diogun Bibli edizio honetatik aparte, izan dugu euskaraz bide hori urratu duen kideko argitalpenik. Eta arrakasta nabarmenarekin, gainera: sei ediziotaraino iritsi da Elizbarruti Arteko Liturgi Euskaratzailearen Taldeak prestatutako *Itun Berria* (1980-1993) (20), eta hor dago J. Kerexeta-ren bizkaierazko lan ugari eta, guztien gaineratik, beraren *Euskal-Biblia*, bi edizioekin (1976, 1993) (21).

Hortaz, euskarazko Biblia itzulpen katolikoan munduan zuzperraldi nabaria izan da, egindako itzulpenetan ezezik, berauen edizio-hedapenean ere. Vatikanoko II.aren Liturgi herritartzeak (22) eta katolikoan hizkuntza politika ofizial berriak zerikusi zuzena izan dute horretan (23).

Baina Eliza katolikoaren lege eta aldakuntza praktikoa orokorren ondoan zuzenago elizarteko Bibliaren itzulpenak errazteko pausorik ere eman da elizen erakundeetatik, protestanteen artean noski, baina baita

---

(19) *Elizen arteko Biblia* 1994: XI.lean zera esaten da: “lehen argitalpeneko Itun Berriari berritu sakona eman zaio, liburu guztiari batasuna eman beharrak eraginda”.

(20) (1980): *Itun Berria*. Donostia: Idatz. Ondoko argitaraldiak: 1984, 1988, 1989, 1991, 1993. ETXEZARRETA, E. (1981): “Euskal Elizbarrutiarteko *Itun Berria*”, in: *Euskera*. XXVI, 1981, 199-217. ETXEZARRETA, E. (1988): “Liturgiako Itzulpen Batzordearen *Itun Berria*”, in: *Senez*. IV, 1988, 111-129.

(21) KEREXETA, J. (1976): *Euskal-Biblia*. Bilbo: Ed. Belgas. Gainerakoen xehetasunak: Torrealdai Nabea 1993: 189-193.

(22) VATICANO II (1962): *Constitución «Sacrosantum Concilium» sobre la Sagrada Liturgia*, in: VATICANO II (1967): *Historia, doctrina, documentos*. Barcelona: Editorial Regina. (Hizkuntzarekikoak: 69, 224, 225, 245-247: 37-40.z.).

(23) PARDO, A. (1992): *Enchiridion. Documentación litúrgica posconciliar*. Barcelona: Editorial Regina. BUGNINI, A. (1983): *La riforma litúrgica (1948-1975)*. Roma: CLV-Edizioni Liturgiche. (Hizkuntzari buruzkoak: 34-36, 45-46, 69-70, 108-121).

orain gutxi arte egiteko hori zailago onartzen zuten katolikoan artean ere (24).

Horren ondorioz, itzulpen-lan hauetarako elizarteko jokabide instituzionala finkatua geratu zen 1968an, eta birretsia, 1987an, Kristau Batasunerako Idazkaritza Katolikoak eta Bibli Elkarte Batuek —erakunde protestantea berau— elkarrekin batera onarturiko arauetan (25). Lanerako arau horien ildotik joan da, geroztik, hainbat hizkuntzatako itzulpen moderno, eta sortutako eredu berriok (26) gogoan hartu ahal izan ditu elizarteko euskal taldeak ere.

Egokiera ofizial horrek ez zuen, ba (are gutxiago, elizarteko Itun Berriaren ondoren: 1984), hurrengo egitekoari ekitea batere eragotzi, lagundu baizik. Bestalde, Bibliaren gaurkotasan erlijioso-kultural eta editoriala —betiere, gaurkotasan erlatiboa, noski— eta prezeskiago, elizarteko Itun Berriari egin zitzaion harrera ona ikusita lanari segida zor zitzaion.

## 2.2. Elizen arteko Biblia: lehen erabakiak

1983az geroztik lankidegoa geldi baina lanean jarraitzeko prest zegoela jakinik, Itun Zaharraren itzulpenari heltzea pentsatu zuen Itun Berriari ihardundako elizarteko lantaldeak. Oraingoan katoliko-protestanteek Euskal Herritik bertotik egin zioten lankidetzarako deia Bibli Elkarte Batuari (27).

1986ko maiatzaren 2ko bileran baiezko erabakia hartu zen, besteak beste J. de Waard eta T. Hartberg protestanteak tartean zirela. Lana bideratzeko lehenengo mintegia Lazkaon bildu zen, J. de Waard eta C. Buzzetti gidari zirela (1986-09-2/5): bi exegeta, bost itzultzaile (gero, batak ez zuen jarraitzerik izan), hiru berrikusle eta koordinatzaile bat izan

---

(24) FESQUET, H. (1967): *Diario del Concilio*. Barcelona: Editorial Nova Terra. (aurkibideetan: 1296-97. or.: ikus frantses eta gaztelaniako itzulpen ekumenikoen lehen pausok: 1.025 eta 1.185. or.).

(25) Lehen akordioaren izenburua: "Directivas para la cooperación de miembros de diversas confesiones en la traducción de la Biblia". United Bible Societies/Secretariat for Promoting Christian Unity-k izenburu honekin eman zuten: "Guiding Principles for Inter-confessional Cooperation in Translating the Bible. (June 1968). 1978ko akordio birretsia: "Normas para la cooperación interconfesional en la traducción de la Biblia". Roma: Tipografía Poliglota Vaticana.

(26) *Parola del Signore*, esate baterako, Itun Zaharraren itzulpenean eta Itun Berria berrikustean.

(27) 1986ko apirilaren 6ko gutuna.

ziren mintegian (28). Bukaeran, Itun Zaharraren itzulpenari ordutik bertatik heltzea erabaki zen.

Ondoko lan-urteetan astebeteko bina mintegi egin izan ziren, udaneguetan (29). 1986ko abendutik aurrera Carlo Buzzetti izango zen euskal itzulpen honetarako Bibli Elkartearen ordezkari-aholkularia.

### 2.3. Exegeta- eta itzultzaile-taldea: Lan-banaketa

Hortik aurrera, aro berria ireki zen itzulpengintza honetan: Ordura arteko esperientzia gogoan izanik (30), talde mugatuago baten inguruan jarri zen egitekoaren ardatza.

Taldea hauek osatu zuten: bi exegeta itzultzaile (31), bost itzultzaile (32), hiru berrikusle (33) eta hainbat irakurle hautatu (34). Guztiaren koordinatzaile eta eragile nekazina —berdin Itun Zahar nahiz Berrian— Dionisio Amundarain gertatu zen berriz ere. Bibli Elkarte Batuetatik behatzaile eta teknikari bezala lau lagun izan dira, bereziki lanen segimendua egiten (35).

Lankideen egitekoak honela banatu ziren, oraingoan (36):

---

(28) Exegetak: K. Pérez eta R. Irizar; itzultzaileak: J.M. Arrieta, J.L. Aperribai, E. Zabala, I. Mendiguren eta J. Otaegi (gero jarraitzerik izan ez zuena azken hau); berrikusleak: J.M. Rementeria, L. Zugazaga, J.M. Olaizola; koordinatzailea: D. Amundarain. (J. Arregi-k ez zuen bilerara etortzerik izan).

(29) D. Amundarain-ek utziriko albisteak: “Traducción de la Biblia al euskara. Algunos datos” deritzanean.

(30) Itun Berriaren lehen itzulpen-taldeko batek zera idatzi zuen: “Itun Berria itzultzean, lan-iharduera oso astuna izan zen: lankide askoko bilera asko egin beharra. Itun Zaharrari ekitean, lan-iharduera arindu egin nahi izan zen, emaitzaren kalitateak ezer ez noizteko moduan, ordea”.

(31) Ramon Irizar eta Kasimiro Pérez (Felipe Hondarririkoa).

(32) J.L. Aperribai, J.M. Arrieta, J. Arregi, I. Mendiguren eta E. Zabala.

(33) J.M. Rementeria, L. Zugazaga (azken hau liburu batean itzultzaile, gainera), J.M. Olaizola.

(34) M. eta B. Amundarain, M.K. Iturriotz, M.J. Zubiarrain, J.M. Sarasua, J. Azpillaga. Horienaren ondoan, batez ere Donapaleuko J.J. Iturriotz eta P. Erdozaintzi-rena azpimarra daiteke: lehenik, beren iharduera pertsonalagatik eta gero, Iturriotz-en gutun baten arabera (1993-03-03), inguruan bildutako hamalau lagunetako taldean egindakoagatik.

(35) J. de Waard, J.L. Andavert, T. Hartberg eta C. Buzzetti.

(36) Ondoko laukietan doazen zertzeladak D. Amundarain-en “*Elizen arteko Biblia. Lan-iharduera eta itzultzaileak*” deritzan txostenetik bildu ditugu (1994-06-27an jasoa).



**Itun Zaharraren exegeta-itzultzaileak (1986-1993)**

<b>Lankideak</b>	<b>Ardura berezia</b>	<b>Itzulitakoak</b>	<b>Orrialdeak*</b>
Irizar, Ramon Arregi, Jose	Exegesia Euskara	Sal, Is, Ab, Ag, Hab, MI, So, Os, JI, Jon, Nk	308
Irizar, Ramon Zabala, Enrike	Exegesia Euskara	Jr, Ba, Jr gt, Dn gr, Dn, Mi, Na, Esd, Ne	243
Irizar, Ramon Mendiguren, Iñaki	Exegesia Euskara	Jb, Ez, Jkd, Si, Es	313
Irizar, Ramon Aperribai, Jose L.	Exegesia Euskara	Has, Ir, Zen, Lb, Dt, Rt*	358
Irizar, Ramon Arrieta, Jesus M.	Exegesia Euskara	Jos	45
Irizar, Ramon Otaegi, J.	Exegesia Euskara	Am	13
Irizar, Ramon	Exeg./ Euskara	Kant. Ederrena	11
Irizar, Ramon Zugazaga, Lorentzo	Exegeta Euskara	Za	18
Pérez, Kasimiro Arrieta, Jesus M.	Exegeta Euskara	Ep, 1 M, 2 M, Est, Est gr, Tb, Jdt, 1 Kro, 2 Kro, 1 Erg, 2 Erg, Koh, 1 Sm, 2 Sm	615
		Orotara (orr. originalak) ...	<b>1.924</b>

\* Orrialdeak, itzultzailearen jatorrizko lanaren arabera ematen dira (ez edizioaren arabera)

**Itun Berriaren itzulpen-berriztatzaileak (1986-1993)\***

Lankideak	Itzulitakoak	Orrialdeak
Arregi, Jose	Mt, Mk, Lk, Eg	432
Mendiguren, Iñaki	Jn, 1 Jn, 2 Jn, 3 Jn, Ap	174
Arrieta, Jesus Mari	Erm, 1 Ko, 2 Ko, Ga	135
Aperribai, Jose Luis	Ef, Flp, Kol, 1 Ts, 2 Ts, 1 Tm, 2 Tm, Tt, Flm	83
Zabala, Enrike	Heb, St, 1 P, 2 P, Ju	70
	Orotara (orr. originalak) ...	<b>894</b>

\* Ikus, ondoko testuan, exegesiari eta bigarren lanaldi honetako IBko exegetari buruz dioguna

Biblia osoaren edizioko Itun Berriaren berriztapenean exegeta bakar batek egin zuen lan (K. Pérez gaixorik gertatu zelako): Ramon Irizar-ek. Bestalde, elizbarruti edo erlijioso-elkarte desberdinetako lankideak bildu dira Bibliaren itzulpen hau burutu ahal izateko, eta datuak izan lezake interes sozio-kulturalik, bereziki bakoitzak ekarri duen euskalkia edo lan-zama gogoan har badadi (37).

Bibliaren ediziorik soilduenean ere, egitekoa ez da bukatzen testuen itzulpen hutsean. Biblia edizioak hainbat lagungarri-osagarritz hornituta egin ohi dira, eta euskarazko honetan ere halaxe gertatu da. Sinatugabeko lan horietako autoretzak hauek dira (38):

---

(37) Arestian esandakoak osatuz: D. Amundarain, beneditarra da (itsasondoarra); R. Irizar, frantziskotarra (oñatiarra); K. Pérez, kaputxinoa (hondarribiarra); E. Zabala, beneditarra (abaltzisketarra); J.M. Arrieta, Elizbarrutiko apaiza (donostiarra); J. Otaegi, sakramentinoa (lasartearra); L. Zugazaga, Elizbarrutiko apaiza (durangarra), J.L. Aperribai, Elizbarrutiko apaiza (bergararra); J. Arregi, frantziskotarra (azpeitiarra), eta I. Mendiguren, ebanjelikoa (ezkiotarra).

(38) AMUNDARAIN, D. (1994): *“Elizen arteko Biblia. Lan-iharduera eta itulztaileak”* txostena.

**Hornidura kritikoa eta testu lagungarriak**

<b>Egilea</b>	<b>Idazlana</b>
Amundarain, Dionisio	“Aurkezpena” (XI-XII. or.) “Irakurlearentzat argibide teknikoak (XXI-XXIII.or.) “Aurkibide analitikoa” (oinarrizko zerrenda) “Euskalkien arteko hiztegia” ( <i>cf. infra</i> )
Irizar, Ramon	“Bibliari sarrera orokorra” (XIII-XIV. or.) “Itun Zaharra. Sarrera” (3-7. or.) “Itun Berria. Sarrera” (3-5. or.) IBren hornidura kritikoaren birmoldaketa “Bibli hiztegia” (417-452. orr. Lehengo IB-koaz baliatuz) “Leku-izenen aurkibidea” (509-514. or.; <i>cf. infra</i> )
Zabala, Enrike	“Aurkibide analitikoa” (zehaztapen-erreferentziak)
Donapaleuko taldea, Rementeria-Zugazaga	“Euskalkien arteko hiztegia” (481-500. or.; <i>cf. supra</i> )
Mendiguren, Iñaki	“Taula kronologikoa” (501-507. or.) “Leku-izenen aurkibidea (Mapak)” (509-514. or.)
Oinarrizko itzultzaileak	Liburu bakoitzari sarrera Liburu bakoitzari oharrak eta erreferentziak

**2.4. Bigarren aroko lan-prozedurak**

Talde horrek ez du jardun lanean lantegi jakin batean iraunkorki horretarako elkartuta, eta lankideek ez dute ogibidez horretan jarduterik izan (39). Bibliako liburu hain desberdinetan eta horrelako lankidego za-

(39) Salbuespen nabariena R. Irizar-ena izan da, eta denbora mugatuagoan K. Pérez-ena eta, oro har, exegetena. Beste gisa batean, D. Amundarain koordinatzailearena.

bal horrekin lan egin ahal izateko premiazkoa izan da lan-antolamendu eta itzulpenen iharduera egokiak eratzea (40).

Koordinatzailearen eskutik jasotako ohar-albiste honek laburtzen du honetan egin den bidea nondik norakoa izan den:

Itun Berriaren kasuan bezala, lehenik exegeta eta itultzaileekin bikoteak egin dira liburu diferenteen oinarrizko itzulpena prestatzeko; beraz, exegeta baktek oinarrizko talde ezberdinetan egin behar izan du lan.

Oinarrizko itzulpena prestatzean, testua koordinatzaileak hartzen zuen. Batzuetan taldeko guztiei helarazten zien testua; beste batzuetan, berak egindako zuzenketa-saila proposatuz, oinarrizko taldeari itzultzen zion, testu berriua hartzean, talde guztiei helaraziz.

Taldekoen zuzenketa koordinatzaileak jaso eta oinarrizko taldekoei helarazten zizkien, testu berriua prestatzeko. Testu berri hau koordinatzaileak taldeko guztiei eta "irakurleak" izenekoei bidaltzen zien.

Testu berriuari egindako zuzenketa oinarrizko taldekoei helarazten zizkien koordinatzaileak.

Testu ber-berriua jasotzen zuen koordinatzaileak eta batzarre orokorrerako prestatzen (urtean bi aldiz egin izan dira batzarre orokorrak, astebeteko txandak eginez).

Batzarreetan, batzuetan (gehienetan) testu osoa berrikusten zen, batzuetan sakonago, besteetan lasterrago. Beste batzuetan (oso gutxitan) oinarrizko taldeak onartu ez zituen zuzenketa-proposamenak bakarrik ikusten ziren batzarreetan.

Batzarreetako prozesua, denborarekin, lasterragotu egin zen, onarturiko irizpideak pilatzen zihoazen neurrian.

Dena den, azken bi urteetan [1992-1993] hasieran behin-betikotzat emandako testuak berrikusi beharra ikusi zen; irizpideak aldatzen eta aberasten joan baitira prozesu osoan zehar.

Bestalde, azken urtean, estilo bateratzeko, bi idazle famaturi testu osoa irakurtzeko eskatu zitzaizen. Baina ez ziren animatu; hartara, azken irakurketa hori koordinatzaileak hartu zuen bere gain; irakurketa honetatik sortutako proposamenak ere batzarreetan erabaki ziren (41).

Leizarraga eta laguntzaileen arteko itzulpen-lankidetzak nolakoa izan zen ezer ez dakigula, edo Bonaparte eta bere lankideen arteko Biblia la-

(40) Dakigunez, laster agertuko da itzulpen-arazo metodologikoen kasu honetan izan duten irtenbideaz berri zehatzagorik. Hemen, aurkezpenetik zera jasoko dugu (XI. or.): "Bigarren, helburu komunikatiboa. [...] Hain zuzen ere, helburu zehatz horrek eragin dio itultzaile-taldeari, traduktologiaren aldetik, joera jakin bat hartzera, Bibliaren itzulpengintzan, munduan zehar, jadanik aski errotua dagoen joera hartzera: baliokidetasun dinamikoa, funtzionala".

(41) Aipaturiko "Elizen arteko Biblia. Lan-iharduera eta itultzaileak".

nak nola eraman ziren jakiteko hainbeste albiste falta zaizkigula, interesgarri gertatzen da kasu honetan ohar hori. Eta, urtetan ehundaka orrialde hizkera estandarrean zuzenduta gero, gure garaiekin datorren beste ohar hau: “azken momentuan Euskaltzaindiak argitara emaniko gomendioetara egokitu behar izan du koordinatzaileak testu osoa”. (Jainkoaren Hitzaren eta herriaren hizkuntzaren zerbitzuan!).

Hizkeraren arazoak ezin baztertuak dira, noski, honelako lanetan, baina elizarteko itzulpen biblikoetan larriagoak ere izan litezke exegesiarekin lotuta datozen katramilak. Hala ere, horrelako tirabirarik ez da bidean suertatu, esaten zaigunez.

## 2.5. Edizioaren azken ardurak

Taldeak eta kanpoko lankideek egitekoa aurrera zeramaten bitartean, J. de Ward, C. Buzzetti, J.M. Rementeria eta D. Amundarain Setien Gotzainarekin bildu ziren, honi lanaren berri emateko asmoz (1988ko abenduan): adostu zenaren arabera, itzulpen guztietatik bi ale bidaliko zitzaizkion gotzainari, hierarkia katolikoa ere bere garairako oniritzia emateko prestatuz joan zedin (42). 1990eko udan, lan-parte handi bat haren eskuetan zegoen, eta 1992ko udazkenean edo, erabaki samarrik Biblia hau elizarteko koedizioan kaleratzea (43).

1993ko udaberrian bukatu zen *Elizen arteko Biblia* osoaren euskal itzulpenaren testu-prestakuntza. Eta ondoren, Biblia itzulpenaren mol-

---


(42) Jakin ahal izan dugunez, bete zen borondate hori, eta Gotzaindegiak Itun Berria bederen eman zion exegeta katoliko hautatu bati (J. Apezetxea izan zela, uste dugu), lana aztertuz joan zedin. “Itun Zaharraren azterketa –E. Etxezarretari zor diot ohar hau– itzulpen-taldean exegesiari gehien arduratu zen Ramon Irizarri eskatu zitzaion; Gotzaintzat itzulpen-lanaren balorazio bat egin zezala eskatu zitzaion, haiek beren oniritzia eman ahal zezaten. R. Irizarrek 1992ko abenduaren 29an eman zion Setien Gotzainari bere txostena”.

(43) E. Etxezarretak pasatu dizkidan oharren arabera, hauek dira datu zehatzak: 1992, martxoak 31: Donostiako Gotzaindegian egin zen Batzarra, Bibliaren itzulpen-taldekoek eta protestanteek eskatuta. Setien Gotzainak ez zuen egotarik izan; beronen ordez J. A. Pagola, Bikario Nagusia, egon zen. Eta, gainera, Manuel Jimbachian (Strasburg), Jose Luis Andavert Escriche (Madril), Dionisio Amundarain eta E. Etxezarreta. Aztergaia: Itzultzaile eta protestanteen izenean hitz eginez, Bibliaren itzulpena zertan zen berri eman zen, eta euskal Elizbarrutietako Gotzainek argitalpenean parte har zezaten proposamena egin. 1993, ekainak 16: Euskal Elizbarrutietako Gotzainei, Gasteizen zuten ohiko Batzarrean, *Elizen arteko Biblia* argitaratzeko proiektua aurkeztu zitzaion. Erabakia: Ontzat eman zuten Gotzainek proiektua, eta argitalpenean protestanteekin batera erdibana parte hartzea erabaki zen, Baionako Elizbarrutia barne (1993.06.25). Gotzainen izenean argitalpenaz arduratzeko Eustasio Etxezarreta izendatu zuten. 1993, urriak 22: Gotzainen izenean Setien Gotzainak, eta Biblia Elkarte Batuen izenean Jose Luis Andavertek, argitalpenari dagozkion xehetasunen dokumentua izenpetu zuten: «Convenio de coedición para la publicación de *Elizen Arteko Biblia*».

diztegiko lanaren eta argitalpenaren xehetasun guztiez arduratzeko batzorde bat eratu (44).

Elizarteko lan hau —orain, eta ez lehenago— azken bururaino eraman ahal izateko bideak samurtu dituzten aldeko orokorrenak laburtu behar balira, agian nagusienak zerak izango lirateke: Kristau protestanteengan (45) —eta katolikoen artean ere (46)— ekumenismoak urratutako bidea (47), euskal Protestantismoaren historiaren berreskuratzea (48), Euskal Herriko Elizen arteko ezagupide hobea eta, azkenik, euskara estandar batean eta Euskal Herri osorako originaletatik zuzenean egindako itzulpen moderno baten premia.

Horrek guztiak eman du, ba, bere emaitza gurean ere: *Elizen arteko Biblia*.



(44) Bi etxe argitaldarien aldetik (Bibli Elkarte Batuak eta Euskal Herriko Elizbarrutiak) ordezkari bana izango ziren Batzordean (J.L. Andavert eta E. Etxezarreta), eta Elizen Arteko Biblia Elkartearen aldetik (lantaldeen izenean, alegia), beste bi lagun (J.M. Rementeria eta D. Amundarain).

(45) Elizen Kontseilu Ekumenikoa bere iturrietan ezagutu nahiko lukeenak, argitalpen erosoak du gure artean ondoko hau: VISCHER, L. (ed.) (1972): *Textos y documentos de la Comisión «Fe y Constitución» (1910-1968)*. Madrid: BAC (337).

(46) Ekumenismo katolikoaren doktrina-oinarriak ezagutzeko: PERARNAU, J. (ed.) (1965): *Decreto sobre el Ecumenismo* [Vatikano II.arena, alegia]. Castellón de La Plana. Dokumentu honen jaiotunea ezagutzeko, ik., adibidez: FESQUET, H. (1967): *Diario del Concilio*. Barcelona: Editorial Nova Terra. (Aurkibideetan: 1296-97. or.).

(47) Ekumenismoaren historia, bere alde doktrinalean bereziki, honako obra honetan ikus daiteke: THILS, G. (1965): *Historia doctrinal del movimiento ecuménico*. Madrid: Ediciones Rialp. Biziki iradokiorra gertatuko zaio irakurleari beste hau: CONGAR, Y. M.-J. (1967): *Cristianos en diálogo. Aportaciones católicas al Ecumenismo*. Barcelona: Editorial Estela.

(48) Ez da horren adibide txarrena hau: OLAIZOLA, J.M. (1993): *Historia del Protestantismo en el País Vasco*. Pamplona: Pamiela.

### 3. EGINDAKO BIDEA: EGITEKOAK

Dagoeneko irakurleak ikusi duenez, orrialdeok ez dira izan *Elizen arteko Biblia* hau bururaino eramateko egin diren lanen aurkezpena baik; ez dut emaitza literario eta zientifikoaren kritika egiteko asmorik izan. Horretarako gaitasunik ezean, zilegi izan bekit, bestalde, azken oharren bat edo beste egitea.

Gure lehenengo Biblia itzulpen ezaguna (1571) erlijio-gerren artean sortu zen —taldean lan eginez, gainera— eta agintari kalbindarrek (Paueko Sinodoak, Joana Nafarroako Erreginak) sustaturik egin zen, zortzi urteko lanaren ondoren. Une historiko hartako kristau fededun batzuen interes kontrajarrien artean baina beti Hitzarekiko maitasun suharrari jarraiki gertatu zen hori (Leizarragaren hitzak irakurri besterik ez dago horretaz ohartzeko).

Oraingoan ere interesik ez da falta izan, Hitzarekiko amodiorik ere ez, eta langile finen iraupen setatia, hamazazpi urtetan zehar egitekoari eusteko. Lehen orduko sustatzaile eraginkorra Bibli Elkarte Batuak izan dira, eta katolikoaren bizkar joan da, batik-bat, eguneroko lanaren zama. Elkarren kontrako lehian baino elkarren aldeko ahaleaginean egin dute aitzina, bururaino. Azkenik, parte izan diren Elizetako buruek elkar-hartuta jarri dute lana kalean. *Elizarteko* obra hau, halakoxea da zinez.

Leizarragak euskaldun guztien ahalik ulerpen errazena bilatu zuen bezala (*ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiqui içan gaitzatza*, zioen hark), oraingo itzultzaileok ere guztiekiko hizkuntz hurbiltasuna bilatu dute euskara batuaren bidetik. Hizkuntzaren normalkuntza estandarrari laguntzeko ere egin da itzulpen hau, espreski. Beldur izan zitekeen exegesi-gatazkarik ez da izan, baina “bai, ordea, euskararen normalizazioaren aldetik. Puntu asko eta asko aztertu behar izan dira, bai bakarka, bai batzarreetan”. Ahalegin honekin, eliz euskara (49) epe historiko berri batean sartzen da, juxtu Sinodaletatik zetorren euskalkiekiko ardura praktikoko hertsia goari gaina hartuz eta Leizarraga Artzain protestantearen edo Axular apaiz katolikoaren hizkuntza batasun-kezka zabalagoa berreskuratuz (50).

Edizioak izan duen euskalkiarteko lankidegoagatik, Elizengandik lortu duen onarpen-babes instituzionalagatik, itxuraz eta hobekuntza-asmoz (izango) duen kalitateagatik, benetan Euskal Herri osoko Biblia bilaka daiteke hau (nahiz eta Liturgi zeregin mintzatueterako besterik ere

(49) *Eliz euskara*, diot: eliz eginkizun eta kulturako euskara, eliztarrek nonahi edo zernahitan erabil dezaketena baino.

(50) Ez ditut biltzen horren testu lekukoak, baina gogoan har Kalagurriko Arau Sinodalak (1600) eta bi idazle aipatuen hitzaurreak.

izan). Merezimendu handiko beste lanen ondoren, urrats hau ere eman beharra zegoen, hizkuntzaren normalizazioaren mesedetan ezezik, baita kultura erlijioso moderno bizi baten onetan ere.

Orain gutxi, filologo baten lumatik prentsaratu da EHUrako Teologi Fakultate baten eskea (51). Erran gabe doa, gure artean azken hamarkadetan gertatu den Teologiaren latinetik gaztelaniaratzek, Euskal Herrian euskararatzea ere izan beharko lukeela; baina hori ezingo da egin, aldi berean euskarazko Teologi hizkera-normalizazioak heldutasun bat lortu gabe. Jada eman da pausoren bat edo beste norabide horretan (52); hala ere, urrun eta eskas geratu dira —segidarik ez dute ia izan— 1960-1970. hamarkadetakoko euskarazko gogoeta-lan teologikoak. Batez ere, gure kultura erlijioso moderno euskalduna jaiotzeke dago, eta zer esanik ez, euskaraz lanean lihardukeen Teologi irakaskuntza. Teologia(ren) hau Euskal Herriko kristau Elizek gure herriaren kultur normalizazioari zor dioten baliozko eremua da.

*Elizen arteko Biblia* jatorrizko hizkuntzetatik serioски itzuli ahal izan duen lantaldeak bide berriak urratzeko lain adore eta iraupen erakutsi du, eta, gainera, ondoko beste oinarri eta hedapenatarako tresna baliosa sortu digu. Hierarkiak ere ongi ulertu du behetik etorri den ekimen horren esanahia. Espero liteke, ba —eta denon onetan eskatu egin beharko litzaieke Euskal Herriko Elizei— ondoko ekintza berriak ere sustatzen hasteko, beti ere euskarazko kultura kristauak, orokorrean, eta prezeskia-gu euskarazko Teologi irakaskuntzak aurrera egin dezaten.

Euskal Herriko eguneroko eliz errealitate euskaldun zabalenera etorriz, beste oharkizunen bat. Argitalpen honek erakutsi du eliz indarrak —aski ahulduta daudela ere— elkarlanean noraino hel daitezkeen. Lezio ona izan da *Elizen arteko Biblia*, baina ez bera bakarrik, baita hemen bidenabar aipatu dugun beste lan bakan batzuk ere. Estimagarria eta ederra da, noski, elizen arteko lana, baina elizetako giza kultur indar gehienak eta emankorrenak batez ere Eliza katolikoan daude Euskal Herrian, eta agian, garaia da, Elizbarrutien arteko eta berorien eta erlijiosoen arteko lankidetzak eratua antolatzeko: kristau kulturaren onetan, hizkuntzaren faboretan.

Eraikuntza berri horren lehen harrietako bat jarrita dago hemen aurkeztu dugun argitalpen oparo honekin: egiteke dauden zereginetarako ez da lantegi-eredu txarra berau, horri segida emanez eta bertatik eta beste irakasgunetatik hasita garapen hobeak sustatzeko.

(51) EGUZKITZA, A. (1994): "Teologia-Fakultatea Euskal Herriko Unibertsitatean noizko?", in: *Egunkaria*, 1994-06-03.

(52) Adibide gisara gogora Liturgi itzulpenak edo *Erljioa. Hiztegia* (1987, UZEI, Donostia: Elkar).



**BERRIAK**



## KOSTALDEKO EKOSISTEMEN ERAKUSKETA

*Egoitza (Bilbo), 1994.01.25 - 1994.02.03*

*C. Rodriguez*

Bilbo Zaharra euskaltegiaren eskutik 1994ko urtarrilaren 25ean *Kostaldeko ekosistemak* izeneko erakusketa zela-ta, inaugurazio egunean Euskaltzaindiaren aretoan eguerdiko ordu batean esandako hitzak:

Bilbo Zaharra euskaltegiko irakasle eta ikasle guztien izenean eskerrak Euskaltzaindiari areto hau uzteagatik, bestetik, gure eskerrona adierazi nahi diogu Salvatore Mitxelena ikastolako zuzendariari hona etortzeagatik.

Atzo bidali genuen hemendik Bilbotik furgoneta bat Zarautzera. Furgonetak ekarri behar zituen, handik Zarautzetik, material guztiok: hemen dauden materialok: argazkiak, irudiak, txoriak, harriak eta abar.

Arratsaldeko lauretan edo etortzekoa zen furgoneta gidaria, eta nik atzo eguerdian nire kalean bertan ikusi nuen txoferra lasai asko taberna sartzen eta ni harriturik gelditu nintzen: Zarautzen egon behar eta hara non kaiean ikusten nuen!

Oihu egin nion eta esan zidan bidaia eginda zegoela, gauza guztiak hemen zeudela eta galdera bat ere egin zidan berak.

Zera galdetu zidan:

–Zezilio, baina zer da hori, bada, zer egingo duzue hor? Kaja batzuk bete hondar ekarri ditut, zertarako nahi dituzue gauza horiek?

Harriturik gelditu zen mutikoa. Nik esan nion.. . hitzaldi bat, erakusketa bat...harriturik daukat, orduan, Fernando. Fernando da nire kaleko transportista. Eta bestetik ni neu ere harriturik naukate aldemeneko hauek. Eta zergatik? Nik uste nuen ikerketa lanak urrun-urruneko lekuetan egiten zirela, Antarktidan edo ez dakit non, baina ez hemen bertan. Beraz, etxetik bertatik eta gure kostaldea, gure geure kostaldea ikertzen dutela! Eta bestetik, nik uste nuen ikerlariak agurreak, zaharrak eta bizar zuria zeukatela. Eta nire aldamenean ez dago horrelakorik, nik ez dakit zer esango duten, baina harriturik naukate hasiera-hasieratik.

Hasteko, entzungo dugu Jose Antonio Aranaren mintzoa, euskaltzaina bera, eta hemengo bibliotekako bibliotekaria.

Nahi duzunean.




## **KOSTALDEKO EKOSISTEMEN ERAKUSKETA**

*Egoitza, (Bilbo), 1994.01.25*

*Jose Antonio Arana Martija*

Adiskideok, eguerdi on:

Zazpi kaleetako Bilbo Zaharra Euskaltegiak Euskaltzaindiari areto hau eskatu zionean *Kostaldeko ekosistemen* erakusketa hau eratzeko, arraro samar iruditu zitzaigun zuzendaritzakoei euskararen Akademiak halako erakusketa eta ihardunaldiei babesa ematea. Baina berehala konturatu ginen Zarauzko Izadi Taldeak eta Salvatore Mitxelena ikastolak bultzaturiko eginkizun hau euskal kulturarako eta euskararen aberastasun eta erabilerarako garrantzitsua zela.



Gure hizkuntza zaindu eta hedatu behar duen Erakunde honek zientziaren eremu zahar eta berri baten aurrean aurkitzen da une honetan. Alor zaharra, diot, naturatik bizi izan da gehienbat euskara eta, hurbilean izadi edo naturak ematen zizkion gauzekin topo egiten baitzuen euskaldunak. Baina alor berria ere bai, euskara arruntari natur zientziek sistematizazio bidetik sartzea eskatzen baitzieten. Aranzadi, Elhuyar, Jakin, UZEI eta beste elkarteek alor honetan eman dizkiguten urratsak ez dira alferrekoak izan jatorrizko eta maileguzko hitzekin osotu baitute beharrezko genuen naturaren hiztegia.

Baina hitzak kontzeptua darama barnean eta zehazki definitu behar du esangura. Eta definizio hori lortzeko eta esangura adierazteko zer hobe definitu nahi duen gauza bera erakustea baino? Animalia, landare eta meazkien izenak emateko Aranzadi eta Jakinek eman ziguten 1976an *Natur zientzien hiztegia*, ordu onean etorria, Euskal Herriko Unibertsitate publikoa sortu zen unean, hain zuzen. Irudiekin hornitua eta apaindua zetorren hiztegia, baina emaitza hori bilakatu eta aberastu egiten da halako erakusketekin, begi bistan, kolorez eta kasu askotan ukitzeko eran ematen baitira izakinak. Bestalde, baserriko kultura, jatorrizko gurea, edo itsasertzeko hizkera berezia datorkigu kalera, hiritar hizkuntzari txertatu behar dizkiogu natur hitzak, hirietako berbaera bere osotasunera ekarri behar baitugu euskarak aurrera jarrai dezan, hizkuntza modernoa eginez.

Asko dira bada arrazoiak Euskaltzaindiak halako erakusketa eta ihardunaldiak babes ditzan. Eta pozik ikusten du Bilbon, Euskal Herriko hiri nagusian, ekintza hau burutzea. Hiriak ez baititugu euskararako irabazten, gureak egin du. Eta gaur hasten den ihardunaldi hau euskararen erabilerarako lehergailu txikia baino ez bada ere, sua pizteko sukarrria izan dadila nahiko genuke.

Horregatik, mila esker Euskaltzaindiaren izenean, antolatzaileoi. Zin egiten dugu halako ekintzetarako zabalik izango dituzuela gure ateak, nolabait euskararen santutegi hau herriarena baita.

## KOSTALDEKO EKOSISTEMEN ERAKUSKETA

*Egoitza, (Bilbo), 1994.01.25*

*Josepo Terese*

Labur saiatuko naiz pixka bat esplikatzeko nondik nora sortu zen proiektu guzti hau eta bukaeran, galderaren bat egin nahiko bazenute prest nengoke, ahal dudan moduan, egoki erantzuten.

Aurrenengo gauza bereiztu nahiko nuke, gure herrian, pentsatzen dut eta beste herri guztietan gertatzen den bezalaxe, orain hamarren bat urte, gure ingurune guztia ezagutzeko joera edo jarrera sortu zela.

Horretarako, eskoletako natur departamendu inguruan genbiltzan irakasleekin talde bat osatu nahi izan genuen.

Deialdi ireki batez ingurune, ekosistemak eta beraien dinamikaz arduratuko litzatekeen taldea osatu nahi izan genuen, eta zenbait irakasle elkartzuz, Zeziliok aipaturiko *Izadi taldea* sortu zen.

Talde honen helburuetariko bat, hasieran guk hala ikusten baikenuen, inguruko eskoletako natur departamenduetako arduradun guztiekin harreman estua edukitzea izango zen eta bestetik, gure inguruneko ekologia mailako problematikaz eta aberastasunez pixkanaka jabetzen joatea.

Lehen aipatu bezala, taldea irekia zenez, irakasle, basozain, biologo, geologo, naturalista eta abarrek beren tokia topatu zuten. Eta berehala konturatu ginen, gaur egun kostaldeak direla, zonarik zigortuenak: turismoa dela, hiriburu eta herriburuetako zabalkundeak direla, toki oso erosoak izan baitira aspaldidanik bertan kokatzeko; ondorioz ez dugu jakin beraiek zaintzen, desoreka nabarmen batera bultzatu ditugularik. Horregatik, orain zazpi urte proiektu bat, hasi genuen, Zarautz inguruan agertzen den ekosistema multzoaren azterketa zientifikoa egitearena, hain zuzen ere.

Honi hasiera ematerakoan aski ez zela izango konturatu ginen. Lehendabizi ingurunea ondo ezagutu beharko genuen ondorio zientifikoa batzuk atera ahal izateko, eta beraz, horri ekin genion, ondoren beste lan batzuei heldu genielarik.

Egiten ari ginen lanen dibulgazio beharra ikusten genuenez, didaktikoki nola plazaratu aztertzen hasi ginen. Proiektu global bat diseinatu zen eta ikusten duzuen erakusketa hau proiektu horren lehen zatia litzateke.

Saiatu ginen *Izadi taldeak* izan zezakeen izaera zientifiko eta protekzionista eskola batek aporta zezakeen alde didaktikoarekin bat egiten, proiektu amankomun baten bitartez. Eta hortik sortu zen hasierako ideia eta hona hemen aurrengo zati horren lekukoa.

Prozesu hau, eskola mailan era honetara desarroitatu zen: badira urte batzuk, gure ikastolan, ikasleek, zuek ikusten duzuen erakusketa honen antzekoa, beren mediokin eta baliabideekin, beraiek egin dezaketenaren arabera eta irakasleon laguntzaz antolatzen dutena.

Erakusketa hauek oinarritzat hartuz, eta gure ikerketen arabera, eta aporta genezakeen guztiarekin erakusketa didaktiko bat eratu dugu, ikasle guztiengana iristeko asmoz, ez bakarrik gure zonakoentzat, problematika berbera agertzen baita Euskal Herriko beste lurralde askotan; hala nola, Plentzian, Gorlizen, Muskizen, Hondarribian, Txingudin eta abar eta abar luze bat. Zarautzen dagoenaren berdintsua izan daiteke eta beraz, estrapolagarria. Orduan nahi izan genuena Euskal Herriko zona hauetara bereziki heldu, eta gure erakusketa zabaldu.

Eta hori da, hain zuzen ere, helburu nagusia. Detaile batzuk emango dizkizuet, alde didaktiko hau ikutuz: Erreformak, orain hezkuntzaren inguruan planteatzen duen ingurunea hezkuntzan oinarritu ditugu erakusketaren helburu orokorrak. Lehen mailako hezkuntzaren azken zikloa eta derrigorrezko bigarren hezkuntzari begira jarri dira helburu hauek, beti ere gure egoera berezira, Zarauzko egoerara moldaturik, baina bere filosofia eta oinarriak mantenduz.

Hurrengo fasean, berriz, ikasleentzako unitate desberdinak egitea izango dugu helburu. Esan ere nahiko nuke lehen fase honek urtebete eraman digula. Ikus dezakezue, lan guztiau artzainak da, eskuz eginikoa: korte, rekorte, jarri, pegatu, e.a., e.a. 8.000 mila diapositiba atera ditugu, horretarako urte dexente pasa behar izan ditugularik bilketa lana egiten.

Hiztegiari dagokionez, oinarri desberdinak izan ditugu: hasiera baten Martzeloz Aizpuruak ateratakoa hartu genuen oinarritzat, ondoren UZEIk ateratako hiztegiak eta horretaz aparte, bertako arrantzaleek jatorriz erabilitako izendegia ere aintzakotzat hartu dugu. Zenbaitetan, beraz, Zarautz inguruan bakarrik erabiltzen diren izenak agertuko zaizkizue. Hala ere, beti saiatu gara izen ofiziala ere azaltzen.

Horregatik, ikusiko duzue, espezie batzuk izen desberdinez izendaturik egongo dira: bertako izen eta UZEIk ofizialki onartutakoaz.

Erakusketa osoa euskara hutsez egina izan da eta honetaz aparte 200 diapositibaz 6saturiko audiobisuala ere antolaturik dugu. Honen aurkezpena hemen-txe, Bilbon bertan egin ahal izango dugula espero dugu.

Azkenik gure eskerrak antolatzaileei, Bilbo Zaharra euskaltegikoei, bai Euskaltzaindiari, frogatutako jarrera eta interesagatik, eta aldi berean, proiektu hau egin ahal izateko laguntza eman duten instituzioei: Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zarauzko Udala.

Besterik gabe mila esker etortzeagatik. Orain galderarik baldin balego gustura erantzun nuke.



—Erakusketa hau ikusteko zein litzateke modurik egokiena?

Gaur arratsaldez jarriko ditugu gezi batzuk, erakusketaren norabidea adieraziko diguten geziak.

Erakusketa bloke desberdinetan antolaturik dago ekosistemen arabera; hala nola: geologia alde batetik eta bestetik, hondartza eta dunak, padurak eta erriberak eta azkenik harraldea eta itsas-labarrak. Berez orden horretan jarraitzea litzateke egokien.

Bloke guztiek, aldi berean, antzeko egitura azaltzen dute: eboluzioa, fauna, botanika.... Halaber, mural batzuetan paisaiaren eraldaketa nola izan den erraz ikus daiteke. Eta bukatu aurretik, helburu orokor guzti hauen helburu nagusia aipatu nahiko nuke: Gure ingurunea ezagutu eta ezagutuz maitatu eta ingurunea maitatuz berekiko errespetua garatu.

—Besterik ez bada, hitz egingo digu Josu Aurre Azurmendik, gure euskaltegiko zuzendariak.



## AZKEN HITZAK

*Josu Aurre Azurmendi*

Bilbo Zaharra euskaltegian kontenidorik gabe ezin dela hizkuntza bat irakatsi jakinda, pozik antolatu dugu erakusketa hau.

Areto honetan orain badauka begiak zer ikusirik, eta euskara ikasten dabilenak zer ikasirik ere bai.

Guk, nahi dugu, euskara ikastearekin batera, ikasleen eta irakasleen ezagupenak aberastu, zientziaren arlo guztiak jorratuz eta mundu zabalean suertatzen diren gauza guztien berri edukiz.

Jakinnahia da oso hitz polita, ikerlariak askotan erabiltzen dutena. Ikerlariok beti gauza bat beste baten atzetik dabilta, jakinnahi hori asetu nahirik. Ez dira inoiz aspertzen. Ikerketa lanak badu, antza, oso indar handia eta horrelako lanetan murgiltzen denak poz handia sentitzen du, gauza berri bat aurkitu eta besteei berehala zabaltzen dienean.

Zuek ere, hemen areto honetan zaretenok, ikusi patxadaz erakusketa honetan dauden animalia, txori, harri eta irudi guztiak, ibilaldia egin aretoan zehar eta zabaldu, gero zuen lagunen artean ibilaldi honetan ikasi duzuen.

Besterik gabe, mila esker guztioi.



**JOSE LUIS LIZUNDIA JAUNARI ETA M.<sup>a</sup> PILAR LASARTE  
ANDEREARI**

**EUSKALTZAINDIAK DOMINA EMAN**

*Iruñean, Nafarroako Jauregian, 1994.03.25*

*Jose Luis Lizundia Askondo*

Esker onez lau hitz esatea nahi nituzke:

Iruinseme naiz duela 55 urte, gerra garaian hiriburu honetan jaio baitnintzen. Benetan eskerrak, ez baitnenkien omenalditxo honen berririk, gutxiago Nafarroako jauregi hau aukeratuko zenutenik.

Pozgarria da, bestalde, beste nafar batekin batera, Maria Pilar Lasarte leitzarrarekin, domina hau hartzea. Biok gara zilarrezko ezteiak ospatzen ditugunak aurten, Euskaltzaindiaren langile legez, Euskara Batuaren 25 urteekin batera, bestalde. Bera Donostiako ordezkartizan, ni, Bilboko egoitzan. Maria Pilarrekin batera oroitu nahi ditut nire beste lankide guztiak.

Joan den hilean bete ditut, bestalde, 25 urte Euskaltzaindiko idazkariorde erara. Arestirekin batera lehiakide, Baionan izendatua eta Gasteizen, Euskaltzaindiaren 50. urteurrenkari Foru Diputazioan karguaz jabetua.

Oraingo Zuzendaritzari eskerrak emanez batera, Haritschelhar, Lekuona, Knörr, Arana, beste bost izen aipatzea nahi ditut: A. Villasante, 18 urtetan nire/gure buru nagusia, 18 urtetan erromes laiko izan baitnaiz, hilean behin, gutxienez, Arantzura joanez. Izendapen uanean, euskaltzainburu izan zen On Manuel Lekuona. Jose Mari Satrustegi, urte askotan idazkaria; Eusebio Erkiaga, iaz zendua, urte askotan diruzain. Azkenerako utzi dut Juan San Martin, ni idazkariorde proposatu ninduen, oroitzen naiz nola etorri zen proposamen hori egitera Garaiko Udaletxera, hango udal idazkari baitnintzen garai hartan. Eta beste hemen zaudeten guztioi, mila esker.



# **PRENTSA IDATZIKO ETA IKUSENTZUTEKO KOMUNIKABIDEETAKO EUSKARA: AZKEN HITZAK**

*Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea/  
Universidad del País Vasco  
1993.05.14*

*Juan Mari Lekuona jauna*

Euskaltzainburua kanpoan denez, honek behartzen nau, Araudiari jarraituz, haren izenean mintzatzera. Eta nire lehenengo egitekoa, bistan denez, Euskaltzaindiaren izenean denoi agur bero bat opa izatea da. Lan berean ari garenon arteko diosala duzue, geure Erakundearen aldetik zuei egina.

Une honi atxekiz, bidezkoa dirudi nik orain komunikabideek euskararen bitzitan duten garrantzia aipatzea. Aipamen honek ez du izango iritzi kualifikatu baten garrantzirik. Neronek eginiko langintzan eta edukuriko bizikizunetan hartzen dut oinarri, gogoeta bat burutzeko, angelu jakin batetik gauzatuz zer den komunikabideetako hizkeraren balioa.

## **1. KOMUNIKABIDEETAKO HIZKERAK**

Nire eginbide pertsonala komunikazioarekin loturik agertzen da beti. Aritu izan naiz irakaskuntzan eta predikuan, sorkuntza-lanetan eta itzulpen zereginean. Eta egindakoa gogoan, argi eta garbi ikusten dut komunikabideek duten eragin ona hizkuntzaren suztapenean.

Eraskotako literatur estiloak ikus eta entzun daitezke gaur egungo komunikabideetan: idatzizkoa, hala nola kazetetan datorrena; erdi-ahozkoa, idatziz sortzen eta baliatzen dena; eta bapateko mintzoa. Hiru estilo hauek lirateke oso kontuan hartzekoak, hedabideetako euskara ongi bideratzerik nahi bada.

Oso bizia da gai hauei buruz daukagun kontzientzia. Ez da alferrik gertatu, egun hauetan hain zuzen, bi jardunaldi garrantzitsu antolatu izana, desberdinak bezain antz-antzekoak: "Bertsolamintza" alde batetik, eta zuen jardunaldiok bestetik. Haiek ahozko komunikazioan, eta zuek gehienbat idatzizkoan, edota nahi bada, Walter J. Ong-en hitzekin esanez, bigarren mailako ahozkotasunean arreta osoa jarritz.

Eta gaur egun gertatzen den gauza bera gertatu izan da, —mailak eta aldeak barne—, euskal historian zehar. Entzulego bati mintzatu beharrak erakutsi zigun, beste edozein herritakoei bezala, badela jendaurreko hizkera bat, hartzun izateko landu eta menderatu behar dena. Hizkerabide hauek lantzen ahalegindu ziren eliz predikua, testu sakratuen itzulpena, liburu aszetikoak eta kristau-bideak. Eta gauza bera egin dute bai herri-literaturan, bertsolaritzan, pastoraletan, narratibagintzan, eta ez gutxiago literatura idatzian, beti ere aldian aldikoari erantzunik egokienak emanez.

Gaurkoari gagozkiolarik, gauza beretsua gertatu ohi zaigu bai prentsako, bai ikusentzunezko emanaldietan. Beharrezkoak diren oharkizunak eginez, hori bai. Gaurko hedabideetan, idatziz prestaturikoa da askotan jendaurrean hitzez-hitz banatzen dena. Eta bestalde, horrela esaniko testu hori bera gertatzen da gero, prentsak dakarren testuiturri berezietakoa. Beraz, bigarren mailako ahozkotasuna deritzan estiloa ari zaigu indartzen, estilo mintzatua eta estilo idatzia komunikazioko eskabideen arabera uztartzen direla.

Horregatik gaurko giroa euskaraz bizi dugunoi, edo bizi nahi dugunoi, horrek usmarazten digu, hedabideetako hizkera asmatzean eta erabiltzean jokatzeko dugula euskararen etorkizuna.

## 2. EUSKALTZAINDIAREN AHALEGINA

Hori guztia gogoan, begiaurrean dauka beti Erakundeak, euskararen *corpusa* zaintzea dela Euskaltzaindiaren egiteko nagusia. Adi egon behar du, jabetzeko nolakoa den garaiko euskararen taupada. Zuen arloari dagokionez, beste eginkizun guztien gainetik, arauemailea nahi luke izan, berari dagokionez. Eta horretarako ikerketa-eremu asko lantzen ditu, batzorde ezinbestekoak lanean jarriz. Eta ahalegin guztia jartzen du bere zereginik mamitsuenetan: hiztegitintzan, gramatikari, onomastikan, hizkuntz atlasan, literaturan eta dialektologian. Fruntsezko lanak dira, zuek asmatu nahi baduzue komunikabideek gaur eskatzen duten hizkerabidean.

Bestalde, zuen egoera jakina ikusita, sentiberatasun bat azaldu nahi luke, gaur euskarak bizi duen bidagurutze honetan zuen profesioiko euskaraz bizi duen kinkaz jabetu zaitezten. Eta sentiberatasun hau nolerebait mamitzeko zilegi bekit jardunaldiotan egoniko mintzatzaile baten ikuspegia hona ekartzea.

Lehenik uko egin behar zaio erdararen murruntzari, eta hau ez da beti erraza gertatzen itzulpengintzaz hainbeste baliatu behar den arlo honetan. Bigarren, uko egin behar zaio erregistroak egoki ez erabiltzeari, testua gogorra, irents-gaitza eta heldugabea bihurtuz. Eta hirugarrenik, bereziki saiatu behar du hizkerak berea izan behar duzen zuzentasuna, jatoritasuna eta ulergarritasuna eskuratzen. Kontuan hartu beharreko oharkizunak dira, eguneroko arazoetan lagun gaitzaten, gorarik ezar ditzagun geure hizkuntzarekiko helburuak.

Euskararekiko senaz eta sentiberatasunaz aparte, bada beste alderdi bat aipatu nahi nekeena hemen: euskal arloan auresku izateak dakarren lana eta ne-



kea. Euskara noranahikoa izan dadila nahi badugu, lizardiar esakera erabiliz, ezerk ez gaitu jareingo lana burutsu eta gogotsu egitetik, sena bizkorra eta egokitua izatetik, idazle-hiztun maila jaso eta jantzia edukitzetik. Eta hau guztia saiatze etenezina da, idazle eta esatari onen fruitu nekeza bezain atsegintsua. Honek neur-tzen du geure zereginaren zailtasuna eta meritu guztia.

Euskaltzaindiak, hainbat euskaldun borondateko onekoen izenean, eskertzen dizue bizkarreratu duzuen zama. Eta zoriontzen ere bai, lortu dituzuelako zuen helburuak eta ardietsi, gainera, lan bikainak. Eta berriro ere agur, Euskaltzaindiaren izenean.



**“RESURRECCION MARIA AZKUE” LITERATURA SARIAK**



**BILBAO BIZKAIA KUTXAK-EUSKALTZAINDIAK  
“RESURRECCION MARIA AZKUE” SARIAK BANATZEAN**

*Bilbo, 1994.02.18*

*Manfred Nolte Aramburu,  
zuzendari orokorra/director general*

Egun on Jaun-Andre guztioi:

Kezkaten gaitu aspaldian ikusten dugun euskal egoera literarioak, batez ere bere sorkuntzak. Arrazoiak bilatzerakoan zaila iruditzen zaigu egoera ekonomikoari errua botatzea, inoiz baino hobea delako, euskal sorkuntza artistikoak indartzeko.

Beharbada, astiro-astiro irakurle kopurua gutxitzea, baita telebista eta diska-rem eragina ere izan dira arrazoi batzuk arazo honetan.

Hau berreskuratzeko, irakurketa eskaintzak eta literatur sorketak bultzatu behar dira.

Horrexegatik Bilbao Bizkaia Kutxak, Euskaltzaindiaren laguntza ezin egokia-gorekin, Resurrección María de Azkue ipuin eta bertsoen sariketarako deialdia egin du. Honekin, ume-umetatik biztu nahi da, sorkuntza literarioarako hazia, idazle handiak sortzeko.

Sari hauek dakarten aberastasuna, hasiera bat baino ez da etorkizunerako.

Hemen esandako guztionek, bultzatzen du Bilbao Bizkaia Kutxa ildo beretik jarraitzera.

Eskerrik asko.



## R.M.AZKUE SARIKETAKO IDAZLANEN ARGITALPENA

Bilbao, 1994.02.18

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

### 1. Liburuaren aurkezpena

1994.eko otsailaren 18an, ostiralez, eguerdiko 13ean aurkeztu zen jendarean *Ipuinak eta Bertsok* deritzan liburua, 1992.urteko idazlanek osatzen dutena.

Mahaian, Malfred Nolte Aramburu Bilbao Bizkaia Kutzako zuzendari orokorarekin batera, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Juan Luis Goikoetxea zeuden. Areto bete-betean, Juan Mari Lekuonaz gain Euskaltzaindiko literatura batzordekideak ziren. Guztiori antolatzen, sariketako eragile diren Leopoldo Zugaza eta Daniel Soloaga kutzakoak.

Ale hau, BBRk delakoak argitaratutako Azkuen sarien artean bigarrena da. Mila ale dira argitaratuak. Zabalketa biblioteka, ikastola zein eskoletan egiten da, batez ere, baina liburutegietan ere salduz.

A Saileko -13 urterarteko- hiru ipuin eta beste hainbeste bertso argitaratu dira. Bn,-13tik 17rartekoetan-, berdin, hiru eta hiru. Liburuak, 51 orrialde eta gentileziazkoa dauzka. Azal gogorra, "guaflex" sendoa, kartoiduna eta lau tintara burutu ostean glasofonatua. Offset delakoan inprimatua. Papera, Ibiza, 800-900 gramo m2; glasofonatua. Offset "hegur kolorekoa" 90 gramo. m2 delakoan inprimatua. Tolestatua eta hariz josia. Amaierako ekoizkina: 175 x 210 mm. (1)

Aise frogatu ahalko duzun legez, liburuaren muina txukun bezain zuzen dator. Gaizki ulertze penagarriaren ondorioz hutsegite batzuk ere bai.

Guk zuzentzerakoan errespetatu egin ditugu euskalkiak, muga ezartzea hain erraza izan ez arren. Ikaslearen adina ez dugu ahaztu. Ondorioz, ez gara zuzentasuna kontuan hartzetik urrun abiatu; koherentzia-kohesioetan ez gara sartu gehiegi. Erderekin ere, onar dezagun, indar handia dute egungo euskara moldean. Adina dutela badakigu euskara askoz sakonago ezagutzeko. Badakigu, forma, iraunkortasunean mantentzen dadin egina dela eta bere tasuna galdu egingo lukeela, ordena, egitura eta abar aldatuta.

---

(1) Rikardo Badiolak eskaintako informazio teknikoa.

2. Ume eta gazteak BBKn idazle

Haur euskaldunek betirik entzun izan dituzte sutondoko ipuinak nahiz oheburukoak. Gainontzeko hizkuntzetakoen antzera, irakurri ere bai, XX.mendeko hirugarren hamarkadatik aurrera, behintzat. Zorionerako, mendea atso edo aguretu zaigunean, gazteria bera da idazle eta, gutxi balitz, idazlan argitaratuen jabe. Bai BBKk zein Euskaltzaindiak merezi dute R.M. Azkue sarien kudeatze eta finantzatzeagatik euskaldunon eskerrona. Alegeratzekoa da burmuinetan txanponak eta txantelak darabiltzatenek haur liburua kultura ondasuntzat baloratzea; liburutan dirua xahutzea zeregin probetxuzkotzat ikustea. Badirudi, Kutxa honetako arduradunek eurenganatu gura duten gizarteak, irakurketa ontzat daukanez, ume zein gazteei liburuak eskuratzea baloratu egiten duela.

Olatz

Ekaitz

Olatz Itzkader.

Ekaitz Goikoetxea


Pujana

Inti Etxebarria

Argia Pujana

~~Haritz~~  
Haritz Urizarbatrena





Hainbeste kolore, horrenbesteko papera edo azalezta durako liburu ederra argitaratzea ere ez dago, gaur egun, edozein argitaletxeren esku. “Kolorea sartzeak dakartzan gastuak estali ahal izateko bost mila ale bota behar direlako, gutxienez, eta, gaur egun, kopuru horietara iristea ezinezkoa zaigunez, zuri-beltzean apaindu behar izaten ditugu gure liburuak,..., edo bestela, kolorezkorik irakurri nahi badugu, itzulpenetara jo” (2). Horrez gainera, liburua luxuzkoa denez, bizi dugun krisiak gutxitu egin du kontsumoa.

### 3. Liburuaren barrua

Ikasgelako mahai deserosoetan baino egokera atseginagoan irakurtzeko liburua dukezu hau; aratinez zein ahozpe, baina etzanik; txarrean ere besaulki apatzean.

Bill, Billy eta Patxik 11. orrialderako hunkitu zaituzte. Negar eragiteraino hunkitu. Bidera datorkizu A. Puskinek esaten zuena: “Desegin gaitzen negar zotinka fikzioaren aurrean”.

“Halako batean, haitzetara igotzeko ahaleginak egiten hasiko zara. Entxaladako letxugetan aurkitzen diren barraskilo mukitsu haien larrua bera baino irristakorrago zegoen haitzera. Zirkuetako ekilibristen antzera ibiliko zara erori beharrean”. Jadanik, bazabiltza 13.ean. Aurreko leiho zoragarriak mesozoikoa dakarkizu gogora.

*Hosto baten pentsakizunak* zenekoan, “Mundu hau aldrebeskeriaz betea dago, eta Jaunak gizonei lurreko agintea uztean gaizki egin zuela pentsatzen dut” 19.ean diharduzula, hamairu urtez azaleratutako pentsamendu sakonagaz egin duzu topo. Ez zaizu, hain sustraitua izan arren, ulergaitz gertatzen ume-bardingo horren testua, ezen, betirik jabetu dira haurrek euren burua gainditzen zuten liburuez, nahiz eta edukin konplexu eta unibertsaleko izan: Swift-en *Gulliver-en bidaiak*; De Foe-ren *Robinson Krusoe* edo Rabelais-en “Gargantua eta Pantagruel” dira adibide garbi.

20.ean zoazela, olerkitzat baino bertsoztat hartzen duzun estrofaren aldamean, Alberto Rementeriarren pinturak erakartzen zaitu. “Ikasturtea”:

“Andereñoak begiratzen nau  
barrezka nagoanean,  
sekula ez dit hark begiratu  
txintxo-lasai naizenean;  
horrexegatik egon behar dut  
sarri askotan kalean,  
okerrena da aita ta ama  
konturatzen direnean”.

“Afizio kontuak”, eta 23.era ailegatua zara.

---

(2) Xabier Mendiguren. *Hegats* 9, 57-58 orr. 1994.

“Bertsolari izateak  
ditu zenbait zio,  
lehenengo hartarako  
jaio eta balio.  
Lopategi maisuak  
horrelaxe dio:  
Oraindik ez ninteke  
nire buruz fido”.

Lopategi irakurtzen duzularik, BBKko izkribuzko lan guzti hauen back-grounda osatzen duten irakasleek mereziko luketen aipamen publikoaz oroitzen zara.

Janariak izeneko bertso sorta idatzi duena ere markinarra da Mogel eta Fray Bartolome Madariagaren moduan.

Umeak orain hartzen  
dabiltza papilla.  
Hori beraientzako  
dala marabilla.  
Janari hori gustatzen  
zaie eurei pilla,  
ahora sartzeko ta  
beteteko zila.

Heldu zara, irakurle, “Love Story”ra.17 urte, aizu! Gradu bat gehiagoko mendian gora zoaz. Bada gairik, honaez gero, testu-iruzkinerako lain. “Kaleko iluntasunak irentsi nau. Behin eta berriro itzuli ditut begiak ospitaleko bere gelara. Gero eta urrutiago argia; gero eta kaskarragoa gau oskarbian. Adurraren izar guztien iseka...”, with the first hallo, you gave a meaning to this empty world of mine... Negar zotinak ito zidan maitasun istorio posiblearen doinua”.

“Zuhaitz bat, herri bat”. Metafora luzea, Euskal Herriaren alegoria. “Bazen zelai berde bat non zuhaitz sendo bat zegoen. Tximista batek ere botako ez zuela zirudien zuhaitz bat, zeinak bere inguruan zuhaitz txikiagoak zituen. Haritz zaharra babestuko zuten zuhaitz txikiak... Eta eguzkia irtetzen zen Ekialdetik eta ezkutatzen zen Mendebaldean; eta sortzen zen Sortaldetik eta sartzen zen Sartaldean”.

“High on this world”. Ingelesa berez-berez darabilte idazle trilingue hauek. 40.ean zoazela ez dakizu beronen idazlea, Olatz Merkader, gero ere, “Prometeo eta ni” deritzanean topatuko duzula, Aitor Sarriegi ere aurkitu duzun moduan. Zeinak gogora dakarkizun Arkaitz Cano —orain profesioaletara igona— orrialdeok orbizten aritutakoa dela. Geroak poza damaizu, behingoz bederen!

\* \* \*

“Hizki ttipien harmonia”. Hemen bertsolari baino poeta berria azaltzen zai- zu; Erroma eta Greziaraino joaten dakiena, Minerva artista askoren inspirazio iturri izanarengana.

“Prometeo eta ni”. “Sisifo eta ni”. Begietarako idatzia; entzutearekin behar hainbat antzematen ez dena; prosa nahiz poesiarekin ausartzen den Olatz Mer-kaderrena.

“Hautsak jan hau”. “Baina barkatzen diagu, hoa lasai; berriz ere kopiatuko diat azterketa. Arazoei buruz hitz egingo diagu. Elkartuko gaituk hutsegin ezin den zitan”.

Heldu haiz liburuan zeharko txangoaren lurmuturrera neurekin batera. Ikusi dukezu nola ez duten gazteek errelato edolkuraturik nahi. Zelan gazteak, asaska dadin, behar-beharrezkoa duen kontaketa egoera bortitzen eragina. Aristotelesek zioen funtzio katartikoa bete dezan.

“Egia edo guzurra, begi bien artean sudurra”.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA  
“RESURRECCION MARIA AZKUE” SARIAK EMATEAN  
EUSKALTZAINBURUAREN HITZALDIA**

*Bilbo, 1994.02.18*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Bilbao Bizkaiko Kutxako buru Jauna,  
Jaunak eta Andereak, agur.

Pozik mintzatzen naiz egun Bilbao Bizkaia Kutxako areto nagusi honetan, orain bertan emanak izan direla Bilbao Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak eskaintzen dituzten sariak eskoletako haurrentzat.

Lehenik nahi zaitut agurtu Manfred Nolte Aramburu jauna, Bilbao Bizkaia Kutxako buruzagia eta, denbora berean, eskertu zure hitzaldia. Azken hiru urte hauetan, elgarrekin eta eskuz esku egiten dugu lan, sariak antolatuz, eleberri, olerki, antzerki eta saioentzat, zuek behar den dirua emanez. Euskaltzaindiak epaimahaia antolatuz eta bere babes eskainiz.

Baina poz bereziarekin nago egun hemen haurrentzat sortu den Resurrección María Azkue sari ematearen karrietara. Alabaina, sorkuntzari buruz diren sarietan bozkarioz betetzen nau egungo sariak, haurrentzat egina baita 10-14 urte artekoentzat eta ere 14-17 urte bitartekoentzat. Ehun ta hogeita hamar bat lan etorri dira eta paradaz baliatzen naiz eskerren bihurtzeko epaimahaikoei. Xabier Altzibar, Jon Otegi eta Iñaki Bernaola jaunei.

Denbora berean, Juan Luis Goikoetxea, iazko lan sarituen biltzailea eta paratzailea eskertu nahi nuke, eskuetan daukadan liburua, Bilbao Bizkaia Kutxak argitaratua, ederra, gustu handirekin antolatua, marrazki zoragarriez hornitua baita.

Euskal literatura aurrera badoa aurtengo sariarekin. Euskaltzaindiak egiten du lan literaturaren bultzatzeko eta aztertzeko. Hain zuzen, hemen baitaude Literatura ikerketako batzordekoak, azpimarratu nahi nuke literatur kritikari buruz biltzen ari duten hiztegia, bigarren mailan eta unibertsitateetan baliatzen ahalko dena agertuko delarik. Goiz honetan bilduak ziren Euskaltzaindiarne egotizan.

Azkenik nahi dizkiet zorionak eman sariak ukan dituztenei. Goizik hasi zarete lanean; merezi zenituzten txaloak ukanak dituzue. Segi aurrera! Zuek zarete etorkizuneko idazleak. Zuei eta zuen lanei esker eta hala nahi baituzue iraunen du euskarak, gure hizkuntza maiteak. Zuentzat ene txaloak eta zorionak. Eskerrik asko.





